



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazKristabaII.htm>

KRISTABAREN BIZITZA (2. arg.)

Agustin Kardaberaz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KRISTABAREN BIZITZA

Edo bizitza berria egiteko bidea,
bere amabi Pausoakin
Jesus-en Konpañiako Misionero
Aita Jeronimo Dutari-ren
Librutxotik aterraa:
beste Debozio,
edo Ejerzizio batzuekin.

Guzia Euskeraz animen probetxurako
Konfesore Jaun, Jaungoikoaren Ministro zelosoai,
Jesusen Konpañako Aita *Agustin Kardaberaz*-ek
eskeñtzen, ta dedikatzen die.

1760.

BEHAR DAN BEZALA.
Iruñeko Librugille Antonio Castillaren etxean



IRAKURLE EUSKALDUNARI

Libru txiki onetan, nere Kristaba, eskeñtzen dizut Maisu andi, ta Misionero jakintsu baten urte askotako neke, ta al-egin guzien doai bat. Erraz ezta, beste Librutan laburrago, ta argiago Zeruko bidea zuk arkitzea, ta ez bestek zure anima Jainkoaren bidean zuzenago eramatea, Libru onek baño. Gure Euskera ondasun au gabe orañdaño arkitzen zan: orañ bera datorkizu eskuetara. Ez dezazula, arren utzi, egiaz aberats, edo Zeruaren Jabe ditzoso izan nai badezu. Ori zuk irabaztea, nere irabazirik andiena izango da. Agur.

Kura Jaun guziaz, ta Guraso onai, Jaungoikoagatik erregutzen diet, gazte alperrai, edo Seme, ta alabai irakurtzen ikasierazo diezatela: etxe bakoitzean Libru on bat irakurten duela batek, guziak enzunaz, txit Dotrina asko ikasi, ta animen probetxu, esan al baño andiagoa, aterako dute. Ala Jainkoari nai dakiola.

Librutxo onetan dauden gauzak erraz arkitzeko bide, edo lista, azke-nean ematen da.

BIZITZA BERRIRAKO BIDEA



LENDABIZIKO PAUSOA

BIZIERA BERRIA GOGOTIK ARTU, TA KONFESORE ON BAT BILLATU

Galdea. Gurutzearen señailea bekokian egiteak, zer esan nai du?

Eranzuera. Kristau izateaz, ta gerala, guzien aurrean erakustez, lotsatu bear ez gerala.

G. Munduko esamesak, edo errespeto banoak, ezertan ez dauzkana-ri, zergatik iñork ezer esaten ezdio?

E. Zeren txakurrak, kalorik ez, edo ezjaramon egiten dionari, zanga-rik egiten ez dion.

G. Zeruko Bide onetan ez utsegiteko, nondik asi bear da?

E. Biderako Lagun, edo Gida on bat artzetik.

G. Zer Lagun izan bear du orrek?

E. Konfessore artu bat, Santu, jakinsu, juiziozko, ta animen zeloduna.

G. Ta Konfessore orrekin seguru, ta ondo ibiltzeko, lenengo gauza, edo erregla zeñ da?

E. Animako gauzen, baita tentazio guzien kontu osoa batek ematea, ta berari itsu itsuan jarraitzea.

PAUSO BAKOITZEKO KONKLUSIOA

Galde, ta Eranzute laburren ondorengo dotrinari Konklusioa deri-tza, eta orazio, edo itzketaren azkeneko parte da, ta len esan diran arra-zoien ondoren orietatik atera bear dana.

PAUSO ONETAN ATERA BEAR DANA

Mundu onetako guziak duten egitekorik andiena, edo bakarra, Aita Santuak Eleiza gobernatzean, Erregeak beren kezka guzien artean, Sol-daduak gerretan, Letraduak beren estudioan, ta Merkatariak beren tratue-tan; or guzia besterik ezta, ezpada Jainkoa serbitzea, ta beren animak sal-batzea. Azken fin, edo egiteko andi onetara, ondo izateko, illkor guzien, edo gure beste nai, gogo, uste, ta alegin guziak zuzendu bear dira. Gerrak, eta pakea, ta beste, anditzat lurrean dauden egitekoak onen aldean ame-tsak, ta jostaerak dira. Ezer ez dira, ta ezer balio ez dute, baldin salbatze-ko laguntzen ezpadigute. «Gizonari zer aprobetxatuko dio, Kristok dio-nez, mundu guzia irabaztea, galtzen badu bere anima?» *Quid prodest, &c*

Demagun ordu onean, edo kontu egizu, zure gogoak asma al ditza-kean ondasun, errenta, taazienda guzien jabe munduan ikusten zerala. Zure biotzako ordua azkenik etorririko da. *Quid prodest?* Ondasun oriez guziaz zer probetxu izango dezu ordu artan? Ezer ez; ezpada zure ani-maren kezka, ta arazo andia. Konta egizu beste aldetik, zure alabeharrak puestorik altuenetara igo zaituela, guzien buru, gobernadore, ta agintari, edo Errege baten aldeko adiskide, onra, ta adoraziorik andienetara igo arteraño. *Quid prodest?* Orrez guztiaz zure eriotzako orduan zer probetxu dezu? Ezer ez, zeren guzia aize utsa baizen ezjala, ikusiko dezun orduan. Ea demagun, osasunaz, ta indarsu eun, ta geiago urte bizi zerala, atsedeen, erregalo, ta atsegin zure gogoak nai dituen guziakin. *Quid prodest?* Ori guzia zure eriotzako orduan zertako izango da? Ezertako ez, ezpada ordu ura samiñaño egiteko. Beraz, Jainkoa ondo serbitu izana, ori bakarrik zure probetxua, ordu artan, ta betiko izango da.

Ar ezazu, bada, ta orañdaño baño gogotikago zure animaren egite-ko bakar au. Bearbada zure irabazi, ta lurreko aurrera naietan beti zora-turik, egunen batean ozta onen gañean pensatzen jarri izan zera. Beste guztirako denbora izan dezu, ta badezu, ezpada zure salbazioaren oneta-rako, zeña guziak baño bearrago dezun. Zure biziaren geiena nai utsetan, ta Jainkoa serbitzeko uste, edo aldartzeko asi aldi, edo gale batzuetan igaro zatu: Errosario gaizki errezatu bat, Meza bat, al dan laburrena, ta beste debozio ariñ batzuekin zure salbazioa txit seguru zeneukala iritziko ziñion. Baña ai! Zeruko ateetan orrelako orazio, ta indar gabeko bitarte-koakin negar, edo ots egitea, ez da asko. Geiago kostatzen diran gauzak, edo medioak Zeruak eskatzen ditu.

Gogo egiazko bizi bat, ausardia eragille, ta indarsu bat eskatzen du, gure Jesus onak dionez: «Ate estutik sartzeko alegiña egizute». Beste kon-turik egiten ezpadezu, bada, Mandamentuak gordetzea baizik, jakiñik zaude, gordeko ez dituzula. Epeltasunaz, erreparo, edo atzerapenez asi-tzen bazera, edo besteen esamesak gatik, edo utzi bear dituzun gusto, ta konbenienziak gatik, ez dezu ezer egingo. «Asko, ta guzia inportatzen du (dio Santa Teresak) gogo bizi, ta determinazio egin, ta eragille batek. Len-dabiziko determinazio oiek gauza aundia dira». Soldadu ausardiaz, ta karga itxiaz erasotzen ez duenak gutxitan bitoria irabaziko du.

Baña ikasbide, dotrina, edo diktamen oiek, ta beste orrelako zure sal-baziorako bear diranak, Konfessore oitu, ta jakinsu batek obeto erakatsi, ta emango dizkitzu: eta Konfessore jakin seguru bat artzea, iñoiz ere bea-rrago ez dezu, deboziozko bizimodu onen asieran baño. San Franzisko Salesek ainbeste Konfessore orren aukera, edo elezkioa enkargatzen du,



non deitzen dion. «Oar guzien oarra, edo adbertentzia guztien adbertentzia». Ta orren gañean Santuak esaten du: «Maisu Abilak orregatik dio: Milla Konfesoretatik bat ar ezazu: eta nik diot: amar millaren artean bat: zeren ofizio onetarako gai, edo kapaz diranak uste degun baño gutxiago arkitzen diran. Karidadez, jakintasun, ta prudenziaz betea Konfesoreak izan bear du: eta parte oietatik bat falta bazaio, peligro andia du».

Nola, bada, konpontzen dezu zuk, Zeruko bide onetan ez uts-egin naia, ta orretan nork zaramatzien, ez ondo begiratzea? Baldin zure osasun, auzi, edo aziendarentzat, Mediku, Letradu, ta Maisterrik, al dezun onen billatzen badezu: nola zure anima, ta onen salbazioa edozeñ Konfesore, edo lenena topatzen dezunaren eskuetan ipintzen dezu: O zeñ gutxi pensatzen dezun, Konfesore on bat ez billatze orretan, edo zure maliziazko nagitasun, ta deskuido orretan, ta bear ez dezun Konfesorea artzean, zure Salbazio, edo kondenazioa dagokeala! Baña au Ejenplo izugarri onetan obeto ikusiko dezu.

Italia-ko erri batean, oi dan bezala, Jaun bat bere Eleizako Artzai, edo Kurarekin konfesatzera joan zan; baña onek ikusirik aren animaren estadia, ta biziera galdua, bere oñetatik absoluzio gabe bialdu zuen; zeren gaizki irabazitako ondasun batzuek beren jabeai biurtzeko gogorik etzeukan, ta biotzeko gogortasun andia erakutsi zuen. Konbentu batetik bestera Jaun ori ibilli zan absoluzioaren billa: zeren, askok uste duten bezala, pensatzen zuen, Konfesoreagan zegoela kulpaa, edo eskrupulosoaa zala. Azkenik Relijioso bat topatu zuen, ta onek bizarria andiaz absoluzioa eman zion: eta Jaun ori añ pagatua geratu zan, non berarekin aurrera ere konfesatu oi zan: eta erregaloren batzuek egiten ziozkan, eta jatera, edo bere maiera askotan konbidatzen zuen.

Beñ batean afaritara eraman zuen, eta alkarrekin afaldu ezkeru, Konfesorea bere Konbentura biurtu zan, ta Jaun ori oiera joan zan. Baña emen, uste gabeko aldi gaisto, edo akzidente añ estuak eman zion, non lekurik gabe bertan, ta beñgoan illik gelditu zan. Denbora orretan, gizon orren etxeko ziruditen mutil bik Konfesoreari etxe orretara ots egin zioten; baña oiek ziran demonio bi. Erlijiosoaa bereala joan zan, ta etxean sartu, ta eskaletan gora igotzen zala, Jaun ori ikusi zuen eskal-burutik zetorkiola, jaikitzeo soñeko luze batekin estalirik. Mutillen mandatua burlatzat zeukala, betik esaten asi zan, zer ikara eman zioten, ta nola esan zioten, gaitz andi batekin erremedio gabe zegoela.

Orduan Jaun orrek boz ikaragarri batekin eranzun zion: Añ erremedio gabe nago, non ta infernua erretzen nagoen; zeren ainbeste urtean gaizki konfesatu naizan. Ta, bada, zu ere, zure absoluzioekin nere kulpaa

ren parte izan zera, ta zeren desengañatu ez ninduzun: Jainkoaren justiziak agintzen du, penan ere nere lagun izan zaiteala. Onetan dunbadako, ta lur ikara aundi batekin etxe guzia ikara ibilli zan: eta Jaun orri demonio bata, ta Relijiosoari bestea itsatsirik, biakin eskutatu, ta infernua sekularo ondatu ziran: ta ala geroz ez aien gorputzik, ez arrastorik ere idoro etzan. Jesusen Konpañiako Aita Juan Lorino, Eskritura Sagraduaren gañeko bere Libru guziz estimatuaz, gizon mundu guzian ondo ezagutua, Ejenplo triste onen testigu izan zan. Ta zuk, emendik Konfesore al dezun onena billatu, ta artzea atera bear dezu.

Libru, edo Autoreen deierak, edo zitak Euskaldunai faltarik egiten ez die; eta Erdarazko Librutxoetan arkitzen dira.



BIGARREN PAUSOA

KONFESIO JENERALA, EDO PEKATU GUZIEN KONFESIO ON BAT EGITEA

- G. Konfesio jenerala egitera nor dago obligaturik?
 E. Lenagoko Konfesioak gaizki egin dituzten guziak.
 G. Pekaturik iñoiz ere ixildu ez tuenak, egin dezake Konfesio gaistorik?
 E. Bai, Aita, zeren damu, edo egiazko propositua askotan falta dan.
 G. Konfesio askotan emiendarik batere etzuenak, propositu ori bazeukan, edo ongi konfesatu zan?
 E. Geienez, ez Aita.
 G. Zergatik, bada, baldin berari baderitza, propositua iduki zuela?
 E. Zeren emiendarik ezpada, aozko proposituak, baña ez obrazkoak izan oi diran.
 G. Pekatuz beterik dagoen batek nola egin dezake Konfesio jenerala?
 E. Naiarekin, edo gogotik deseaten duela.
 G. Eta bururik, edo memoriarik ozta iduki arren ere bai?
 E. Bai, Aita, borondatea badauka, ta alegiña egiten badu.
 G. Bere pekatuak akordatu, edo oroitzeko, zer egin behar du?
 E. Alegiñezko Esamen bat, bakoizaren bizimodua danez.
 G. Ta beste konfesioetan isillik utzitako pekatuak konfesatzea, asko izango da?
 E. Ez Aita: orietan konfesatuak ere billatu, ta berriro konfesatu bear ditu.
 G. Zergatik, bada, len konfesatuak badauzka?
 E. Zeren orobat dan, nola konfesatu ezpalitu.
 G. Damu, ta propositu artzeko zer bide, edo medio da onena?
 E. Jainkoarekin eraldizka erretiratu, berari erregutzera, ta zenbat ofenditu dezun pensatzera.

EMENDIK DATORRENA

Baldin zure igaroko urteetara, ta konfesioetara begiak biurtzen badi-tuzu bearbada ikusiko dezu, zu salbatzeko konfesio jenerala egitea txit premiazko gauza dezula. Begira ondo, orietan pekaturen batzuek, edo zirkunstantziak, nola diran aurtasuneko zure lagun, edo ideakin egindako pekatu itsusi, edo gauza desonestaok, lotsaz, edo jakiñik utzi ziñituen,

estali, edo gutxitu: ta oietan ta geroz orrela egiñetan, konfesio andi jenerala da txit bearra. Begira denboraren batean, edo konfesio askotan emienda, ta propositu eragille gabe ibilli zeran, bizio, oitura gaisto, edo okasioren batean sarturik: ta oietan konfesio jenerala da premiazkoa.

Baña demagun orrelakorik izan ez dala: zure gazetetan zer kontu, edo juizio egiten zenduen, damu, ta propositu egiazkoa zer zan, ta Penitentiako Sakramentu au noiz zan? Ta konfesio aiek nola joango ziran? Konsidera zaitetz, bada, zure eriotzako orduan, eta konfesio jeneral bat egin naiko zendukean. Begira, bada: nola ordu ura egien ordua dan, ala da gaitz, edo neke askoren ordua: ta Pater noster bat ondo erreztatzeko, ozta egongo zeranean, pekatu guzien konfesio au egitea soseguz, erraz izango ezta.

Orrez guztiaz ere, Konfesore oitu, ta jakinsuaren iritzi, edo juizioan, puntu onetan egiaz eskrupuloso bazera, konfesio jeneralak eztu zurekin itzegiten, ta zure Konfesoreari onetan obeditu bear diozu, nai ezpadezu, zure onerako dana, zure pozo biurtzea. Beste gañerakoai Santuak asko akonsejatzen die, batez ere deboziozko biziera berri bat asitzeko. Onetarako S. Franzisko Sales-ek dio: *Konsideratzen det txitezko probetxosoa asiera honetan izango dezula, ta konfesio jenerala egitea, alegin guztiaz agintzen dizula.*

Ezin au egingo dezula, pensatzea, deabruaren lazo bat, anima asko nasturik daukatzieta, da. Jainkoak ez dizu agintzen, pekatu guztiaz oroi zaitetala, ezpada oriez akordatzeko zure alegiña dagizula: ta ori zure alde-tik egin ezker, milloi bat pekatu aztuagatik, Konfesioak alde orretatik peligrurik eztu. Ondo presta zaitetzke era onetan. Ar ezazu lenengo Mandamentua, gero bigarrena, ta besteak: orrela zure biziko pauso, ta okasioai jarraituaz zoaz, zazpi urteetatik amabostetaraño: amabostetik ogeiraño, ta beste zure urteetan: Zenbat gezurrezko juramentu, gutxi gora bera ilean, edo astean, egin zinduen.

Kontu, edo numero jakiñik onela ezin atera badezu, daukazun duda esazu, edo zer oitura zenduen, al dezun bezala, ta asko dezu ori. Beste Mandamentuetan, ta zure urteetako pekatuetan, kontu ori bera egizu: ta beste betarik ezpadezu, edolarik zure eskuotako bearra egiten dezun artean. Bigarrena: orrez gañera, egunen batzuetan zure biotzean sartu bear dezu, Jainkoarekin bakarrean pensatzera, Jaunaren ofensa zer dan, ta zure pekatuak zenbat kosta zitzaizkan, nola oriekin Zerua galdu, ta infernua irabazten dan: edo egiazko damu, ta propositura obeto, ta geiena mugitzen zaituen konsiderazioren bat. Ta zuk bearren dezuna, ta Jainkoari geiena eskatu bear diozuna biotzeko damu au da.



Begira emen ondo: Anima engañatu asko bezala izan bear ez dezu: oien antsia guzia, da desbutxatzea, edo pekatu guziak esatea, ta geroz, beste egitekorik ezjala, uste dute. Konfesio jenerala egitea, bada; bertatik artu gabe, Kristabaren biziera berri on bat egiteko, bear diran bide, ta neurriak, anbat da, nola zimenduak ateratzea, etxea ez jasotzeko. Nagitasun aitzakia gabea; ta are geiago emen, Zeren Konfesio jenerala berez dan zimendu bat, birtuteen etxea jasotzen, ta aurreratzen, asko laguntzen duena, berekin dakartzien probetxu, ta frutu andiak gatik.

Konfesio jeneralaren frutuak dira: Animari bere salbaziorako ematen dion lotsa, ta bildur santua; Jainkoarekiko ezaguera, ta esker ona; ta lengo konfesioetako arantza, ta kezka askotatik libratzea. Konfesio jeneralak errazago, ta seguruago dakar, ta ematen du egiazko damu, ta propositua, biotza lasaitzen du, espiritua bizierazotzen du, grazia geitutzen du, ta pena gutxitzen du, Jainkoaren asarrea gozaten du, pake, ta konsuelo andia lajatzten du: azkenik Konfesio jeneralak bitoria oso bat demonioagandik alkankatzen du, urrengo ejenploak esango dizun bezala.

Bona-ko errian izan zan Andre bat Aleida zeritzana: bizitzan txit gaizki Sazerdote batekin amanebaturik. Beñ batean, kanpotik etxera biurtu zan; ta orra non adiskide gaisto ori bere burua urkaturik arkitu zuen. Arako triste-ura ikusi zuenean, negarrari, ta deadarrari eman zion: Ai, Aleida, Aleida! Zer da au? Ai ene ditxagabea! Ai! Ire pekatu itsusi guziak Jaunaren tribunal aserrear irten ditun. Onenak egin du, ta onek erremediorik eztu; nik bai. Jainkoaren abisoa den au: bera billa dezadan, ta penitentzia dagidan. Erioak begiak gorri. Esan ta egin, ta gogotik artu zuen. Zegoena zegoen lekuan utzi, ta infernuko etxe artatik iges joan zan, Zeruaren billa, ta Konbentu batean sartu zan: Eriji Joan penitentiak, ta deboziozko bizimodu santu bat artu zuen.

Deabruak enbidiaz Aleidaren biziera berria ezin eramanik, gau, ta egun persegitzen zuen beti. Askotan guziz izugarria agertzen zitzaion, golpeka botatzen zuen lurrean, ta beñ putzu batean ito nai zuen. Erremedio santuak ematen ziozkaten: bata Gurutze aren señalea egiteko, besteak ur bedeikatu botatzeko; baña orrez ere ezin libratu zan. Erlijiosa zar batek esan zion, demonioa agertzean, Abe Maria deadarrez erreza zezala. Ala egin zuen. Arako demonioak, Abe Maria aditu zuenean, saieta batez josi balute bezala, ariñ iges egin zuen esanaz: arraio gaistok erre dezala izi ori erakutsi diñan aoa. Geroz ere agertzen zitzaion, baña urrutitik.

Azkenik Jainkozko Gizon batek esan zion: Aleida: Konfesio jenerallik iñoiz egin badezu? Ez, Aita, eranzun zion. Bada; nere konsejua ar ezazu: pekatu guzien konfesio on bat orien egiazko damu, ta proposituaz

egizu; ta seguru demonioetatik libratuko zera. Ala izan zan. Aleida txit ondo prestatu zan, ta Konfesio jenerala egitera zijoala, demonioa bidera irten zitzaion, ta deadar egin zion: Nora oa Aleida: nora oa? Aleidak eranzun zion: Noa, Jainkoaren aurrean nere burua lotsatzera: ta iri burua ausi, ta lotsatzera. Bildur gabe bere bidean joan zan, demonioa miru itsusi baten gisa zerraiola: Konfesio jeneral ori bear bezala egin zuen: eta non betiko demonioetatik libratu zan, oiek geiago atrebitu etziran, ta Aleidak animako pakea arkitu zuen.



IRUGARREN PAUSOA

ERRETIROA, TA PEKATUETATIK IGES EGITEA

G. Jainkoagana ya biurtu dan anima batek lendabiziko egin bear duen gauza zeñ da?

E. Erretiro santu bat, ta iru gauzatatik batez ere iges egitea.

G. Iru gauza oriek zeñ dira?

E. Ikaratzen ez duten demonioak, otsik egiten ez duten kateak, ta iltzen ez duen pozoi, edo benenoa.

G. Ikaratzen ez duten demonioak zeñ dira?

E. Adiskide, ta lagun gaistoak.

G. Zergatik orrenbeste orietatik iges egin bear da?

E. Zeren deabruak berez ezin egin duena, oriezaz egin oi du.

G. Otsik egiten ez duten kateak, zeñ dira?

E. Pekatuen bide, edo okasio, ta peligroak.

G. Zergatik orrenbeste orien bildur animak izan bear du?

E. Zeren andienetan erori baño, ta sentitu ere baño lenago, erori ta preso orietan arkitu oi dan.

G. Pozoi, edo beneno iltzen ez duena zeñ da?

E. Pekatu benialak, edo ariñak.

G. Oriek kentzeko, zergatik orrenbeste egin bear da?

E. Zeren itoitien konturik egiten eztan etxea eroriko dan.

G. Gaitz guziak kentzeko, zer beste gaitz kendu bear da?

E. Alperkeria, zeña gaitz guzien atea dan.

G. Zergatik da gaitz guzietarako atea?

E. Zeren alperra, ezertan pensatu gabe, guzirako dagoen.

EMENDIK DATORRENA

Zure birtute, ta proposituak beroak ta egin berriak dirala ere, beti peligro andian egongo dira, erretiro santu bat gogotik artzen ezpadezu, edolarik illen batzuetan, kunduko korriko, bisita, jolas, edo nobersazio bano, ta hitzketa alperretatik, ta egiteko andien tropeletatik, al da guzia iges egiñaz. Munduko arazeak Jainkoaren dei, edo inspirazio, ta gogorik bizienak ere ito oi dituzte, Ebanjelioak dionez. Kristo ezta arkitzen, dio S. Ambrosiok, Tribunaletan, ta ez Plazetan.

Landare gazte, edo loreak, aize guzietan daudenean, erraz igartzen dira: ta eri bat, zure anima bezala, orañdik argal dagoena, aizetatik gordezen ezpada, erraz otzak igaro, ta berriro gaitzera biurtzen da. Erretiro onek birtuterako zenbat balio duen, naizu ikusi? Begira, bada, nola Reli-jio Santu guziak, beren Erregla, ta bizimoduetan añ banaka, edo diferent-teak izan arren, erretiro onetan, ori agintzean, ta gordetzean, batez ere asi-berri, edo Nobizioetan, zeñ batean, ta berdin guziak dira.

Erretiro au gorde ta ere, tentazioz bete, edo estuturik arkitzen baze-ra, orregatik ez desmaiatu: ori bera da señaile ona; bada Jesu Kristo bera ere eremuan tentatua izan zan: eta zure animo andiai gorako Jaunak berak esaten: *Ene seme, Jainkoa serbitzera asitzean, bildur, ta justizian sendo egon zaite, ta tentazioak igarotzeko presta zaite.* Infernuko zakurrak orrenbeste zanga egitean, señaile da, ya aren etxekoa etzerala. Beti bearbada iñon diran pensamentu itsusi, ta ikaragarrienak burura ekarriko dizkitzu Fedearen, Jainkoaren, ta Santuen kontra; baña begira oriek gatik etzaizkala estutu, ta ez naigabetu (zeren ark nai duena ori dan): ez burukadaz erresistitu, ta ez pensatzen egon, lekurik eman diezun, ala ez; zeren orrela barrenago sartzen diran.

Erregla bi oiek ar itzatzu, ta gutxi bana orietatik libratuko zera. Bata da: tentazioak berriz, ta berriro etorriagatik, ez kasorik egin. Beste erregla da: bota zugandik orrako bildur guziegi on, zeñaz bearbada ikaratzen zaituzten, ta zeña dan sustrai, edo bidea tentazioak saltatzeko. Konsentitu dituzun, edo ez, begiratzea, sua piztutzea da. Demagun, leku eman diozula: esaiozu bada Jainkoari biotz guziaz: *O nere Jauna, ta zeñ damu dedan zu ofendituaz! Zuk utziko baninduzu, zenbates geiako ofendituko zinduket!* Onela Fedearen, edo Jainkoaren kontrako tentazio izugarrietan egizu, ta aurrera pakean zoaz, ta ez orietara biurtu. Beste tentazioetan, nola diran aragiaren edo lujuriakoak ori bera askotan konbeni da; baña iges egiten duenak benzitzen du. Pakea galtzea, edo inkietatzea beti da gaisto. Zure antsia guziak bear du izan, zuek biderik ez ematean, begiaz, bullan, edo askorekin egonaz, ta zure iritzi, edo uste banoaz.

Gaizkiago, ta peligro andiagoan iñor ere eztago, gaitzaren, edo peligraren bildur ezтана baño. Etxe artan sartzea, urliarekin egotea, utzitzen ezpadezu, zeren intenzio gaistorik ez daramazun, edo propositu andiak in senti zeralako, peligrorik andianean orduantxe zaude. Zer da antsi intenzio gaistorik zuk ez idukitzea, baldin deabruak badauka? Zure proposituak noiz añ balienteak izango dira, nola San Pedrorenak, zeñak bere bizia Kristogatik eskeñi zuen? Ta orregatik ere, San Pedro, San Pedro izanik,



erori zan, eta andre bateri boz argalaz, zeren okasioan sartu zan. Zer seguridade promestu dezakezu zuk?

Zurekiko arako kontua egitean: Zer inporta du onek? Au zer da? Au ezta pekatu. Kasi galdutzat zere burua emazu. S. Krisostomok dio, ori dala kalte, ta gaitz guzien asiera. Pekatuan deabruak beñere sartzen ez gaitu, ezpada, pekatu eztiran gauzetatik asiaz: soñeko bat urratzen ezta, ezpada ari batetik, edo orrela asiaz. Santa Teresak zion: *Pekatu txiki, edo benialaz kaso gutxi egiten nuen, ta onek galdu ninduen*. Begira ondo, norekin zabiltzan; bada zure aurtasuneko lenengo pekatuetara begiak biurtzen badituzu, orduan ikasi zenduen bizio orretara, edo nasturik iduki zinduen lazo orretara, bearbada arkituko dezu, onelako, edo beste lagun gaistoa, zeñekin oi zenbiltzan, izandu zela.

Guztien gañean alperkeriatik iges egizu, bada pensamentu gaisto, guzien buruko, edo almoada, ta animaren ordoia au da: eta aldi askotan ondo, ta bitorioso irten bazera ere, ez beti ere zere buruaz fiatu. Obeto au ejenplo andi onetan ikasiko dezu. Santiago Ermitaño miragarria, berrogei ta bost urte, ta geiago zuena, edo zulo batean eremuan bizi izan zan, demonio asko gorputzetatik aienatzen, ta beste milagro asko egiten zituela: oien artean txikiena izandu etzan, arako deabruzko emakume galdugandik atera zuen triunfoa.

Demonioak, eta demonioa baño gaistoago ziran gizon batzuek, Santiago orañdik gaztea zala, andre bat erakarri, ta gaitzera mugitu zuten. Santua zegoen lekura joan zan au gau batean, gezurrez ziola, nola eremu artan gau ark artu zuen. Santuak lenengoan bereala atea itxi zion. Baña nola andrea deadarrez asi zan, basoko abereren batek an puska zezakeala, Santua mugitu zan, zeren alako abere asko baso aietan oi zebiltzan. Atea idiki zion; baña lenbiziko atarteandrea utzi, ta bera barnengo zelatxo batean sartu, ta itxi zan.

Alere enbustera ori laster negarrez, ta deadarrez andik asi zan: *Jesu Kristoren odolagatik, gizon santua, arren Gurutzearen señaleari nere gañean egidazu, zeren biotzeko miñ, ta antsiaz iltzen nago*. Leiotxo bat Santiagok idiki, ta emakume ori lurrean zetzala bisaje, ta siñu guzizkoak egiten ikusirik, karidadean ez faltatzearren, ta bere burua peligratik libratzeko, su andi bat irazaki zuen, eta olio bedeikatuaz biotzaren gañean, eskuiaz egiten zion artean, ordu bete, ta geiago bere ezkerreko eskua surtan iduki zuen, eskuiko beatzak erre, ta urturik erori arteraño. Mirari andi au ikusi, ta arritu zan andrea: bere biotza Jainkoak, jo zion ta troku zan: bere kulpa konfesatu zuen, ta aren Majestadeagana egiaz, ta gogotik biurtu zan.

Baña ai! Nor bere biotzaz fiatu, edo segura diteke, dan Santuen, ta balienteana izan bada ere? Andik denboraren buruan, Santua ya edadekoa zala, donzella bat, gizon aberats baten alaba, atormentatzen zuten demonio, edo gaizkiñetatik milagro libratu zuen. Obeto bearrez, ta seguratzeko, deabruak biurtu etzekiozkan, Santuari aren gurasoak erregutu zioten egun bian geiago alaba ori berekin iduki zezala: ta Santuak au ontzat artu ezkerro, berak etxera biurtu ziran. Onek etzekien, zer kaltea bere buruari ekarri zion. Arako eremu artan donzellarekin bakarrik ikusi zanean, deabruak lujuriako su, ta gar infernukoak aimbesteraño irazaki ziozkan, non Jaungoikoaz, ta bere igaroko bizitzako bitoria guziaz azturik, zeldatik kanpora irten zan ta pekatuak itsuturik, donzella ori, ta nai etzuela, galdu zuen: ta bata bestea baño gaistoago, ta gaitza gaitzaren gañean egiteko, gero iltzuen, ta aren gorputza, sekulan agertu etzedin, ibai batean bota zuen. Orra peligran sartzeak zer dakarren.

Santiagok bere burua onela ikusi zuenean, alako tristeza gogor, ta naigabe etsiak biotza artu zion, non eremua betiko larga, ta mundura biurtzeko gogo artu zuen. Baña, nola Jainkoaren ontasunak guztiro lajatzten ez dituen pekatari bera lajatzten dutenak, Santiago galdu, ta zijoanari bidean erremedioa eman zion. Jainkoaren sierbo, ta adiskide bat bidean topatu zuen, ta onek txit animatu, ta alaitu zuen. Jauparen miseriakordiaz baliatu, ta egiazko penitentzia egitera. Añ gogotik Jainkoagana biurtu zan, non bide bazter batean illen obi zar bat zegoela ikusirik, antxe Santiago penitentea sartu zan: an illen ezur, ta buru-ezur aien artean amar urtean sartu ta egon zan, bere kulpa andien penitentzia gogorra egiten. Geroenean Jainkoak, len bezala, bere Ontasuna, ta Santiagoren birtutea munduari erakutsi zion, onen biziera berrian milagro berri, andi asko egiten zituela, ta Santu iltzan. Ejenplo onetan ikusten da, peligran sartzea, zer dan: nola iges egin bear dezun, zugar ez fiatu, ta pekatuen penitentzia egitera, nola animatu bear dezun.



LAUGARREN PAUSOA BIZIO, EDO PASIO AGINTARIA SUJETATZEA

Pasioaren izenaz edozeñ biotzeko griña gaisto, edo gaitzeronz anima daraman deseo, edo gogoa aditzen da: ta geiena tiratzen, edo arrasatzen duenari Pasio, edo bizio dominantea, edo agintaria, ta nagusia emen deitzen diogu.

G. Lasterren, ta seguruena zerura nor allegatuko da?

E. San Ziprianok dionez, mandazaien gisa, bere bearra obeto egiten duena.

G. Ori ondo egiteko zer bear da?

E. Guk degun abere, edo pasiorik gaistoena ondo ezitzea.

G. Ta abere orren gaizki aziak nola ezi bear dira?

E. Bereetatik bat egiten duen bakoitzean, pena, edo penitenziaren bat ezarriaz.

G. Ta zer besterik egin bear da?

E. Jainoari erregutu, berari itza eman, ta propositua, batez ere goizean, egin.

G. Zer penitenziak bakoitzean asko serbituko digu?

E. Seguruena da, Konfessorearen konsejuz, falta, edo kulpa bakoitzagatik obra onen bat, edo orazioa, edo limosna, edo penaren bat, barau, edo lurrari muñ egitea.

G. Ta baraurik ezin duenak, zer erremedio ar dezake?

E. Barau bat gasoak ere egin, ta gorde dezaketena.

G. Barau orren erraz ori zer da?

E. Begien, mingañ, esku, ta beste sentiduen baraua: gala, joko, erre-galo, ta beste gusto geiegietan orobat.

G. Guraso, ta nagusiak nola etxetik kenduko dituzten juramentu, maldizio, ta orrelakoak?

E. Berak ez egiñak, ta pena bat egiten dituenari emanaz.

ONETATIK DATORRENA

Eztezu zer uste, espiritua ondo sujetatzea; gorputza lenago sujetatzen ezpadezu. Badakust, barau, zilizio, ta azoteen izenak berak miñ, edo ikara, bearbada, emango dizula: baña beste Nobiziadu, edo biziera berri-rik, ez beste Zeruko bide jakiñik nik ezin emango dizut, Jainkoak, eta San-

tuak erakusten dutenak baizik. Eskritura Sagraduan ozta pekatarien konbersionik kontatze da, edo orretara iñor animatzen ezpada orrelako bide-tik. San Pablo Apostoloa bera bere kondenazioaren bildur zan, bere gorputza kastigatzen, ta sujetatzen ezpazuen.

Baldin zure osasunak, edo beste gauzaren batek gogortasun oriek ezin eraman baditu, edolarik gusto modu asko ukatuaz ezi dezakezu. Baña, diranak dirala penitenziak, bat ere ez egin, neurri gabe, ta Konfessore jakiñaren konseju gabe: eta onek, edo zure argaltasunak (naiz espiritukoa dala) orietarako lekurik ematen ezpadizute; ez orregatik izutu, edo desmaiatu. Orañ nai dizut kamio erreal bat, eta Zerurako bide labur, ta seguru bat erakutsi nai dizut; eta au da zure bizio nagusi, edo pasio agintaria sujetatzea. Ara nola.

Begira zazu ondo, ta zure Konfessorearekin itz egizu, zer pekatu, edo bizio dan, zure animan geiena agintzen duena, ta kalterik andiena egiten duena. Ote dan oituraren bat juramentu, edo maldizioetan, gezur, edo murmurazio, gaizki esate, edo itz loietan: lapurrena, joko, edo aserre, ta gorrotoetan: ardoan sartzean, edo pekatu itsusi desonestoetan. Oriean artean geiena zure animan agintzen duenari, zure peligro, eta etsairik andienari bezala, begiratu bear diozu: anima geienen salbazio, edo kondenazioa pekatu, edo pasio nagusi onetan oi dago, ta emendik etortzen da.

Onelako bizio batek, oituraz animan sartua, egotez, edo jarri ta bezala danean, geiago ikaratu bear zaitu, esateko moduan, bestelako milla eriotza, ta sakrilejio len egin, ta igaroak baño. Pekatu oiek, diran andienak, ta asko izanagatik, konfesio on batean beren erremedioa badute; bañ kulpa bakar batek, oitura, edo kostunbrezkoa danean, grabea dala, ta emiendarik gabe, konfesioaren erremedio bera pozoi, edo beneno, ta sakrilejioa egiten du. Onek, proposituaren faltaz, zure konfesiak peligro andian ifiñiko ditu, orañdañoakoak bearbada ifiñi zituen bezala.

Nai badezu, bada bitoria, ta Zerua irabazi, animatu bear dezu, ta gogotik peleatu, batez ere Goliat, edo zure bizioen Jigante orren kontra; andien ori beñ azpiratu ezkeru, beste pekatuen txusma erraz sujetatuko dezu. Andien ori bera benitztea, geiago kostako etzatzu, ezpada Santuak ematen dituzten urrengo erremedio biak ondo gogotik artu, ta firme gor-detzea.

Lenbizikoa: Trinitade guziz Santaren izenean, ar itzatzu iru aste, iru ill, edo iru egun: goizoro propositu firmea egizu, bizio nagusi, edo pekatu orretan Jainkoa ez ofenditzeko: berari grazia eska zaiozu, ta fin orretarako zerbait errezezazu. Bigarrena: Konfessoreari eska zaiozu, edo eman zere buruari lege, edo pena bat, denbora orretan erortzen zeran bako-



tzean, pekatuaren penan egiteko: nola dan barau, limosna, edo zilizioren bat, edo orrek izutzen bazaitu, bakoitzean mingañari ozka egin, edo lurrean ori arrastatu, gurutze bat egin, eta Kontriziozko aktu bat: besoak gurutzean zabaldu, ta zerbait erreztatzea, Elizaren batean Ama Birjinari, edo Santua orazio egitea: onelako fruta, edo gustoko gauza, edo ardorik egun artan, edo urrengoan ez probatzea, edo onelako bat: ta pena, edo lege ori kontuz beti kunplitu bear da.

Denbora ori igaro, ta kontuz bazabiltza, sentituko dezu probetxuren bat: ta nola eria, ondo dijoakion erremedioaz, aurrera baliatzen dan, ala zuk ere beste iru aste, edo ill Ama Birjiñaren izenean ar itzatzu, ta lena bera egizu. Gero beste Santuen onran erremedioa ar ezazu, ta beste bizioen kontra ori bera kontuz egizu, eta seguru zaude, orietatik laster sendatu, ta libre ikusiko zerala. Eta emen S. Krisostomok diona: Zu eroriagatik bi, iru, ta ogei bider ere, desmaiatu etzaitela, ezpada berriro jaiki, ta gogotik berriz erremedio au artu, ta guzia egin, ta benzituko dezu. Au dio Santu onek.

Baña asi orduko aspertzen bazera, edo oiek, edo onelako beste erremedio añ errazak, ta gogo, edo kontu puska bat baizen kostatzen ez diranak artzen ezpedituz; nola konpontzen dezu, zure animaren salbazioa egiaz deseatzeta, ta zure konfesioetan proposituak eragilleak izatea? Esango dezu: ezin dateke, onelako bizio edo pasioa, nik sujetatzea. Baña begira ondo, nola ezin andiagoak, eta gaitzak egunero garaitzen, edo benztzen diran, itza eman dalako, edo zeren interesen bat atrabesatzen dan. Ori obeto ikusiko dezu urrengo ejemploan.

Milla, ta seieun, ta bigarren urteron, Ostende-ko Sitioan, Soldatu bat, oi dan bezala, arkitzen zan txit gaizki oitua, ta itzoro juramenu, ta deabruak botatzen zituena, beti madarikatzen, ta gaizki esaka zebillena: eta abisatuagatik, maña infernuko ura utzi zezala; askok bezala, zion ezin erremediatu zala. Baña Misionero Jesuita zeloso, ta jakinsu batek ondotox artu zuen, ta esan zion: ara, dobloi au zuretzat, baldin ordu betean, ez geiago, kanpo onetan nerekin, juramenturik egin gabe ibiltzen bazera. Atera zion dobloia: eta Soldaduak dobloia ikusi, ta zaletu zan, ta Jesuitari esan zion: bada nai duenak nai duena esan dezala, ni ibilliko naiz ixillik, ordu betean zurekin, ta dobloia neretzat.

Ballera, edo rantxo batetik bestera zijoan Jesuita, dobloia eskuan, ta Soldadua, txakur bat ogiaren usian bezala bere ondoren zuela. Joaten ziran jende artera: ta nola guziak aren berri, ta konziertoa ere zekiten, bur-laka, ta farraz tentatzen zuten. Soldaduak, oitu nola, gaizki esaka asi nai zukean; baña Jesuitak dobloia erakutsi, ta mututzen zan, ta isiltzeko min-

gañari ozka egiten zion. Beste rantxo batera joan, ta andik bestera, eta Aitak dobloia erakutsi, ta Soldadua juramenturik gabe zijoan. Onela firme, itz gaisto bat atera gabe ibilli zan, eta Jesuitak bere Saria, dobloia eman zion: onekin erakutsi, eta esan zion, nola gutxi bana bere maña, ta oitura gaistoa, nai bazuen kendu zezakean. Eta onelase bizio agintaria sujetazeko dira, ta artu bear dira erremedio errazak, eta seguruak.



BOST-GARREN PAUSOA SAKRAMENTUEN FREKUENZIA, EDO USUERA

Onek esan nai du, Konfesio, ta Komunio Santura usuro, maiz edo sarritan allegatzea, zeren gure animaren bizia, ta biziako grazia, guzien iturriak diran.

G. Birtutea nola errazago, ta sendoago egingo da?

E. Onra onak bere ordu, ta egun jakiñean, ondo egiñaz.

G. Zer praktika, edo obra illoro frutu andikoa izango da?

E. Ejerzizioen egun bat, bakarrik Jainkoarekin animarenzat.

G. Asteoro, edo amanbostean beñ zer gauza guzien gañean artu bear dezu?

E. Nagitasun, ta arazo, edo egiteko guzien kontra konfesatzea, ta komulgatzea.

G. Esaminaz gañera, lenagoko egunean zer egin bear da?

E. Orazio aldi, edo gutxi bat, limosna, edo penitentzia bat.

G. Komulgatu ta bereala Eleizatik dijoazen, ta beste gauzetara, Jainko utzi, ta biurtzen diranak gatik zer esango degu?

E. Judasen anza dutela: bada komulgatu, ta bereala au kanpora irten zan.

G. Komulgatzen dan egunean, zer beste esker on dira animarenzat txit egokiak?

E. Kontu, ta modestia andia begi, mingañ, ta beste sentiduetan.

G. Guraso, ta Nagusiak beren etxekoen animen kontu ona nola eman dezakee?

E. Illean beñ bakoitza konfeseraoaz, ta bezperan Libru santu bat, aiek enzuteko, irakurriaz.

EMENDIK DATORRENA

Zure salbaziorako beste deboziotan fede geiago iduki bear ez dezu, nola Sakramentuak debozioz, ta askotan artzean. Beste obra on, barau, Errosario, ta orrelako debozioak, Eleizan txit ondo artuak, ta ifiñiak daude, baña Sakramentuak guzien zimenduak dira, ta joia, edo ondasun, Jesu Kristok berak bere amorez utzi zizkigunak. Beñ batean Gizon Santu bat demonioa konjuratzen zegoela, onek aitortu, eta esan zuen: *Jaungoiko-*

aren Eleizan gauzarik ezta, gure indarrak ala desegiten duenik, nola sarri, edo askotan konfesatzea.

Ta zuk zerorrek bearbada au ikusi dezu, ta ala iñoiz ere atzerapen, ta enbarazo geiago etsaiak ifiñtzen ez dizu, konfesatzeko zaudenean baño. Baña, edo txit katibu, ta egitekoz bete zaude, edo ez? Baldin ez bazauden, eskusarik ez dezu. Baldin bazaude: orregatik beragatik konfesatzea bearrago dezu: bada Jainkoaz, ta Zeruaz gutxiago iñoiz ere oroitzen etzera, lurreko egin bearrak arrastatzen zaituztean baño. Zazpi eun ordu, ta geiago ditu ill bakoitzak: ta illoro orietatik goiz bat, edolarik ordu pare bat zure salbazioarenzat izango ezta? Ez amabost egun, ta ez zortzirik ere alkandora aldatu gabe igarotzea, ta sala garbitu gabe, nai eztezu: ta zure animak, soñeko erropak, edo oñ-peko lurak baño gutxiago mereziko dizu?

Pensatzea, Konfesio, ta Komunioa dirala bakarrik, pekatuan erorten zeraneko, engañu bat da, zeñaz zure burla deabruak egiten duen. Jesu Kristok gure animai utzi zisten erremedio, ta janari bearrena oiek dira: eta animak, gorputzak bezala, beti bear dute beren janaria, bizi, edo indarrik ez dutenean, kobratzeko: eta daukatenean, ez galtzeko. Zure konzienziako bazterrak konfesioaz askotan garbitzen ez badituzu: nola naizu, autsez, arrez, ta amamaz ez betetzea?

Animoa egizu, bada; ta zure on guzia dijoakizun gauzan bezala, gogo firme eragile bat ar ezazu, ta al dezun Konfesorerik onena billatu, eta onek esaten dizun egunetan beti konfesa zaite: zortzian beñ, amabostean, edo illean beñ gutxiena; eta au zure onagatik, edolarik, zeren denbora luzeko konfesioak ainbeste kostatzen zaizkitzun: edo ez asko kosta agatik, zeren oiek peligrando andia dute. Baña begira: zure konzienzia esaminatuaz, kontentatu bear ez dezu.

Non da pobrerik, bere adiskide, edo kanpoko etorkari andi bat uste duenean, etxea garbituarekin beste gabe, kontentatzen danik? Aurrena, bada, zure biotzean ifiñi-ezu, Komunioko bezperan, Jaunaren amorioz, limosna bat egitea, edo penitentzia bat, onelako Eleizatara joatea, edo alako gusto utzitzea. Bigarrena: ordu erditxo artu Jainkoarekin bakarrik pensatzeko, aren Pasio, Eriotza, edo Pausoren batean: ta ori zure kulpen damua, ta zure Jainkoa artzeko ondoen dagokizuna, ta guziena mobitzen zaituena.

Zer lastima andiagorik, Sakramentuak, askok oi duten bezala, frequentatzea, edo usu artzea; baña batere prestatu gabe, emienda gabe, Jaun andi ari dagokion fede, errespeto, eta prebenzio gabe: komulgatzera oitu,



ta ez bestegarik, edo besteek baño gutxiago ez izateagatik. Baña ai! Oien artean guzienak, Jainkoaren juizioa, S. Pablok dion bezala, tragatzen dute!

Familiarik baldin badezu, ez arren utzi, iñor ere illean beñ konfesa-tu gabe geldi dedilla: ta bezperan Libru santu bat guzienzat irakurrierazo ezazu, dotrina, ta gauza onak errepasatu, orrela ondo presta ditezen. Baldin zure morroi, edo kriadurai sufritzen ez badiozu, bere kontura daukan zaldi, edo mandoari, egun bakar batean, jaten ez ematea: Jainkoak zer kontu eskatuko dizu, baldin zure ume, ta familiakoen animak, bere odola kosta zitzaizkanak, zure kargura utzi, ta zuk illabete osoetan zeruko ogia gabe, goseak illik bezala, badauzkatzu? Zure etxean abereak, animak baño lenago izan bear dute? O! ikusten bazendu ondo, zugandik abere bategana zeñ gutxi dijoan, zure animari, ta zure etxekoenai Jainkozko ogia kentzen, edo ukatzen diezunean!

Ejenploak au obeto esango dizu: S. Antoniok kontatzen du, debruzko gizon batek andre ezkondu bat gaitzera berekin ekarri nai zuela: berearekin ezin irten, ta andre aren borondate irabazteko alegin guztiaz, ta azkenik gaizkiñaz baliatu zan: oiekin, Jainkoak ala esku emanik, egin zuen, andre ori, zekuzten guzien begietan, biurtea beor baten antzera. Desdixta au ikusi, ta estuturik txitez aren senarra, soka batekin eraman zuen Ejiptoko San Makariogana: eta erregutu zion arren bien penaz lastima zedilla, ta beor ura bere andrearen lengo itxurara biurteko, Jainkoari eska ziozala. Santuak eranzun zion: Au beorra ezta, ta antzik ere eztu, ezpada zuen begiak zaldien begiak dira: ur bedeikatuaz Santuak eman zion, ta len zan bezala, andrea geratu zan. Baña esan zion: Jainkoaren kastigu, ta abisoa da au, zeren bost aste oietan komulgatu eztan, ta Eleizan gutxi sartu dan. Onela emandatzeko bidea emanik bialdu zuen: eta zuk ere ori bera ikasi, ta egizu.

SEI-GARREN PAUSOA

EGUN ARTAN PEKATURIK EZ EGITEKO PROPOSITUA, ETA MEZA ENZUTEA

- G. Goizean jaiki, ta janzi, ta bereala Kristabak zer egin bear du?
 E. Jainkoari egun onak edolarik eman.
 G. Egun onak nola emango diozkagu, edo zer egingo degu?
 E. Lau gauza, edo aktu labur, baña belauniko, bear dan bezala egiñaz.
 G. Lau gauza oriek zeñ dira?
 E. Graziak, edo eskerrak eman, eskeñi, itz eman, ta eskatu.
 G. Zeren graziak emango dizkagu?
 E. Egin dizkigun mesede guzienak, ta batez ere, zeren egun artaraño gorde gaituen.
 G. Bere gloria andienarako zer eskeñi bear diogu?
 E. Egun artako pensamentu, itz, ta obra guztiak, ta beti Jesu Kristoren merezimentuakin batean.
 G. Zer itz, edo propositu egin bear degu?
 E. Egun artan ez bera ofenditzeko, batez ere bizio nagusi, peligro, ta pekatu guziena degun artan.
 G. Zer eskatu bear diogu?
 E. Propositu ori kunplitzeko bere grazia, Santuren bat egun artako bitartekotzat artuaz.
 G. Ta ori guzia ezin ikasi duenak, zer egingo du?
 E. Ama Birjiñari, Aingeruari, ta orrela zerbait errezatu; baña propositu goizean egitea, beñere ez utzi.
 G. Propositua ausitzen dan bakoitzean, bereala zer egin bear da?
 E. Jainkoari barkazioaren eske dagokiola, biotzaren gañean eskua ipiñi, edo miñgañari ozka egin.
 G. Goiz bakoitza zerekin sellatu, edo koroatu bear da?
 E. Debozio guzien Erregiñarekin, zeña dan Meza, ta gero bost Aldareak errezatu.

ONEN ONDOREN DATORRENA

Zure osasuna, zure anima, ta zure etxea ondo gobernatzeko Erloju-rik onena izango da, albaitere goizean jaikitzeo, ta arratsean denboraz oiratzeo ordu señalatu idukitzea. Jainkoari Salomonek esaten dio: *Eguzkiari aurea guk artzea konbeni da, zu bedeikatzeo, ta zu goizetik adoratzea.*



Bada Jainkoaren bendizioa egun guzirako alkanzatu nai badezu, Jainkoagandik eguna asi ezazu: ta etxeko beste gauzetan sartu baño len, Jaunari, ez egun artan bera ofenditzeko itza, propositu firme batekin emaiozu, aren bendizioaz guzia dijoan.

Edozeñ adiskide, edo lagunekin goizean lenen egiten dezuna, egun onak eman, eta itz egitea, baldin bada: zure Jaungoiko, ta zure Aingeru, lotan zauden artean, lagun egin, ta gorde zaituztenak, beste orrenbeste ez dizute merezi? Jainkoak egun guztia zuretzat ematen badizu, bear egin, ta jan dezazun, beraren egun orren asierak, edo primiziak edolarik ez diozkatzu emango?

O gizon, S. Anbrosiok deadar egiten dizu: *O gizon, ez dakizu, Jainkoari egunoro, zure biotzeko, ta zure itzen estreñiak zor diozkatzula*. Ez dezu, bada, jakitueza, edo dan ignoranteena zu izanagatik, zer aitzakia artu, Jainkoari zer egin, edo zer esan ez dakizula. Zure biotzak bere onez garbiro, goizean, bera ez ofenditzeko proposituaz batean, esan nai diona, ori, duda gabe, onena izango da. Baña modu laburtxo bat ori egiteko nai badezu, gorde ezazu, ta etxekoai erakatsi zaiezu urrengoa.

Goizean jaiki, ta bereala, santu edo Imajiñaren baten aurrean belau-niko jarri, ta zure debozioko errezoaz gañera, Jainkoari itz oiek, edo era onetan esaiozu: *Graziak ematen dizkitzut, nere Jauna, zeren egun onetara, zu serbitzeko, ekarri nazun, nik infernuan egotea merezi nuela*. Pater noster, ta Abe Maria bat. *Egun onetako nere pensamentu, itz, ta obra guztiak eskeñtzen, ta kon-sagratzen dizkitzut, Jauna, nere Jesus onaren Odol, ta merituakin, zure gloria andie-nerako*. Pater noster, ta Abe Maria bat. *Ematen dizut itza, propositu firmeare-kin, zure graziaz batean, egun zu ez ofenditzeko, batez ere onelako bizio, edo peka-tu, geiena peligratzen dedan artan*. Pater noster, ta Abe Maria. *Indazu, Jauna, onetako zure grazia: nere Santa, S.N. nere Bitarteko, ta Lagun izan zaitte gaur, itz hau nik kunplitzeko*. Pater noster, ta Abe Maria, eta Kredoa.

Ama Birjiña guziz santari aparte zerbait erreza zaiozu, zure Aingeru guardakoari, egun artan Bitartekotzat artu dezun Santuari: eta onetako banaka, edo biñaka Santuak, asteko egunetan arte bear dituzu. Baldin oni luze baderitzatzu, biotzetik Jaungoikoari esaiozu:

Esker milla, Jainko andia,

Goizero eldu naizalako:

Lagun zadazu aurrerako,

Peka ez dezadan, Maria.

Enkomenda zaitte biotzetik Jesusen Biotz santuari, ta Ama Birjiña-ren Konzepzio garbiari, iru Abe Maria esanaz: egun artako zure obliga-zioak kunplitzeko, ta diran Induljenzia guztiak irabazteko intenzioa egizu.

Baña, gauza bi, guzien gañean, bearrenak dituzu goizean. Lenena, Jainkoa ez ofenditzeko, esan dan propositu andia, egunoro, atzeneko eguna baliz bezala egitea; zeren ori dan arima geiena sendotzen duena, beste debozioak bizierazo, ta egun guztirako deabruari atea itxitzen diona: ta ala San Franzisko Sales gozoak asko enkargatzen dizu.

Bigarrena da, Meza santa enzutea: are geiago au enkargatzen dizu Santuak, ta Mezari deitzen dio. «Espirituzko Ejerzizio guzien Eguzkia, Kristau Relijioaren Zentroa, Debozioaren Biotza, Piedadearen Anima, ta Misterio inefable, edo ezin esan ditekeana. Ta azkenik esanen dizu: Ale-gin guzia egizu, bada, Mezaren Sakrifizio Santua debozioro enzuteko». Ta ez esan, ezin dezula, edo lekurik ez dezula: goiz jaikitzen bazera, izango dezu: [...]rago naiz, zure nagitasun, edo etxeko gauzen zure billa bear geie-gia dala. Baña nola naizu, Jainkoak oriek bedekitzea, guzitu, ta egun guzian ondo gordetzen, Meza baterako ordu erdi batean, beraren kontu, ta kargura utzi nai ezpadiozkatzu? Ara ejemplo ederra.

Gizon andiak kontatzen dute, ofiziale bi ofizio batekoak erri batean bizi zirala. Batak, Gurasoak, emaztea, ta umeak zituen zer mantendu: orregatik egunoro Meza, falta gabe, enzuten zuen, ta bere bearrarekin guzientzat sobra zuen, zeren Jainkoak onik asko egiten zion. Beste gizo-nak, emazte bakarra baizik etzuela, gau, ta egun bearra, bai ta Jai egune-tan ere egiten zuen: Meza gutxi ikusten zuen: ta orregatik ere beti pobre, beti goseak bizi zan.

Ikusten zuen onek, enbidiaz, ta ezin ikusiaz bazan ere, beste lagun ari zeñ ondo zijoakion: ta beñ batean galdetu zion: Nondik orrenbeste irabazi ateratzen dezu, ta ainbeste jenderenzat, nola etxean dezun? Nik nere andrea baizik ez det: bear geiago, zuk baño, egiten det, ta alere, zuk baño askoz gutxiago det, edo ezer ez det. Orduan beste gizon Mezaren debotoak esan zion: urrengo egunean erakutsiko ziola, nondik bere onda-sunak ateratzen zituen. Urrerengoa goizean joan zan au bestearen etxetik, ta berekin Eleizara eraman zuen: Meza enzun, eta adio esan zion, beste gabe. Bigarren egunean beste ainbeste egin zion.

Arako irugarren egunean joan zanean bestea Elizara eramateko, pobre onek esan zion: Adiskidea: nik Eleizara joan nai badet, zure bearrrik ez det: badakit ondo bidea. Nik eskatu nizuna zan, nongo urre obi, edo minatatik ateratzen zinduen zure ondasunak, niri erakusteko. Gizon debotoak eranzun zion: ark bere bear zuena ateratzeko, beste urre obirik etzuela, Meza Santa baño, ta gero bere bearra: ta baldin berak ere egunoro Meza enzuten bazuen, beste ainbeste segurutzen ziola. Besteak, bere billa bear geiegiaz damaturik, konsejua artu zuen, gogotik Meza egunoro



enzutera egin zan, ta Jainkoa bere bendizioak, ta are bear zituen ondasunak ematen asi zan. Konseju au zuk ere ar ezazu, ta egunoro obeto joango zatzu.

ZAZPI-GARREN PAUSOA

OBRA BAKOITZA JAINKOARI BERE GLORIAGATIK ESKEÑTZE

G. Kristabak egunoro ondasun asko nola bilduko ditu?

E. Lurraz urrea egiñaz, ta lurrarekin Zerua irabaziaz.

G. Zeruko beargai, edo alkimia ori nola egingo da?

E. Jan, edo ibilli, edo bearren zu asi baño len, ori guzia Jainkoari, bere gloriagatik eskeñiaz.

G. Ta orrela obra berez ezer merezi ez duten oriekin Zerua irabazten da?

E. Bai, ta askotan Zeru geiago beste errezo, eta orazio askorekin baño.

G. Obra bakoitza Jainkoari ofrezitzean, zer da beñere aztu bear ez dan gauza?

E. Jesu Kristoren merito, ta Odol preziosoarekin batean guziak ofrezitzea.

EMENDIK DATORRENA

Konseju au ez dezazula, nerea bezala artu, ezba Jainkoarena bezala, zeñak guzoi esaten digu: *Naiz jan, naiz edan, edo beste edozeñ gauza dagizute-la, Jainkoaren gloriarako egizute guzia*. Baña, bearbada ondasun andi konseju onetan, ta Jainkoagatik edozeñ gauza egitean, gorderik, ta eskutuan dagoena, orañdik ondo igerri, ta agertu ez dezu. Bokadu bat biotz garbi, edo borondate onaz, zeren Jainkoak ala nai duen, zuk artzea, edo jatea, geiago da Jainkoarekiko, ta geiago balio du, munduko azaña, bitoria, ta ondasun guziak baño: edo, obeto esateko oriekin zer ikusi ezte.

Au aditzeak, kasi farra egiteko gogoa emango dizu: jaten, edo lotan zaudela, Zeru asko irabazi dezakezula. Baña, negar egiteko gogoa niri ematen dit, ikusteak orrelako ezjakiñ, edo ignoranziaz, ta zure nagitasunez, Zeru asko egunoro galtzen dezula. Ta ori guztia irabazteko, zer uste dezu, Jainkoak eskatzen dizula? Besterik eskatzen ez ditu, ez bada zure intenzioa, eta zure bear ori, edo jaten dezuna bera, zure Jaungoikoari bere gloriagatik agintzea, edo ofrezitzea. Zer gutxiago, edo gauza errazagorik eska lezake? Premiaz, edo nai, ta nai ez, gauzak zuk egin bear, ta orregatik Zerua irabazi nai ez: jan, ta bear, biziko bazera, egin bear eta orrekin



Zerua erraz merezi dezakezula, zuk ori merezi nai ez: Zer zorakeria andiagorik izango da, au baño?

Egizu, bada, edolarik nezesidadeaz birtutea, eta egunaren kabuan zure anima, senti gabe, ondasunez beterik arkituko da. Ta zenbat irabazi, ta ondasun eriotzako orduraño irabazi, ta tranze artarako gordeko dezu? Jatera zoaz, edo lo egitera? Bada, orretara baño len, era onetan, edo al dezun moduan Jainkoari esaiozu: *Nere Jaungoikoa, nik eskeitzen dizut janari, edo lo au, zure amorioagatik, ta nere Jesus onak, zuri agradatzeagatik jaten, ta lo egiten zuen amorio guziaz batean.* Bearrera zoaz? Bada lenago Jainkoari esaiozu: *Nere Jauna, nik bear au agintzen dizut, zure amorioagatik, Gure Jesus maiteak, zuri agradatzeagatik egin, ta eraman, edo padezitu zuen guziarekin batean.*

Era onetan zure biotzak edozeñ lan, edo beste gustoko atsegiñ artu baño len, ori bera esan dezake. Eta zure animaren irabazi, ta probetxu andiago nai badezu: erraz izango dezu, zure obra, edo tareak dirauen artean, noizean beñ, edo maiz, ta askotan zuk berriz, ta berriz esaten badezu: *Jauna: au guzia zure amorioagatik: zure gloria, ta atsegin andirako: Jauna, zeren zuk nai dezun.* Edo Eliza Ama Santak erakusten digun bezala. *Jauna, nik egiten dedana, ta nik egin bear dedan guzia, zugandik asi bedi, ta zure bendizioaz akaba bedi, Jesu Kristo zure Semearen izenean. Amen.*

Onelase, ta onen erraz, denbora gutxian, zuk uste dezun baño geiago zure anima aprobetxatuko da: ta beñ baño gutiagotan gertatuko da, debozio txiki añ erraz onekin, atxurlari, nekazari, edo atsotxo bat iruten, atxurrean, edo bere bearrean, fede on, ta biotz garbiaz, egunaren kabuan, Jainkoaren begietan meritu, ta irabazi geiagorekin arkitzea, Erlijosos bata, ta bestea, beren barau, ta azote, edo penitenziakin baño.

Zer eskusa, edo aitzakia izango dezu, bada, Jainkoaren aurrean, debozio au ez arteko, eta onen erraz grazia, ta meritu asko ez irabazteko? Ezin esango dezu, onek denbora kentzen dizula: bada denborarik alerik kendu gabe, denbora guzia ederki aprobetxatzen laguntzen dizu. Onekin kriatura guzien ejerzizio, ta azken fin, dan altuena, zeña dan beren Kriadorea beti alabatzea, zuk kunplitzen dezu S. Agustinek itz oietan dionez: *Jainkoa alabatzen dezu, zure tratua egitean, edo bizi bearrean: alabatzen dezu, jatean, ta edatean: alabatzen dezu oiean atsedetean: alabatzen dezu, lo egitean, baita alabatzen ez dezunean ere.*

Onekin, Libro Sagraduak, eta Santuak ainbeste agintzen, ta enkomendatzen duten, Jankoaren presenzian ibiltzeko ejerzizio añ miragarri, ta añ probetxusoa erraz kunplitzen dezu. Onekin S. Gregorio Nisenok diona segurutzen dezu. *Baldin bear, edo egitekoaren aurretik orazioa badijoa, pekatuak zure animan nondik sartu arkituko ez du.*

Onekin mereziko dezu zure obra guziak ondo egitea, ta akabatzea, bada onela diranak Jainkoagandik asitzen dira. Ala ikusiko dezu ejemplu onetan.

Bost Santugille Erroman bizi ziran, ta bostak beargille era eder ta fama berdiñekoak; baña etziran berdin doatsuak beren arimetan, ta ezpatu onean, edo eskuetan. Oietatik lau Kristabak ziran, ta egiten zituzten Estatua guziak, txit ederrak, eta merke irteten zitzaizten. Bostgarren Sinplizio zeritzana, zan Jentilla, ta txit doakabe, edo desgraziatua bere eskuetan: bearra egitean erremienta asko ausitzen zitzaizkan, ta ala bere obrak txit karesti irteten zitzaizkan. Sinpliziotik ikusten zuen, beste lau Lagun ai onelakorik gertatzen etzitzaiela, ta erramienta gaistoaz ere guzia ondo egiten zutela.

Beñ batean Sinforiano, guzien buruari galdetu zion, zertan ote zegoen ori? Sinforianok eranzun zion: Jakizu, Sinplizio, gu Kristabak bezala iñoiz ere bearren asitzen ez gerala, Jainkoari lenago biotza altxatu, gure obra ofrezitu, ta aren Izen santuan sokorrua eskatu gabe: ta ala aren Majestadeak, dakutsun bezala, laguntzen digu.

Onekin, ta beste arrazoiakin, Jainkoak Sinplizioten biotza, argitu, ta gure Federa biurtu, edo Kristau egin zan: ta lagunak bezala, bere obrak asitzean, Jainkoari eskentzen, ta bere grazia askatzen zion: ta asiera orren onarekin, guzia geroz txit ederki egiten zuen. Ta ori baño geiago dana, beren bear Santu, ta garbi onekin, beste gauza andiagorik oiez ez dakigula, bost Lagunok merezi, ta irabazi izan zuten Martiriozko Koroa, ta Zeruko Gloria: ta ala Eleizak Martiritzat beneratzen ditu. Emendik zuk lezio bat atera bear dezu, ta jakin ondo, zure ditxa, ta zorion guzia dagoela, ez gauza andiak, eta asko egitean, ez bada zure estadu, bizimodu, edo ofizio, egunoroko gauzatxo, ta bear oriek ondo, fede bizi, biotz garbi, intenzio, ta borondate onaz, Jainkoagatik egitean.



ZORTZI-GARREN PAUSOA

ESAMEN KONZIENZIAKOA, TA ERROSARIO SANTUA

- G. Animaren gauoroko atsedena zerk izan bear du?
 E. Gorputzari bezala bere afaria emateak.
 G. Zer afari izan diteke añ indar andikoa, nola laburra?
 E. Egun artako kulpak esaminatu, ta damua idukitzea.
 G. Esamen onek deskansu orren andia animari emango dio?
 E. Bai, ta deabruak animatik, oietik, ta etxetik botatzen ditu.
 G. Esamen onek zergatik orrela iges eragiten die?
 E. Zeren egunoro garbitzen dan bazterrean armiarmak egon nai ezuten.
 G. Zer beste ejerziziorekin gau guziak oroatu bear dira?
 E. Ama Birjiñaren Koroa, edo Errosarioa, etxeko guziakin, ta belau-niko afaldu baño len.

ONETATIK DATORRENA

Gobierno oneko personarik ezta, [...] eztuenik, edo egunoro kontuak [...], zer artu, zer eman, edo zer egun artan gastatu duen. Ezta, bada, milagro izango, gobierno ori bera zuk Jainkoarekin, ta zure animarekin gordetzea. Gauoro kontuak artzen badiozkatzu, zer alibio andiagorik, ori guzia konfesatzen zeran egunerako, egiñik arkitzea baño? Ya dakust, pekatu mortalean lo egiteak, goizean illik arkitzeak, ta, asko bezala kondenaturik, izutzen ez bazaitu, erremedio onek eztu zurekin, itz-egiten. Infernuak bakarrik zurekin itz-egiten du: ta orren bildur ez izate ori bera da infernuaren asiera.

Baña bildur santu ori, Santuak berak ere, konzienzian arrik etzutela, zeukatena, zuk utzi, edo galdu ez badezu, gau onetan, zer gerta ditekean, ez dakizu. Orregatik, bada, gauoro zure kulpak guzien damuzko konzienziaren esamen, ta kontuak ondo egitea bezalako erremediorik idoroko eztezu. Onetan izango dezu, oira joatean konsuelorik andiena, lo egiteko sosegurik andiena, jaikitzeo pakerik gozoena, deabruen kontra seguridade guziena, ta zure animaren probetxu jakiña.

Santu, ta Maisurik ozta da erremedio au asko akonsejatzen ezduenik, inportanzia andikoa bezala. Esamen au arrazoi naturalari añ ondo dago-kiona da, non Jentil askok, ta oien Maisurik andienak usatu, ta akonseja-

tu oi zuten, konzienziaren kontu, ta sosegurako. Senekak dio: *Zer gauza ederragorik, egunaz egin dan guzia gauaz ondo esaminatzea baño? Zer loak, bere kontuak egin ezkeru, bat artzen du? Zeñ ariña, alai, ta firma? Ni libertade onez baliatzen naiz, ta nere burua egunoro akusatzen, ta juzgatzen det.*

Begira, bada, Jentil oiek, juizioko egunean, zure lotsagarri izan ez ditean, orañ ez badira ere. Askok biarretan, ta iru bider egunean esamen au egiten zuten. S. Buenaventurak dio, zazpi bider egin dedila. S. Doroteok, eta Sta. Teresak, bere Abisoetan, obra, ta ordu bakoitzean egin dedila. Baña ni kontentu naiz orañ, gauoro zuk ori egiteaz, esango dizudan bezala. Esamen au iru puntutara datorke.

Lenena da, Jainkoari eskerrak ematea, egun artan egin dizkitzun benefizio guziak gatik, ta zeren ordu artaraño gorde zaituen: eta eska zaiozu bere argia, ta grazia, zure kulpak ezagutu, ta emendatzeko. Bigarrena da, esaminatzea, zertan Jainko ofenditu dezun egun artan, pensamentuz, itzez, ta obraz, eta berezkiro bizio, edo pekatu agintarian, zeñaren gañean propositu andia goizoro egiten dezun. Obra onetan ere, zertan saltatu dezun, esaminatu bear dezu. Irugarrena da, gauza onik egin badezu, Jainkoari eskerrak ematea: eta egin dituzun kulpak guzien barkazioa eskatzea, egiatzko propositu, ta kontriziozko aktu andi batekin. Gero Ama Birjiñari, Aingeru Santuari, ta goizean artu zenduen egun artako Bitartekoari, zerbait erreza zaiezu, ta zure anima enkomenda zaiezu.

Au guzia, ordu laurden batean egin diteke; baño begira ondo: denborarik geiena biotzeko damu onetan, ta aurrerako emienda Jaunari eskatzen gastatu bear da. Eta kontu emen. Baldin egunean kunplitu ez badezu bizio nagusiaren kontra zere buruari goizean ifiñi ziñon lege, edo pena, orañ da denbora, kulpak bakoitzagatik, Laugarren Pausoan esan zan bezala, egiteko. Kontentatzea zu kulpak esaminatu, edo idorotzeaz, ta ez zenzatzea, edo erremediatzea, anbat da, nola pulsua artu, ta erremediorik batere ez egitea; edo zure arpegiko mantxak ikusi, ta garbitzeko gogorik ez artzea.

Orrez gañera S. Krisostomok, ta besteak diote, esaminatu, ta ikusi bear dezula, aurrera, edo atzera zabiltzan, egun bata bestearekin, aste bata bestearekin begiratuaz. Ta Esamen onen ejerzizio au onen txikia dala, Santua esatera atrebizten da: *Illabete osoan au egiten badegu, birtutearen jabe, edo oitura egin batean arkituko gerala.*

Ama Birjiñaren Zeruko debozio eder Errosario Santuarena, esana dago, Kristau guziak artua dutela. Kanpora bearrera, edo biajean, denborarik onena da, bidea asitzean, debozioz errezatzea. Baña askok batean Eleizan, edo etxean, zuk buruak bezala besteakin belau-niko, ta Errosa-



rioko Misterio bakoitzean meditatuz, erretratzeak ainbeste bentaja darama, non Sto. Tomasek S. Ambrosiorekin dion: *Txiki asko andi egiten dirala, elkarrekin batean diranean: ta askoren errekuak, Jainkoagandik, al dateken guzia, ez alkanzatzea, ezin datekeala.*

Ara ejemplo ederra. Milla, ta bosteun, ta berrogei, ta emerezigarren urtean, Boloniako-errian, Sto. Domingoren Ordeneko Relijiosa batzuek, oi zuten bezala, elkarrekin Errosarioa erretratzen zeuden. Aietatik batek orduan ikusi zuen, erretratzen zuten Abe Maria bakoitzean, Relijiosen aetatik beste ainbeste errosa guziz eder, eta usai gozo-dunak irteten ziran, eta Zeruko Erregiña bera aiek biltzen ari zala. Onekin aditzera eman zuen, zenbat atsegin Ama Birjiñak, ala Errosario santuaz, nola guziak batean erretratzeaz, artzen duen. Emendik zuk ikasi, ta atera bear dezu, zenbat merezi duen debozioz Abe Maria bakoitza erretratzeak, ta Ama Birjiñari Zeruko koroa oriekin egiteak.

BEDERATZI-GARREN PAUSOA

LEKZIO ESPIRITUALA

- G. Zer beste janari animaren frutu andikoa izango da?
 E. Liburu on deboto bat egunoro zuk irakurtzea, edo irakurri-erazotzea.
 G. Onelako Liburu batek etxekoentzat serbi dezake?
 E. Bai, ta Predikadore santu, ta Maisu betikoa izango da.
 G. Ta beste ipuien, ta komedietako Libruak zer dira?
 E. Animen izurri, ta pozoi gaisto dira oriek.
 G. Zerura bear dutenen, edo arako predestinatu, edo doatsuen lenbiziko señailea zeñ da?
 E. Jainkoaren Dotrina, edo itza frutuaz enzutea, edo irakurtzea.
 G. Ta enzun nai ez dutenak, zer señailea dute?
 E. Galdu-bearren, edo kondenatuen señailea, Jesu Kristok berak dion bezala.
 G. Dotrina buruz artzea, edo memoriaz asko da?
 E. Ez Aita: bere modura, nolere bait aditu bear du.
 G. Ta edolarik substantzia, edo bearrena aditzen ez dutenak, pekatu mortala egiten dute orretan?
 E. Baldin galdetzen ez badute, ta ez enzutera etortzen, edo jakiteko biderik artzen ez badute, bai Aita.
 G. Dotrina obeto jakitera nor daude obligatuak?
 E. Gurasoak, Eleizako Buruak, Nagusiak, ta besteai erakasteko obligazioa dutenak.
 G. Baldin berak, edo bestez etxekoai erakasteko alegiña egiten ez badute, egongo dira pekatu grabean?
 E. Bai, Aita, ta txitezko pekatu grabean.
 G. Onelako Guraso, ta Nagusiakgatik Jainkoak zer dio?
 E. Fedea ukatu dutela, ta Jentilak baño gaistoago dirala.
 G. Gaitz orren anditik libratzeko, zer erremedio ar diteke?
 E. Etxekoakin Dotrinara etortzea, eta gero etxean erreparatzea.

ONETATIK DATORRENA

Orañ zu bizi zeran errira S. Ignazio Loiolako bat, S. Franzisko Sales, edo Maisu andi Luis de Granada bat, etorriko balira: zer poza? Nola galdetuko zenduke, zer dioten? Zer erakusten zuten? Ta aiekin puska bat itz egitea, edo aien konseju onak aditzea, ditxa anditzat artuko zenduke. San



Krisostomok esaten dizu, bada: edozeñ Santuren Libruak idiki itzatzu, ta orietan obeto, bentaja andiak, Santuak aditzeko ditxa ori izango dezu. Zeren itzketa, edo konbersazio batean, orduan berak dakarrena baizen, ezin esango lizukee; baña beren Libruetan, Jainkoaren argi, ta orazio askorekin ikasi zuten onena esaten dizute.

Jaungoikoak dio: *Ondasunik ezta, ta ez gauzarik adiskide on fiel batekin zer ikusi duenik*. Ta esan diteke, adiskide, Libru on batekin zer ikusi duenik ez dala. Zeren adiskide, ta konsejero bat da, noranai, zurekin, zu engañatu gabe, zuzaz kansatu gabe, ekarri dezakezuna: nai degunean baik, itz egiten, edo laguntzen ez diguna: beti egia libertade suabe batekin, estalki, gezur, edo interes gabe garbiro, pasio, ta enpeño gabe esaten diguna. Zer deskuido itsuagorik, bada, gurea baño: onen erraz Jainkoak seinalatzen digun ondasunik andiena, Libru Santu batean iduki dezakegula, guk ez gozatu naia, ta askotan idiki ere nai ez!

Gogorik artzen, ta galdetzen badezu: zer Libru irakurri ditzakezun? Konfesore jakinsu espiritual batek eranzungo dizu. Baña geiena zurekin fratikeran ekartzeko, serbituko dizute *S. Ignazio-ren Ejerzizioak: Kristabaren Pentsamentua: Maximak: Kempis: Lutxa*: ta orrelakoak. Etxerako, zeren Libru andiagoak dira: *Pekatarien Gia: ta Maisu Luis Granada B.aren beste Obrak: Denboral, ta eternoaren Diferenzia: Sales-en Biziera debota: Palma Jesus-en Pasioa: Alonso Rodriguez-en Libruak*. Zer neke izango da, egunoro ordu erdi artu, ta Zeruko gizon oiekin jarduten, edo konbersazioan zu egotea?

Erremedio onetan, Jainkoaren itza enzutearen gañean, Santuak diozkaten irabazi, ta sari andi guziak, enzerraten dira, eta au predestinatuen señaile izatea, Jankoaren itza enzuten zerurako señailea baldin bada, Libru oietan irakurtzea, gutxiago ezta: garbia, ta klaroago, sermoi askotan enzuten dan baño dakarte Libru santuak. Baña ala irakurtea, nola enzutea, Jainkoaren itza bezala, bear da, begirunez, debozioz, ta frutuaz. Familia baldiñ badezu, ta zuk ez badakizu, edo eziñ irakurri badezu, dakien bati eragiozu: eta besteak beren bearrean ari diran artean, isillik, eta ondo adi dezatela.

Ta onetan beste ondasun andi bat Jainkoak agertzen dizu, ta zure zer andi bat pagatzeko bidea. Dotrina erakasteaz gañera, gauza ziertoa da, zure familiak Jainkoaren bildur santuan azitzeko, ta bide, edo medioren batzuek orretarako artzeko, obligazio grabea dezula: ta au bearbada txit azturik daukazu. Obligazio au kunplitzeko, bada, zer bide errazagorik, ta poderosoagorik, Libru oietatik batean zure familiari Predikadore santu, jakinsu, ta zeloso bat ematea baño? Onek zuk naizunean, predikatu, ta zeruko bidea, ta bizia erakatsiko dizu, edolakorik Jai egunetan.

Familiakoen gusto geiagorekin au nai badezu; esan diran Libruakin, aldizka irakurri dezatela Pasioko Historiaren bat, edo Ejenploena, edo Santuen Bizitzak, Ribadeneiraren Flos Sanctorum deritzenak. Baña kendu, ta etxetik aienatu bear dituzu, pozoia bezala, munduko beste Libru galgarriak, ta Jainkoa deabruarekin ez iduki. Libru santu oien ejerzizio, ta uso au baño errazago, obeago, ta arrazoiari egokiagorik arkituko dezun ez dakit: eta zurekin, zure familiarenzat gusto, ta probetxu andiagorik ere ezta erraz. Bada Libru oiek erakusten dutenaz, ya diotenaz, ya esanzat bezala ematen dutenaz, senti gabe, dotrina erakasten dute, entendimentua argitzen, ta alaitzen dute; ez jakinde, edo ignoranziak kentzen dituzte; gure pasioak lotutzen dituzte; biotzai beren anz, edo kolore ona ematen die: ta animetan añ frutu andia ateratzen dute non G.A.S. Ignaziok, ta S. Joan de Dios-ek bide onetatik asko anima irabazi zituzten, erriz erri Libruak eraman, ta merkeago salduaz. S. Isidorok dio: «gure probetxu guzia lezio, ta meditaziotik datorkigula».

Jakiña da, S. Agustin, S. Fuljenzio, S. Ignazio Loiolakoak, ta beste askok beren konbersio, ta santidadea Libru onai zor ziela. Alderago degu ejenploa gure egunetan Jakobo bigarreanean, Ingalaterra, Eskozia, ta Irlandako Erregean: Errege Kristau guzien ispillu fedeko firmetasunaz izan zan, eta Libru santuai guzia zor zien. Errege Katoliko, ta deboto onek egunoro irakurtzen zuen esan diran Libruetan, ta are geiago Denboral, ta eternoaren arteko Diferenzian: eta au añ altu, ta gogotik josi zitzaion, non askotan esan oi zuen, Orange-ko Prinzipeari baño, iñori geiago zor etziola; bada iru Erreino kendu zizkanak-gatik, guziak baño geiago balio zuen betiko zerua, ta Erreinoa irabazteko bidean ifiñi zuen: ta ala Jainkoari egunoro txit enkomendatzuen. Beñ batean, gizon andi berari Franzian jarraitzen zion batek kontatu zion bera pena andi bat, eta loa kentzen ziola. Erregek esan zion: nik emango dizut erremedio bat guziz eragille segurua. Ta Diferenziaren Librua erakarri, ta esan zion: Ar ezazu, Milord, eta irakurri zazu Libru au, ta nere kontu, edo prometen dizut, lo egingo dezula. Onekin aditzera eman zion, ezerk ere animako sosegu, ta pake andi-ago emango ez digula, munduko gauzak utzitzeak baño; eta au Libru santuetan arkitzen, ta ikasten dala.



AMAR-GARREN PAUSOA

ORAZIO MENTAL, EDO KONSIDERAZIOA

Orazio mentalaren izenaz aditzen da emen edozeñ pensamentu, gogo, edo deseo santu Jainkoaganon z jaso, edo eramaten gaituena, ta animaren salbaziorako Kristabari gogora datorkiona: eta gauza orietan pensatzea, oriek ondo pisatzea, gogoan artu, ta beñ, ta berriz konsideratzea, da Orazio mentala, edo Meditazioa. Ta nola aoz egiten danari, Orazio bokala, ala biotzaz egiten danari, Orazio mentala deritza.

G. Zer gauzak anima egun guztian ondo goberna dezake?

E. Orazio mental, edo Meditazio puska batek.

G. Abereak baño geiago ez dakitenak, nola orazio ori ongi egin dezakete?

E. Ori bera Jainkoari, beraren aurrean jarri, ta esanaz: *Urlia ementxe dago, Jaun: abere au emen dago.*

G. Ta beste milla gauzatara pensamentua joaten baldin bazaie?

E. Beste ainbeste bider biurtu beregana, ta oraziora.

G. Ta baldin ezer gogoratzen ez bazaie, edo ezerk mugitzen ez baditu?

E. Librutxo-ren bat pausaka irakurri, ta biotza mugitzean, geratu orretan.

G. Ta ez irakurten, ez erregutzen, ta ez pensatzen, zunttoi, edo tronko batek baño geiago ez badakite?

E. Orregatik beragatik firmeago egon, ta esan: *Jauna, nik ezer ez dakit, ta ezin det; baña emen zure aurrean, zure begira egongo naiz, tronko bat bezala.*

G. Ta orazio orren polikgabea Jainkoak naiko du?

E. Bai: ta Santuen airean ibiltze, edo arroboak baño ere geiago.

G. Baña askok, orazio egiteko, lekurik izango ez dute?

E. Bai: edolarik Meza enzutean, edo Errosarioko denboran izango dute.

EMENDIK ATERA BEAR DANA

Orazio mental, edo biotzeko onen izenak izutu, ta Librua ez dezazula arren utzi, uste dezulako, ori Santuen gauza, ta zurekin itz egiten ez duena, dalako. Ebanjelioak, badakizu, Kristau guziakin itz egiten duela. Non naiko munduaren ezjakinai, Sta. Teresa bati baño, kreditu geiago ez eman. Au orazioaren Maestra andia izan zan: ta Meditazioagatik dio: *Bir-*

tute guziak alkanzatzeko asiera dala, ta ori asitzean Kristau guziari, bizitza dijakigula: ta iñork, dan galduena bada ere, Jainkoak orren gauza, ta on andira, deitzen badio, utzi bear ez lukeala. Ta geroago Stak dio: Izenez baño geiagoko Kristaba baldin bada, egunoro batek bere pekatuak mediatu, edo konsideratu bear litukeala.

Eta zuk, zeran bezeñ gaistoa izanagatik, orazio au, nola ez dakizula, askotan egin izan, ta egiten dezu. Esazu: Sto. Kristo bat ikustean, pensatu izan ezdezu: Jaun onek, nere kulpak-gatik padezitu zuen. Edo ustegabeko, supituko eriotza bat, aditzean: A! ni ere eriotzak artu ninzakean! Eta pensamentu oriekin, ta nola bizi zeran ikusi, ta zure biotza bildurtu, ta lotsatu ezta? Bada zure buru, edo adimentuak pensatze ori, ta zure borondatea desengañoren batekin mobitze ori, ta Jainkoaganoz biurtze ori da, ta ez geiago orañ esaten degun orazio mentala. Sta. Teresak diona: *Ez dute zer pensatu, beste algarabiarik dala: orazioaren izenaz ez dezute zer izutu.*

Eztago besterik, ezpada zure entendimentuan igarotze, ta zure borondatea mujitze ori, orañdaño lasterka, ta argatik fruturik gabe izan bada, emendik aurrera soseguz izan dedilla: eta orrela egin, ta aña probetxu andikoa izango da, non beste bidetatik seguruago izango ez dezu zure grazia, ta salbazioa. Ala Sta. Teresak berak aseguratzen dizu deabruaren kontra dionean: *Badaki traidore, gaistoena, orazioan firme irauten duen anima, berekiko galdua duela.*

Baldin onakin, edo gaistoakin tratatzean ainbeste on, edo gaitz guretzat badijoakigu: zer suerte on, edo seguru anima batek izan dezake, bategatik mundu onetan diran gaitz andien artean; eta bestetik Jaungoiko, on guzien asierarekin ezta itz egiten, edo tratatzen duela? Nola Jauna biotzaz ama dezake, ta ez ezagutu ere, baldin ozta tratatzen badu, ezpada aoz bakarrik. Tratatzan ez dezun bat ikusi arren, ta askotan izentatu arren, egiaz esan oi dezu: arpegiz, edo izenez ezpada, ezagutzen ez dezula. Jainkoarekiko askoren ezaguera onela oi da: Jainkoa ez dute ezagutzen, ta ez tratatzen, itzez, ta bozaz baizen, bultoz, izenez: tratu illun, ta leorra, ez aldetikakoa, ta obra onen emallea.

Itzezko Orazio, edo bokala, biotzezko, edo mentalak laguntzen ez diola, anima gabeko gorputza da. Orazio aren premia esatean, geiena mentalagatik aditzen da. Au Santuak aditzera ematen dute, Orazioagatik diotenean: *dala animaren ogja, munduaren bizigarria, Kristabaren osasuna, Justiziarren neurria, Zeruko atea, on guzien iturria, Kristau bizitzaren zimendu, ta sustaia, birtute guzien gaia, edo kausa, eta animaren zañak, edo gozañadeak.* Biotzeko Orazioa au guzia da.



Ejercicio andi onen lana añ erraza da, non guzienzat, esan diteke, ori egiteko denbora, lekua, ta modua dala. Deabrua ezeren bildurrago ezta. Orazioaren baño: ala ori eragozteko aurrean milla arazo, ta zure egiteko andiak ifiñiko dizkitzu; baña orregatik beragatik Jainkoarekin oriek tratatu bear dituzu. Andiagoak ziran Dabid, Karlos bostgarren, ta Jakobo bigarren baten egitekoak: baña orregatik Errege andi oiek egunoro beren orazioa egiten zuten.

Bazter bat zure etxean ezpada, zure biotzean egin dezakezu, edo kanpoan, edo Eleizan, zeña lekuri onena da, Meza enzun baño len, edo ori ezkerro. Ordu bete egunero ezin badezu, ordu erdi egizu, goizago puska bat jaikiaz, edo Meza enzute artean, edo Aldareak, Errosario, edo Kalbarioa erreztzean, edo ordu erdi Ostiral, edo Jai egunetan. Orazio au nola egin bear dezun esateko, zurekin akomodatu, edo bat egingo naiz, zu eraren batera akomoda zaitean, ta batetik bestera igaro zaitean.

Lendabizikoa. Fede bizi batekin Jainkoaren aurrean jarri zaite: lagun dizazula, eska zaiozu, ta zure gogoa argi dezala: eta au da inspirazioa, edo Jainkoak bere graziaz inspiratzea. Gero gogora desengañoren bat ekartzu, edo Kristoren Pasioko Pausoren bat, edo azoteena, edo aranzazko koruarena: eta au lenago prestaturik memorian eraman bear dezu. Orduan zere buruari esaziozu: *Onela padezitzen duen, Jaun au nor da? Da Jaungoiko, zeruaren, ta lurraren Egillea, ta Jabea. Norgatik padezitzen du? Nigatik, lurreko ar billau, ainbeste ofenditzen dedanagatik: O! Ta zeñ gaitzki pagatzen diodan! Onela damuz lotsa zaite, ta arritu, aren Ontasunaz, ta zure gaitotasunaz.* Edo era onetan zure biotzari utzi zaiozu, akomodatzan dan moduan aurrera dijoala.

Ta orra zer dan, edo zertan dagoen meditatze biderik jakiñena: eta sinisten det, irakurtzen ez dakiten txit askok beren frutu andiarekin au gordetzen dutela. Baña, irakurten badakizu, lenagotik prestaturik konsiderazioren batzuek eraman bear dituzu: eta oiek ar ditezke S. Ignazioren Ejercicio, S. Pedro Alcantara, Villacastin, Figuera, edo Granadaren Libruetatik.

Bigarrena: Libru oietatik bat eramazu zurekin, eta olloak edatean egiten duena egizu: bere mokoan ur tanta bat artu, ta bereala burua zeruronz jasotzen du: berriz ur piska bat artu, ta burua altxatu, ta edaten du. Libruan zuk ori egizu: puska bat irakurri, ta arako fuerza egin, ta biotza mobitzean, Jainkoaganon zure espiritua altxa, ta ondo ausmartu, edo rumiatu irakurri dezuna. Beste puska bat irakurri, ta jaso gora biotza, ta Jainkoaganon zure espiritua altxatu.

Irugarren orazio mental egiteko modu erraza da, Jainkoaren aurrean zu jarritzea, Eleizako atean pobreak egon oi diran bezala: an deadar, ta

negar egizu, zure premiak Jainkoari erakutsiaz, ta erremedioa, ta bearren dezuna berari eskatuaz: eta Orazio guziz ona izango da.

Laugarrena da: nola Eleizetako parete, edo oltzetan belauniko bulto, edo estatuak oi dauden, ala zu Jainkoaren aurrean jarri zaite, ta esaziozu: *Ona, Jauna, abere bat, ona non dagoen estatua au oraziorik egiten ez dakiena.* Onela orazio txit ona egingo dezu. Beste orazio egiteko bide are errazagoa, emango dizu urrengo Pausoak.

Emen abiso, edo enkargu txit andi bi ar itzatzu. Bata da, zure orazioa beti zure bizia obetzer, zuzen dezazula: orrako zuk dakizun pasio agintari, ta gaitzeronzko griña gaisto nagusi, zure animan geiena agintzen duen ori sujetatu, ta mortifikatzera, ta zure estaduko obligazioak kunplizera. Au falta bada, engañoa da orazio guzia.

Bigarren enkargua da: zuk usteagatik, orazioan ezer egiten ez dezula, ez beñere orazioa orregatik utzi, ta ez laburtu. Jainkoagan pensatzen zu jarri, ta etxeke, edo munduko gauzetara pensamentua joaten bazatzu, ta ori milla bider, eta milla bider zure alegiña ori Jainkoagana biurtzeko egiten badezu; Orazio andi bat egiten dezu. Zuk puska, edo arri bat bezala arkitzen bazera: Bultoak ere arrizkoak dira, ta an daude; Laugarren esan dan orazio moduan firme zaude: *Ona, Jauna, estatua au emen dago: abere au emen dago.*

Deabruak nai duena da, zuk orazioa utzitzea: bereaz irteten ezpada, ta orazioan firme bazaude, triunfo andi bat alkanatzan dezu: eta zuk ez ezagutu arren, animaren añ probetxu andia, nola Sta. Teresak ondo zekienak bezala dion: *Orazioan, ezer atera gabe egotea, ezta denbora galduta, ezpada irabazi andikoa, zeren interes gabe bearra egiten dan.*

Ta ori ejemplo onetan ikusiko dezu: Aita S. Ignazio Loiolakoa bere Lagunakin bidean zijoala, oñez, ta beren pardeltxoak bizkarrean zituztela, gizon on batek ikusi zituen: ta aien errukiz, ainbeste erregutu zien, arren pardelak ari emateko, non azkenik, ark eramateko, eman ziozkaten. Ostatueta allegatzean, Padre bakoitzak bere bazterra oraziorako billatzen zuen. Gizon onek, aiek belauniko ikusi, ta bere bazterrean ori bera egiten zuen.

Beñ batean bidean zijoazela, galdetu zioten: Gizon, zure bazterrean zer egiten dezu zuk? Esan zuen. Nik egiten dedana da, esan: Jauna: gizon oiek santuak dira, ta ni oien astotxo. Oiek egiten dutena, nik ere egin nai nuke. Ta ause esaten nagokio Jainkoari. Orazio onekin gizon au txit Jainkoaren orazio altukoa, ta espirituala izatera allegatu zan. Orra zeñ gauza erraza dan orazio au.

Bostgarren orazio modua urrengo Pausoan.



AMAIKA-GARREN PAUSOA

ORAZIO JAKULATORIAK

Orazio Jakulatoriak dira biotzeko gogo, edo afekto argi, bero, bizi, labur batzuek, saieten gisa animak Jaungoikoaganon z bialtzen, edo tiratzen dituenak.

G. Orazio moduren bat geratzen bada, zeñetatik eziñ iñor eskusa ditekera?

E. Bai, bada, Orazio Jakulatoriak deriztena.

G. Orazio oriek zer dirateke?

E. Dira suspirio batzuek bezala, Jainkoaganon zko gogo bizi labur batzuek.

G. Noiz, edo nola suspirio oriek emateaz akordatuko gera?

E. Erlojuak ordua ematean: bada gure bizirako ordu ori ya gutxiago degu.

G. Ezer gogoratzen ezpazagu, Jainkoari zer esango diogu?

E. Oraziorik laburren, santuen, ta gozoena, zeña den ABE MARIA.

G. Zer afekto, orrez gañera, egitea ondo izango da?

E. Bere biotz garbiak bakoitzari eragiten diozkanak.

M. Birtute, ta fin andietarako diran bat, edo beste orrelako afekto erakutsi zaguzu.

E.

Alaba ezazu Maria

Jainkoa beti:

Jaun ori ofenditzen,

ez arren ni utzi.

G. Ejerzizio au Jainkoaren gloriako, ta frutu andikoa da?

E. Bai, ta beronek kasi zeruko glorian bizierazoko gaitu.

EMENDIK ATERA BEAR DANA

Nator ya zure begien aurrean ifintzera Orazio modu bat errazena: onetan lekuri eztu, ez nekearen, ta ez egitekoen aitzakiak. Orazio au, ondo esateko, da zeruko Doatsuen bizia lurrean egitea: da, edozeñ bear egiten gaudela, gure espiritu, edo anima Jainkoaganon z, egaka bezala bialtzea, ta argana bolatzea Orazio jakulatoriakin. Oiek dardo, edo afekto amoroso batzuek dira, gure biotzak Jainkoaganon z tiratzen dituenak, gisa onetan:

*O nere Jaungoikoa! Nor izan zitekean, zu iñoiz ere ofenditu gabe! O! Zu ofenditu gabe, nor legokean! O! Ta beti gauza guzien gañean amatzen bazindut! O! Noiz, Jauna, izango da eguna, zeñean zu betiko amatu, ta gozatuko zaitudan! Onelako afekto labur, ta bizi, bakoitzari bere biotzak ematen, ta eragiten diozkanak, dira onenak. Gure Jaungoiko biotzekoak bere borondate au, ta gu beragana biurtzeko usuera añ erakutsia, ta ainbesteraño dauka, non dirudien puntu onetan epe, edo treguarik eman nai ez digula: bada berak esaten digu: *Beti orazio egitea konbeni da. Bear da beti erregutu, ta ez iñoiz aspertu. Beñere utzi gabe, orazioa egizute.* Eta Jainkoaren Konseju, gure eseraan, añ antsia andiko au nolerebait kunplitzen degu, orduoro, aspirazio, ta afekto oien usuera, edo frekuenziaz, S. Juan Krisostomok, ta beste Santuak diotenez.*

Jaungoikoa amatzea beti, ta beti alabatzea, beñere falta gabe, zeruko gauza da berez, eta ango Santu, ta Aingeru guzien Ejerziziorik altuena ori da. Zer ditxa andiagorik, bada, guretzat, zeruko glorian Santuak duten Ejerziziorik onena, al degun guziena, ta beti bezala, aspirazio oiekin imitatzea, ta emen lurren Zerutarren gisa gure bizia asitzea baño? Añ goiko, edo exzelentea, ta añ inportanzia andikoa da Ejerzizio au, non San Basiliok, San Agustinek, ta beste Santuak, asko enkargatzen duten: ta S. Krisostomok onen gañean beñ, ta berriz dio: *Ezin dateke, ezin dateke, edo ozta dateke, beti, bear bezala, Jainkoari erregutzen dion Kristabak, pekatu rik beñere egitea.*

S. Franzisko Sales gozoak Ejerzizio onen, ta orrez batean, Jainkoaren presenziaren gañean dio: *Debozioaren obra andi onetan dagoela, edo estribatzen duela: beste Orazio guzien falta, edo utsa Ejerzizio onek bete dezake: baña onen falta bete dezakean ordaiarik eztu: ta orregatik zure biotz guztiaz, ta beñere utzi gabe, ar dezazula agintzen, edo enkargatzen dizut.* Ta au da Santuaren konseju andia.

Ta onela zure biotzak artu, ta erraz egingo luke au, beste egiteko guzien artean ere, zure biotzeko labea ondo irazakia, ta prest balego; baña labe berotu gabetik ezin lamak, edo garrak irten ditezke: ta munduko gauzetan sartu, ta sorturik dagoenak, Jainkoaz akordatzeko, abiso, ta mandataria k bear ditu. Orregatik S. Buenaventurak, Kempisek, S. Pedro Alcantarak, ta S. Franzisko Sales-ek, ondo zekitenak bezala, esaten dizute, Erlojuak ematean, aspirazio, ta deboziozko afekto oiek, falta gabe artu, ta biziro egin ditzatzula: eta orrez gañera Jainkoari aoz ere, edo bokalmentezerbait esan diozazula. Lotan dagoena, itz egiten ez badu, ondo esnatzen ezta: ta biotzeko afekto bakarrak sustrairik ez dute, edo kanporon z isuri, ta dabilitzan animetan gutxi irauten dute.

Nai badezu, bada frutu paregabe, seguru betikoarekin Ejerzizio guziz inportatzen zatzun au artu, Santu oien, ta berezkiro Kempis B.aren



konsejua ar ezazu, ta Erlojuak orduak ematean, Ama Birjiñari ABE MARIA errezatu, ta esaiozu.

Alaba ezazu Maria beti
Jainkoa gure ordean.
Ofendi ez daigun artu gaitzatu
betiko zure mendean.

Edo debozios beste berso au esaiozu.

Alabatzen det biotz guztitik
Jesus-en Biotz argia:
Ama dezadan ordu onetan,
Lagun zadazu MARIA.

Ta goizean egin zenduen propositu ori bera, egun artan Jainkoa ez ofenditzeko, obrak ofrezitzean eman ziñion itz andi ura, urrezko iltze batekin bezala obeto jositzeko, aoz, edo biotzez Jaunari orduoro esaiozu: Jauna, esana esan, ta esanik: nere itza kunplitu nai det nik.

Badakutsu, niri esatea, kasi geiago kostazen zadala, zuri au egitea baño. Badakizu, Jainkoari etzaiola igarotzen instante bakar batere guzaz oroitu, ta gure onaz begiratu gabekorik: eta guk ordutik ordura edolarik gure Jaunaz ez degu oroitu bear? Errespetoko persona batekin bakarrik zaudela, ordu erdi batean ere, baño itzik egin gabe, lotsazen bazera: nongo arpegiaz zure Jainkoarekin zaude bakarrik, baño itzik egin gabe, ordu batean, eta bestean: aoz, edo biotzez zerbait esan gabe? Abe Maria bat esatea, orrenbeste kosta zatzu?

Erregu onetan Jainkoaren Amari eskatzen dioguna, edo gauza bakarra da: Orain, ta gure eriotzako orduan gugatik erregu dezala. Zer gauza andi, bada, Jainkoak eskatzen dizu, beraren anparo orañ, ta betiko, ta ordu estu artako truke, edo ordean, Abe Maria bakar bat, orduoro eskatzen badizu? Beste askok, Erlojuak ordua ematen dueneko, beste orazio, afekto, edo itz eder on asko erakutsiko dizkitzute; baño, Aita gureaz kanpora, Orazio añ altu, añ labur, añ santu, ta añ gozorik, nola dan Abe Maria, eziñ iñork erakutsiko dizu.

Ala denbora oietako Maisu, andi, grabe, ta piadoso batekin erregutzen dizut, orduoro Abe Maria errezatzeko debozio, ta oitura santua ar dezazula, falta gabe, ta juramentuz obligatua bazeunde bezala. Baña juramentu egitea, ezta konbeni. Zeruko debozio au Italian, Alemanian,

Españan, ta Portugalen txit artu, ta banatu ezkerro, milla, ta sei eun, ta amalaugarren urtean, Coimbrako errian milagro au ikusi zan.

Gizon bat burutik galdu, ta suburni, edo eskopeta artu, ta bere etsai bat iltzera irten zan. Besteak Abe Maria errezatzeko debozioa zuen: Erlojuja aditu zuen, gizona tiratzera zijoanean, ta bereala gelditu zan, oi zan bezala, Abe Maria errezatzeko: ta orra non bitartean balak igaro ziran, pauso batez aurrerago, leku artan zeñean, Abe Mariak atzeratu ez balu, illik geratuko zan.

Baña zenbat atsegin Jainkoari eman diozakean edozeñ, dan jakiñez, edo ignoranteanak ere, Abe Maria bakarrarekin, beste Jakulatoriak ez dakienak ere, Ejenplo onek obeto erakusten du. Zister-ko Ordenan Soldadu bat sartu zan, baño ya zarra, ta añ buru gaistokoa, non beste Orazioirik, Abe Maria baizik, ezin ikasi izan zuen. Beste aldetik añ debotoa zan, non beti, jatean, bearrean, ta leku guztian Abe Maria esaten, bere atsegin guzia zeukala bizitu zan. Monje au debozio onekin iltzan: aren gorputza zegoen obitik, ikusi zan, nola arbola bat, iñork ezagutzen etzue-na jaio zan: onen orri, edo osto bakoitzean urrezko letrak in zeuden itz oiek. ABE MARIA, GRAZIAZ BETEA. Prodigio onez guziak miretsirik, aren obia, Obispo angoa begira zegoela idiki zan, ta ikusi zuten arbola orren sustraia Monje orren aotik jaiotzen zala, zeren Abe Mariaren alako debozio gozoa iduki zuen.



AMABI-GARREN PAUSOA

JAUNGOIKO-AREN

BORONDATEAREKIN KONFORMIDADEA

Konformidatea da erakida, edo araukida: ta esan nai du borondate bi era batera egitea, edo egotea. Pauso onetan, zure borondatea Jainkoaren borondatearekin bat egitea, esan nai du.

G. Eguna, Astea, ta Illa onela errepertitu ezker, birtuteen ejerjizian beti ari bear degu?

E. Bai, Aita, baña orien gañean ez diguzu orañdik ezer esan.

G. Bada, zuk esazu birtuteren bat, beste guziak berekin dakartziena?

E. Ori da Jainkoaren borondatearekin konformidatea.

G. Birtute ori zertan iduki, edo erakutsi bear da?

E. Gauza guzietan berdin, ala penetan, nola konsueloetan.

G. Edozeñ gauzatan Jainkoari zer esan diozakegu?

E. Jauna, egin bedi zure borondatea denbora guzian, ta eternidatean.

G. Birtute hau beti orren beardana da?

E. Bai, Aita, zeren ezta Kristaurik egunoro, bear, edo nekea ez duenik.

G. Birtute onek zer estadutaraño gure animak igo-erazo ditzake?

E. Kristau biziera batetik Jainkozko bizimodu bateraño.

EMENDIK DATORRENA

Itz bakar oietan: *Jainkoaren borondatearekin konformidatea*, Birtute guzien izate, edo suma bat, Zerurako biderik laburrena, ta lurrean Zorion, edo Bienabenturanza egin, edo kabala, eskeñtzen dizut. Baldin orañdaño pensatu badezu, errezo luzeetan, Meza asko ikustean, penitenzia gogorak egitean, zegoela birtutea, ta orregatik birtuteari jarraitzera atrebitu ez bazera, txit engañaturik bizi izan zera. Gauza orien birtuterako bide santu, ta bitartekoak dira: penitenzia, ta errezoak, neurriaz, ta Konfessore prudentearen konsejuaz baizen, ez dituzu artu, ta usatu bear: oriek azaletik, edo espiritu gabe artu, ta birtuteak ez dira.

Ta baldin, Birtutea zertan dagoen, galdetzen badezu? Teologoak eranzuten dizute, Birtutea, ta Birtute guztien anima, zure borondatea Jainkoarenaz bat egitean, edo konformatzean, dagoela; zure borondatea sujetatzean, edo ukatzean. Nai badezu, bada, Jainkoa gogotik, edo deberas serbitu, ez dezu Martirioetan, eremuetan, ta beste konseju askotan, zer pensatu. Zure etxe barrunbean, ta egunoroko zure esku arteko gauzetan,

Birtute txit altu bat Jainkoak ifiñi dizu: ta onetara igo, edo allegatzeko, besterik bear ez dezu, ez bada Aita Gureko itz aiek: *Egñ bedi zure borondatea, nola zeruan, ala lurrean*, beti zure biotzean, ta aoan idukitzea.

Zure egiteko, lan, edo obra, asko kostarikakoa, ta ondo irtetea nai zenduena, gaizki irten zatzu? Bada Jainkoari biotzetik esaziozu: *Jauna, zure borondatean orañ, ta beti egñ bedi*: eta onetantxe dago birtutea. Orrako zure mirabe, seme, edo alaba, senar, edo emazte orren soberbia, modu gaisto, edo aren gaizki egin, edo esan ori, diozu, betiko tormentu bat dala zuretzat, ta ori zuk sufritzea, Jainkoak nai du? Bada biotz guztik esaziozu: *Jauna, orañ, ta beti, zure borondatea egñ bedi*: ta orretan zere burua sujetatzean, dago birtutea. Besteak gaitz, edo agrabioren bat egiten dizu, edo kentzen zure kreditua, ta Jainkoak erremedia dezakeala, erremediatzen ez du? Bada biotz guztik esaziozu: *Jauna, orañ, ta beti, zure borondatea egñ bedi*: ta onetan dago birtute andia.

Onelako gauzetan Jainkoak nai du, beragatik bestea zuk ondo tratatzea, karidade, ta agradoaz, ta arpegi alai ta biotz onaz, onenbat orregatik beragatik, al badezu, ari egitea. Animo, bada, ta gogotik artu, ta egin, zeren Jainkoak nai duen, ta akonsejatzen dizun: ta orretan dago Jainkoa galanki serbitzea. Fin onetara zure orazio, barau, limosna, ta obra onak zuzendu bear dituzu: zure burua benzitu, sujetatu, ta Jainkoaren borondatearekin neurritu, ta bat egitera, ta are geiago, egunoroko, ta orduoroko zure etxeko gauzetan: ta S. Franzisko Salesek dionez, *oiek ondo artzen, ta eramaten badira, bide eder bat dira, ta ondasun espiritual asko juntatzeko modua*.

Ta ez dudatu, orrelako gauza txiki batean zere burua benzitzea, askotan Jainkoari geiago agradatzen zaiola, ta zuk gloria andiago irabaziko dezula, eun bararekin baño. Zer du baña, zer ikusi, Jainkoak zuri sufritu dizun, ta egunoro sufritzen dizunak, besteai zuk sufritzen diezunarekin? Zere burua, bear dezuna izateko ezin zuzen dezu, ta besteak zuzendu nai dituzu?

Neke orretan, ta are andiagoetan Jesu Kristo bera agertuko balitzazu, ta esango balizu: Nere borondatea da, nik bialtzen dizudan neke au zuk eramatea. Nork eztaki, zu zeran gaistoena izan arren, esango ziñio-kela: Jauna, ori da asko zuk nai izatea: ori eraman nai det: egin bedi zure borondatea. Bada, Salbadoreak berak esango lizukeana bera, esaten dizu, ta añ seguru Fedeak. *Onak, eta gaitzak, bizitza, ta eriotza, pobreza, ta ondasunak Jainkoagandik datozkigu*. Baña zure itsumena, ta desditxa guzia dago, zuri naigabea eman dizun sujeto artan zure begiak ifintzean, ta ez zure Jainko amoriozkoaren esku gorde artan, zeñak neke ori, bestearen bide-tik bialtzen dizun.



Pobreza, gasotasuna, deskreditua, ta orrelako nekeak dira egunoro-ko ogia, zeñarekin Jainkoak bere umerik maiteenak azitzen dituen, ta oiek dira zerurako biderik seguruenak. Bide au bere Seme maiteen bakarrarenzat artu zuen. Beti tristeak zuk konsolatzean, pena oriei egunoro Jainkoaren erregaloak detzen diezu. Baña zugana datozenean, ezin ori sinistu dezu, edo, sinisten ez bazendu bezala, begiratzten diezu: ta zeru asko irabazi bearrean, ta iru itz oiekin: egin bedi zure borondatea, oriek ariñago egin bearrean; zure betiko itzak, ta deadarrak dira, Jainkoak pena orieta-tik libra, ta atera zaitzala: ta are geiago lurreko, edo gauza denboralen gañean bada: zuk eskatu, ta uste dezu Jainkoak aditzen etzaituela, geiena, ta obeto aditzen zaituenean. Eta zuri osasuna, ondasunak, ta beste zuk nai zenduen, ta eskatzen zenduena, ukatzea, edo ez Jainkoak ematea, da ez bestegatik, ez bada, zeren zure animaren galgarri, edo kalte izango dan, Ejenplo onetan ikusiko dezun bezala.

Bost eun, ta ogei, ta zortzigarren urtean, Teбайдan Eulojio zeritzan gizon bat ofizioz argiña, bizi izan zan: pobreza bera; baña birtutez añ abe-ratsa, non aoko bokadua bere buruari kendurik, Kristoren pobreai limosna asko egiten zien, ta erromes, edo peregrinoai ostatua ematen zien. Beñ batean, besteen artean, Monje Santu bat, Daniel zeritzana iduki zuen etxean. Onek, ikusirik barrendik nekazari pobre onen birtute andiak, bere Monasteriora biurtu zanean, Jainkoari erregutu zion, ta barau askorekin eskatu zion, arren Eulojio ondasunez bete zezala, zeren aren iritzian, Santuen, ta Limosnarien ispillu bat izango zan.

Jainkoak eranzun zion, Eulojiori, estadu artatik irtetea, konbeni etzizaiola. Orregatik ere Danielek berriro orazioa egin zuen, ta añ biziro ta gogotik, non bere anima buruzagi, edo fiadore ifiñi zion Jaunari. Orduan, Jainkoak nai, ta Eulojiok, atxurrean ari zala, lurpean gordairu, edo tesoro andi bat arkitu zuen ta orrekin Konstantinoplako Kortera igaro zan. An Soldadutzako bizimodu edo runbo peligrrosoa artu zuen, eta bere diruak, ta adiskideak laguntzen ziotela, denbora gutxiren buruan, Enperadore Justino zarraren Guardietako Agintari, edo Kapitan izateraño igo zan.

Baña bere poderio, ta anditasunez, len zanetik, bere oituretari añ trukatu, non lengo limosnak biurtu ziran jokoetara, ta orazioak ibillera txar desonestoetara. Denbora onetan Daniel Monje Santuari Jainkoak erakutsi zion ori guzia bisio txit izugarri batean, zeñean fiadoreari bezala, Eulojioren animaren kontu estua eskatzen zion. Ikaraturik Daniel, Konstantinoplara joan zan bereala, baña illabete osoan, Eulojiogana sarrerarik, ta ari itz egiteko biderik arkitu etzuen.

Azkenik, nolerebait sartu, ta itzegin zion, ta bere animaren onerako desengañoak ematen asi zitzaion. Baña Eulojiok añ gaizki artu zuen, eze deadarka Soldadu batzuei asi zitzaion, zeren gizon zoro ari sartzen utzi zioten: eta oiek golpeka, ta tratu gaistoaz kanpora bota zuten. Orregatik ere Daniel Santua bere Eulojio gajoaz aztu etzan: ta beregatik Jainkoagana biurtu zan, ta are estuago, ta gogotikako Eulojio tristearen animagatik erregutu zion, arren lengo nekezko estadu pobre humill artara, bere erre-medio bakarrera bezala, biurtzezala.

Lengo orazioa baño obeto Jainkoak orañgoa enzun zion. Zeren Justino ill ezkerro, ta Justiniano agintzera sartu zanean, Eulojiok beste Hipazio zeritzan gaisto, ta gaizki Enperadore izan nai zuen bati jarraitu zion: ori preso artu, ta Eulojiok iges egin, ta libratu zan. Onek bere ondasun guziak galdu, ta bere burua, zerekin bizi etzuela, ikusi zuen: ta bearrik bazuen, bere zizel, ta malluaz bearrean biurtu zan: eta bere buruaren kaltearekin, penitentzia egiten asi zan.

Onela zebillela, beñ batean Daniel topatu zuen; baña humillago, ta modu obekoa, Kortearen zegoenean baño. Monje Santuari erregutu zion, arren Jainkoari eska ziozala, ez ondasunak ari ematea, baizikan aren pobreza andiaren alibioren bat, eta bizi guzian aren zordun geratuko zitzaiola. Ez orise, Daniel Santuak esan zion: ez geiago. Jainkoari ez diot eskatuko, pobreza orretatik atera zaitzala, zeren ori nekezko gauza bada ere, zure animarenzat bearra dan: ta orra nola ura jakiñik gelditu zan, ta gu ere ikasirik aren ejenploarekin.



LIBRU SANTUAK ONDO IRAKURTEKO ABISOA

- G. Libru onak nola probetxuz animak irakurri bear ditu?
 E. Gorputzak janaria txikitu, ta bere onerako artzen duen bezala.
 G. Orrekin zer esan nai dezu?
 E. Irakurri bear dala geldika, edo soseguz, ez itotzen guzia batean ezta or, ta emen ikusi, edo pikatuaz, ta ez goragaleakin.
 G. Nork iretxiaz, edo iresleak bezala, batean guzia irakurten du?
 E. Geiegi, ta lasterregi maskatzeko leku gabe irakurten duenak.
 G. Nork pikatuaz, edo ukitu, ta utziaz irakurten du?
 E. Bere era onean irakurten ez duenak, ez bada, janari, edo plater askotan pikatuaz bezala.
 G. Nork goragaleaz, edo nazkatu, ta bezala irakurten du?
 E. Humiltasun gabe, edo guzia balieki bezala, edo jakin nai banoaz irakurten duenak.
 G. Nolako atenzio, ta debozioaz, Libruetan, ta sermoietan, Jainkoa enzun bear degu?
 E. Ejenplo arrigarri onek erakusten duen bezala.
 Beñ batean, Eusebio zeritzan Ermitaño Santu Eskritura Sagradua irakurtzen zegoen: eta jakin nai, edo kuriosidadez kanpo batean bearrean ari ziran atxurlariak ikustera begiak jaso zituen. Baña kontuan erori zanean, añ ta onen biotzeko pena, ta damu andia artu zuen, non kulpa, ta dibersio añ txikia bazan ere, penitentsia txitezko andi bat bere buruari ezarri zion: aren begiak geiagoren geiago etzutela begiratu bear, ez kanpo artara, ez zerura, ta ez ango izarretara.
 Onetarako, burnizko uztai bat gerrian lotu zuen, ta bere lepoan beste burniz beterikako argolla pisu bat, zeñak bere kargarekin burua makurturik, beti lurrera begira ibilli erazotzen zuen. Eta zer uste dezu? Bada berrogei urtean onelase, ill arteraño, ibilli zan, eta bere kueba, edo Zeldatik Oratoriora baizik, ta bide arra bateko estu batetik, bestetara irten etzan. Galdetzen zioten, zergatik añ gogorki, begiak jaso gabe zeukatzien? Eranzuten zuen: zeren gauza txikietan onenbeste kontu nere buruari nik artu, ta deabruak andietan gerrarik egingo ez didan.
 Ta onetatik, Kristau Irakurlea, ikasi, ta aterako dezu, nola kulpa andiak zuk kastigatu, ta orien peligro guzietatik iges egin bear dezun, Santuak kulparik, diran txikiak, orrela iges egiñaz, kastigatzen dituztenean.

AITAREN; TA SEMEAREN,
TA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN

GURE FEDEKO LAU GAUZA, EDO MISTERIORIK EZKUTATUENAK: GURUTZE SANTUAREN SEÑALEAN NOLA ENZERRATZEN, TA ADITZEN DIRAN

Aita Gaspar Astetek Doktrinako bere Libru txikian, nola ainbeste gauza andi, añ labur, ta ederki dakarzien: bearrenak esan, ta ez luzatzeagatik besteak utzi zituen, luzaroago esplikatzeke bidea emanaz. Askok Gaztelaniaz au egin du, gutxi euskeraz. Argatik Euskaldunen premiari dagokion bezala, Gurutze Santuan agertzen dira.

GALDEA: Zer, edo zeñ dira Gurutze aren señaletan enzerraten, ta erakusten diran Misterio, edo gauzak?

ERANZUERA: Zuk bearren dituzunak: edo nola Jaungoiko bat, eta iru Persona diran: nola bigarren Persona Gizon egin zan: onen Pasio, ta Eriotza, ta pekatuen barkazioa.

TRINIDADEKO IRU PERSONEN IZEN BATEAN GURUTZE SANTUAREN SEÑALEA EGITEN DA

G. Bai, eta Iru orrek zer esan nai du?

E. Munduko gauza guziak baño lenago, eta beti zala, ta dala Jaun bat asierarik eztena, munduko gauza guzieñ ganekoa, guztiak bere itz, edo borondateaz egin zituena. Espiritu bat guziz miragarri, poderoso, jakinsu, ta ona, gauza guzien asiera: orien izan, edo bakoitzak duen izatea, ematen diena, ta bere borondate santuaz, bear bezala, gobernatzen dituen. Ta Gauza bakar, ta Izate, edo Espiritu berez beti dan oni, berari txit ondo, ta ederki dagokion bezala, Euskeraz deitzen diogu JAUNGOIKOA.

G. Ta Zerua, ta lurra egin baño len, Jaungoikoa non zegoen?

E. Beregan beti, orañ bezala, guztiz santu, aberats, ta ederra.

G. Zergatik da Jaungoiko bat, eta bakarra?



E. Zeren Jainkotasun bat baizik ezin izango dan ta, paregabekoa dan: esan nai du, Izate, edo Naturaleza bat berez, ta beregan gauza on guziak batean dituena: oiei Jainkoaren Atributo, ta Perfekzioak derizte, Jainko batek baizik, iñork bestek berez ezin izango dituenak: bestek balitu, Jainkoa bat, ta bakarra izango ez litzake.

G. Misterio au nola da: Iru ta bat: edo Jaungoiko bere izatez bat ori, nola da Personetan Iru?

E. Jainkoaren ugaritasunak zeren ori bera eskatzen duen.

G. Ugaritasun, edo fekundidade orrek zer esan nai du?

E. Jainkotasunean dala Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua: Iru Persona Izan, edo Esenzia batean, Izate, edo Naturaleza batean.

G. Ta ori nola izan diteke, ta nola adierazo?

E. Ara nola: ikusten bazindu iru Persona, Pedro, Juan, ta Diego deriztenak: ta gorputz bat, eta anima bat baizen irurak ezpalute: izango lirake iru persona; baña ez iru gizon, ezpada gizon bakar bat. Gure artean au ezin diteke, zeren gure izan au gauza laburra, ta txikia dan, ta argatik persona askotan bera ezin dagokean. Baña Jainkotasuna, nola fin gabea dan, arki diteke ta egiaz dago Aitaren Jainkotasuna bera Semeagan, ta Espiritu Santuagan: Aita da Persona bat, Semea bestea; ta Espiritu Santua bestea.

G. Ta Iru Persona oriek dira Iru Jaungoiko?

E. Ez: orregatik Iru Jainko eztira, ezpada Jainko bakar bat; zergatik Iru Personak Jainkotasun bat duten; ta diran.

G. Misterio andien au Maisuak nola adieratzoteen dute?

E. Zure Animaren ejemplo arekin zeña dan bat, eta iru, zure memoria, adimentu, ta borondatean. Zure memoria ezta adimentua, ta ez borondatea. Ala gauza askoz oroitzen zera, ta ez dituzu ezagutzen: beste gauza asko ezagutu, ta nai ez dituzu. Orra nola iru diran: ta almen, edo potentzia bata ezta bestea. Baña orregatik iru oriek Anima bat dira. Orrela bada, ta are obeto, Jainko bakar bat da Iru Personetan. Persona bata ezta bestea, ta Iru Personak Jainko bakar bat baizik eztira. Aita Jainkoa da, Semea Jainkoa da, ta Espiritu Santua Jainkoa da: ta ez dira iru Jainko, ezpada Jainko bakar bat. Zergatik iru Personak Jainkotasun bakar bat baizik ez duten: ori bera Aitak, Semeak, ta Espiritu Sautuak. Nola memoria, adimentua, ta borondatea Anima bat diran: alaz, ta are obeto.

G. Zer esan naizu, Iru Persona distintoak diozunean?

E. Persona bata ezjala bestea, Aita ezjala Semea, ta ez Espiritu Santua, ezpada Persona bakoitza bana dala, edo banaituak, ta distintoak dirala.

G. Ta gure gañeko, edo Misterio goien, ta altuen onetan diran gauzetan, zer agintzen digu Jainkoak?

E. Fede osoaz, ta errespetorik humillenez guzia sinistea. Onelako Jainkoaren Sakramentu andietan geiegi sartu, ta aditu naia baño zure borondate humillaz oriek adoratu, ta fede onez sinistea, bearrago dezu.

G. Ta gure fede onen zimendu segurua zeñ da?

E. Gure Jainkoak ala esan, edo errebelatu, ta sinistea agintzen duela, guzia sinistea. Jaungoikoa bere gauza guzietan da gure gañekoa: ta ez litzake dana izango, ark adinbat zuk aditu, edo egin al bazenezake.

G. Misterio onetan, ta besteetan, zer geiago jakin bear da?

E. Gauza oiek gu baño goragokoak, gure arrazoi, ta argi laburraren gañekoak badira ere; baña arrazoiaren kontra ez dirala; ez bada arrazoiak bat, eta arrazoi on guzian zimendatuak. Ori erakusten du Kurutzearen argiak, ta fedeak, zuk esatean: Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren Izenean.

G. Ta zergatik IZENETAN esaten ez da, ezpada IZENEAN?

E. Iru Personak Jaungoiko bat dirala zuri erakusteko, Au da Gurutzearen señalean dezun lenengo argia.

G. Gurutzearen señaleak erakasten duen bigarren gauza zeñ da?

E. Nola gu salbatzeko Jaungoikoa Gizon egin zan, edo Enkarnazio-ko Misterio esaten dana.

FEDEKO BIGARREN MISTERIO ANDIA

G. Bigarren Misterio, edo gauza miragarri ori zertan dago?

E. Jaungoiko bat, eta bakar ori, bere Ontasun, ta miserikordiaz, gure bearrrik etzuela, gu salbatzeagatik, gure aragiz janzi, ta Gizon egiñik munduan agertzean.

G. Obra andi ori noiz izan zan, edo, Jainkoak noiz egin zuen?

E. Mundua egin, ta andik bost milla urteren aldean.

G. Ta orduan zer egin zuen?

E. Ama Birjiñaren sabel garbian, gure Naturaleza, Gizatasuna Jainkotasunarekin bat egin, ta artu zuen. Ta nola Jainkotasuna daukala, Jainkoa dan; ala Gizatasuna daukalako da Gizona.

G. Misterio au Ama Birjiñaren sabel garbian nola egin zan?

E. Espiritu Santuaren obraz, ta birtutez, fedeak dion bezala: ta instante batean lau gauza egin ziran. Lenengo, Ama Birjiñaren odol gutxi



batetik Jainkoak egin zuen Gorputz bat: bigarrena, ezerezetik egin, edo kriuatu zuen Anima bat: irugarrena, Anima, ta Gorpurz ori batu, edo unitu zituen. Laugarrena, Jainkotasunak bere bigarren Personan Kristoren Gizatasuna batu, edo unitu zuen.

Ta orra nola Jesu Kristo Jainkoa, ta Gizon egiazkoa egin zan.

G. Misterio au nola adierazo diteke? Edo Naturaleza bi egiazkoak, berez añ urruti zeudenak, nola diran Jainkoaren Naturaleza, eta Gizonarena, Jainkoaren bigarren Personan bat egitea, edo unitzea: ta Persona onek lurreko Personaren falta, edo utsa betetzea?

E. Txerto baten ejemplo, edo antzarekin, ederki gure modura au explikatzen da. Arbola baten adar bitan fruta mota biren Txertoak ikusten dira, eta nola fruta bi Arbola batean alkarrekin ematen dituzten. Orrela bada, Jainkoaren, ta Gizonaren Natura añ diferente, edo bana [...] nak egiaz daude Persona bakar batean: au da Arbola bezala, Jainkoaren bigarren Persona, edo Semearena, ta beste Personaren bearrik eztu.

G. Kristo, Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa dala, nola ill zan, ta nola irugarren egunean piztu, edo erresuzitatu zan?

E. Au argizko kristal baten ejemplo, edo antzaz ederki, adierazotzen da. Kristal ori, zuk puskatuagatik, puska guzietan argia osorik beti arkitzen, ta ikusten da. Ala, Kristoren kristal, edo Gizatasun aren gorputza bere Pasioan tormentatu, ta urratu bazan eze; orren Jainkotasunaren argia ezin puskatuko zan. Ill zan bada, Gizona bezala, ta resuzitatu zan, Jainkoa bezala, onen birtutez. Beste simil, edo antza da, Ezpata bere magitik ateratzen duen batena. Persona orrek esku batean dauka espata, ta bestean magia, bata, ta bestea utzi gabe. Orren gisa, Jainkotasunak etzuen beñere utzi beregan beñ artu zuen gorputza, ta anima, zeñak espata, ta magia bezala diran. Gurutzean anima, espataren gisa, bere magi, edo gorputzetik atera zan; baña Jainkotasuna gorputz illarekin, ta animarekin batean, edo biakin uniturik beti egon zan.

G. Orrela Jesu Kristo gure Jaunak zenbat izate, edo Naturaleza ditu?

E. Bi: Jainkoarena bata, eta bestea Gizonarena.

G. Ta zenbat Persona ditu Kristok?

E. Bat, eta Jainkoarena ori, ta besterik eztu bear.

G. Zenbat adimentu, ta borondate ditu.

E. Bi: Jainkoaren, ta Gizonarenak.

G. Ta zenbat memoria ditu Kristok?

E. Bat, Gizona danez. Jainkoa danez, guzia dakus beti.

G. Ta Jesu Kristok aitarik, edo Amarik badu?

E. Jainkoa danez, Amarik eztu, ta bada Aita, zeña dan Aita Eternoa. Gizona danez, Aitarik eztu, ta Ama bai, zeña dan Birjiña Ama guziz Santa. Jainkoa danez, bere Aitarekin, beti zan: Gizona danez, gero bere denboran, Ama beti Birjiñagandik jaio zan.

G. Ta San Josef glorioso Kristoren Aita, edo zer da?

E. Aita ustekoa da, ta Aitaren ordeak Ama, Semearekin egin zituen lurrean. Baña ezta Kristoren Aita, baizik Birjiña Amaren Esposo garbia, ta orregatik Santu guztien Doatsuena, Jesus, ta Mariaren biotzeko guziz estimatu, ta laztanena.

G. Ta Jainkoa Gizon egin zanean, Aitak, ta Semeak, ta Espiritu Santuak obra, ta Misterio au etzuten egin?

E. Bai, ta Iru Personak berdin, ta Irurak batean.

G. Nola bada, edo zergatik diozu: Espiritu Santuaren obraz, ta birtutez?

E. Zergatik Jainkoa gure aragiz janzitzea, amoriozko obrarik andiena dan, ta Jainkoaren Ontasun guztia agertzen diguna. Ta nola Poderioa Aitari, Jakintasuna Semeari, ala Ontasuna, ta amorioa Espiritu Santuari dagokion, ta oni amoriozko obrak ematen zaizkan.

G. Jainko bakar bat bada, ta ori Gizon egin bazan, nola Aita, edo Espiritu Santua Gizon egin etzan?

Zeren Jainko bat izan arren, gure Naturaleza, edo Gizatasuna, ez Aitaren, ta ez Espiritu Santuaren, baizik Semearen Personan bakarrik artu zuen.

G. Ta obra, edo mirari ori nola izan zan?

E. Ara nola: kontu egizu, iru Persona poderoso, jakinsu, ta onak, alde guzietatik berdiñak soñeko berri bat iruren artean artzen dutela, ta alkarri irurak batean lagundu, ta erdian dagoenak janzitzen duela. Batak besteartari lagundu, ta bada ere, bat, erdikoa janzia geratzen da. Orrela bada: gure aragiaren soñeko ori jaztea, iru Personak batean egin zuten, ta berdin; baña bat bakarrik, zeña dan erdiko Persona, edo Semea janzia geratu zan: ta ori da Jesu Kristo Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa.

IRUGARREN GAUZA, EDO MISTERIOA

Gurutzearen señalear, berez bezala agertzen dan beste Misterioa da Jesu Kristoren Pasio santua, ta onen amoriozko Sakramentuetan gure pekatuen barkazioa.



G. Zeñ Sakramentutan, gure Fedeko Misterioan bezala, Jesu Kristoren Pasio, ta Eriotza berritrotzen da?

E. Meza santuan, ta Eukaristiaren Sakramentuan.

G. Ta Meza Santua zer da?

E. Jesu Kristoren Gorputz, ta Odol preziosoaren Sakrifizio, Jaungoikoari eskeñtzen, edo ofrezitzen diogun bat.

G. Sakramentu onetan zer erakusten digu Fedeak?

E. Sazerdoteak Konsagrazioko itzak esatean, lengo ogia Jesu Kristoren egiazko Gorputz, ta len ardo zegoena, Kristoren egiazko Odol biurutzen dirala.

G. Ta Hostian, ta Kalizean zer zegoen len?

E. Hostian Ogi gutxi bat, ta Kalizean ardo gutxi bat.

G.. Ta oriek konsagratu ezkeru zer dago?

E. Hostian dago Kristoren Gorputza; baña nola bizia dagoen, ta Gorputz biziak odola duen: Gorputz artan dago odola, baita Kristoren Anima ere, ta orrekin Aita, ta Espiritu Santua daude an Semearekin batean. Orobat Kalizean dago Odola, baña Gorputz, ta Animarekin, Jainkotasun, ta Iru Trinitadeko Personakin batean.

G. Misterio au nola da; edo Ogia Kristoren Gorputz, ta ardoa Kristoren egiazko Odol nola birutzen dira?

E. Kristoren esan eragille, edo itzaren birtutez.

G. Biurtze, edo konbersio ori nola esan, edo adierazo liteke?

E. Ara nola: Erleak intza bere ao gozoan artu, ta biurtzen du, edo ezta egiten du: ta au bere lengo intzaren antz, kolore, utsai, ta pisuarekin geratzen dala. Ala, bada, ta obeto, Kristoren itz indartsuak, bere Ministroaren aotik Aldarean, Hostian, ta Kalizan, ogia, ta ardoa bere egiazko Gorputz, ta Odol biurtzen, edo egiten ditu, lengo kolore, utsai, ta gusto ogi, ta ardoarena geratzen dirala. Oriek dira, ta derizte akzidentek: ta gure Jaunak milagro, len bezala, Gorputzaren, ta Odolaren jiran, baña ogi, ta ardo gabe, beti an dauzka.

G. Jesu Kristoren Gorputza, añ andia, ta galanta izanik Hostia añ txikian nola dago, edo kabitzen da?

E. Txit erraz, puskarik dan txikienean ere: zure Anima gorputzean bezala, Hostian dago Jauna, baña glorioso.

G. Hostia partitzen danean, Kristoren Gorputza partitzen bada?

E. Ez: partitzen ezta: Osorik beti; ta bera dan beñ eder, ta glorioso, oso ta bizi, puska, edo partetxorik txikienean, andian bezala, Jesu Kristo guzia dago, ta Gorputz, ta Anima Jainkotasunarekin an arkitzen da.

G. Ta Hostia Kristo konsagrazioan datorrenean, zerutik kentzen, edo apartatzen bada?

E. Ez: baizik Jainkoaren birtutez, zeruan, ta Hostian, guzia batean arkitzen da zure anima guzia, aurra zifanean, gorputz txikian, ta orañ andian dagoen bezala.

G. Ta Aldareko Sakramentu, edo Hostia santuan Ama Birjiña, edo besterik badago?

E. Ez: Jesu Kristo Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa besterik.

G. Ta Jaun andi au Sakramentu, edo Komunioan, bear bezala artze-ko, zenbat gauzar bear dira?

E. Iru. 1. Jainkoaren grazian egotea. Argatik ogi, edo janaria bezala ematen da, zeren bizien Sakramentua dan, animako bizikza alimentatze-ko, ta grazia geiago emateko. 2. Barau natural osoa, ezer gau erditik jan edo edan gabe. 3. Zer egiten, edo artzen dezun, komulgatzean, ondo eza-gutzea, fede, ta debozio andi bat Misterio onekin idukitzea.

G. Zergatik Sakramentu au, edo zertako Kristok egin zuen?

E. Iru gauzatarako. 1. Animaren sustentu izan zedin. 2. Lege berrian Jainkoaren diñako Sakrifizio izan zedin. 3. Beraren betiko Memorial, edo Jesusen Pasioa beti gure gogora ekartzeko señaie orañ, ta gero uste degun betiko gloriaren prenda izan zedin.

G. Sakramentu onek, janari danez, animan zer egiten du?

E. Lurreko janariak gorputzean berez egiten duena: orregatik ogiaren gisa ematen da. Ta nola ogiak gorputza bizi erazotzen duan: ala zeruko janari onek Sakramentuan, bear bezala, artzen duen anima, Kristoren graziazko biziak, osasun, ta indarrez betetzen du.

G. Sakramentu onek, Sakrifizioa danez, zer egiten du?

E. Jainkoaren aserrea kendu, gurekiko pakeak egin, ta gozatu, ta bizi-entzatu, ta illenzatu zeruko ondasun asko ekarri.

G. Ta Memorial, edo gogoragarri danez, zer egiten du?

E. Jainkoaren goraintzi gozo oiez Sakrifizio onetan akorderazo beti; ta amorezko Jabe maite oni eskerrik asko ematera gure biotzak beti animatu. Ala Mezako sakrifizioa gure Jesus onaren bizitza, ta pasio guztiaren Misterio labor bat, edo, zuk ikusteko, ispillu bizi baten gisa da.

G. Ta espirituz, ta probetxuz Meza enzuteko modua zeñ da?

E. Errazena, ta onena da, Sazerdoteari beri erregu ta orazioetan, Eleizarekin biotzeko debozioaz jarraitzea.

G. Ta irakurzen ez dakienak, nola ori egin dezake?

E. Bere biotzean sartu, ta fedez, ta deboziozko espiritu humill batez, Aita Jainkoari bere Semea, Sazerdotearekin eskeñi, edo borondateaz



ofrezituaz. Ta edozeñ errezo, edo debozio Mezako denboran egin ditekete, biotzeo prezentsiaz Sakrifizio santuan bat dagoela.

G. Meza bi zure aurrean, ta zuera onean zaudela asitzen badira, enzun ditezke biak batean?

E. Meza bat enzutea baizik Eleizak agintzen eztu, ta baten obligazioa dezu. Baña oriek biak batean enzun ditezke, bietan debozioz, presente bat dagoela era onean. Meza biak ikusi, adoratu, ta ofrezte ditzake batean. Eguneke ogei ta lau orduetan, ainbeste milla Meza orduoro esaten daude munduan. Zu guzietan arkitzen baziña bezala, animako presentzia ta borondate osoaz, gu[...], egon naia, konseju [...] irabazi andiko obra da.

LAUGARREN GAUZA

G. Gurutzearen señalear zergatik ezkerreko aldetik eskuietara egiten da?

E. Erakusteagatik, Jesu Kristok bere Gurutze, ta Sakramentuaren birtutez, penitentiarekin gure pekatuetatik bere grazia nola gakartzien.

G. Penitenziako Sakramentua, edo Konfesioa zer da?

E. Bateo santua ezkerreko egindako pekatuen barkazioa, ta Jainkoaren grazia artzeko Jesu Kristok egindako Sakramentu bat.

G. Sakramentu ori zertan dago?

E. Pekatariaren damuzko konfesioan, ta Sazerdotearen absoluzioan.

G. Zenbat gauza eskatzen ditu Sakramentu onek?

E. Eleizak diotez, iru: biotzeko kontrizioa, aozko konfesioa, ta obrazko satisfazioa. Orobat da askok diona. Bost gauza: Esamen konzienziakoa, dolore, edo damua, propositua, konfesioa, ta satisfazioa, edo penitentzia egitea. Trentoko Konzilioak dio, konfesioaren parteak iru dirala, eta oriek dira penitentearen ira aktoak.

G. Ta konzienziako esamen ori zer da?

E. Batek egin dituei pekatuak billatzea, ta konzienzian dauden beza-laguziak ondo konfesatzeko, kontuak ateratzea.

G. Esamen konzienziako au nola egin bear da?

E. Bakoitzak bere buruari Jainkoaren Legeko ispilluan begiratuaz, Mandamentuen, edo bere obligazioen kontra egin dituen kulpak ikusi: ta azkeneko konfesiotik onara, edo lengo azturik, edo konfesakizunik badu, nola, ta zenbat bider, pensamentuz, itzez, ta obraz egin dituen, al duen bezala, garbiro ateraz.

G. Esamen ori non egin bear du bakoitzak?

E. Bere biotzeko al duen erretirorik andianean: dala Eleizan, dala etxean, Penitenziako Sakramentura ondo allegatzeko.

G. Ori ondo egiteko zenbat gauza bear ditu?

E. Iru: Jainkoaren grazia, denbora, ta bere alegiña.

G. Ta esamen ori ondo egiteko zenbat denbora bear da?

E. Denboraren neurri, ta erregla ziertoa ematea, erraz ezta. Bakoi-tzaren bizimodu, ta beste gauzak ondo ikusi, ta Konfesoarek esango dizu obeto, zenbat zuk bear dezun. Illean beñ, edo lenago konfesatzen danak, asko du orduerdi bat, edo gutxiago. Jainkoari, Ama Birjiñari, ta Santuai erregutu, ta denbora artu, ta pekatuaz akordatzeko esamen au egin bear dezu.

G. Zer da pekatuen damua?

E. Jainkoa ofenditutako biotzeko dolorea, ez geiago ofenditzeko proposituarekin.

G. Dolore, edo damu au zenbat modutan da?

E. Bitan: edo da Kontrizioa, edo da Atrizioa.

G. Kontrizioa zer da?

E. Batek artzen duen pekatuen damua ofendituaz Jainkoa, bera danagatik, ta zeren Jainko guziz ona ta santua pekatuaz ofenditu duen.

G. Ta Atrizioa zer da?

E. Da pekatuen damua, edo pekatuaren itsustasunagatik, edo zeren pekatuaz zeruko gloria galtzen dan, edo infernuko tormentuak mezezi diran.

G. Damu oien artean onena zeñ da?

E. Askoz, ta alde askotatik ohea da Kontrizioa. Kontriziozko Aktu bat biotzetik egiten duenari, konfesatzeko borondatea, edo intenzioa daukala, pekatuak andienak balitu ere, puntu artan, konferatu baño len, diranak barkatzen zaizka: ta ala, leku, edo konfesio gabe illko baliz, salbatuko litzake, Atrizioak berez orrelako birtuterik eztu, ta Jainkoaren grazia ematen eztu, ezpada konfesio, edo Penitenziako Sakramentuan: ta ori gabe illko baliz, kondenatuko litzake. Argatik pekatu mortalean dagoenak Konfesoare gabe, eriotzako peligroan arkituko baliz, Aktu kontriziozkoa egin bear du. Ta onek berez duen indar, edo birtute onegatik; oitu bear dezu beti, obra on guzietan, ta are geiago tentazio, ta peligroetan Kontriziozko Aktoak egitera: goizean ori egizu biotzetik, arratsean oirakoan beti, ta biotz guztitik illzeko bezala. Ondo egiten badezu ori, txit asko bizitzan, ta geiago eriotzan balio du.

G. Ta propositua zer da?



E. Biotzeko gogo sendo, edo borondate indarsu bat, geiagoren geiago pekatuak ez egiteko.

G. Pekatuaren bide, edo okasiotik alde egin dezakeala, apartatzen eztanak, orrelako bear dan propositurik badu?

E. Ez: ta ondo konfesatzeko, ta salbatzeko gogorik orrek ez du.

G. Aozko Konfesioa zer da?

E. Pekatu mortal idoro dituzun guztiak, zure konzienzian dauden bezala, bat ere lotsaz, edo bildurrez utzi gabe, Konfesoreari Jesu Kristori bezala, esatea.

G. Ta pekatu benialak konfesatzeko obligaziorik bada?

E. Konseju ona da, oriek konfesatzea; baña obligaziorik ezta.

G. Batek bere alegiñaz konzienzia esaminatu, ta pekatuaren batzuek aztutzen bazaizka, orregatik ondo konfesatzen da?

E. Bai; baña pekatu len aztu oriek urrengo konfesioan esan, edo kondesatu bear ditu, ziran bezala.

G. Konfesioan pekatuaren bat, edo asko, dakiela, lotsaz, edo bear eztan bildurrez utzitzen baditu, salba diteke orrela?

E. Ez: ezta Santu guzien penitenziak, eta geiago egingo balite ere.

G. Pekatu dira itsusien, ta arrigarrienak batek egin baditu, Erromara joan gabe, orien absoluzio, ta barkazioa izango du?

E. Bai: Erromara gabe, emen bertan du guzien erremedioa.

G. Konfesoreak iñoren pekatuak esan dezake, edo konfesioko gauzaz iñor salatu, edo Inkisiziora akusa dezake?

E. Ez, eta bizirik erreko balute ere. Oiek, eta beste onelako bildurrak deabruen asmo, ta gezurrak dira.

G. Beraz aitzakiarik iñork ez du, bere pekatuak ez konfesatzeko?

E. Ez du egiaz: ta konfesioko erremedio añ erraza bere eskuan daukala, ondo konfesatzen ezdana, bere kulpaz kondenatzen da.

G. Obrazko Satisfazioa zer da?

E. Bati bere pekatuak gatik Konfesoreak emanikako penitentzia egitea, edo kunplitzea.

G. Penitentzia kunplitzeko animoarekin artu, ta gero egiten eztena, edo kunplitzen ezpada, ondo konfesatuko da?

E. Bai, ondo; baña penitentzia andi, edo grabea, bere kulpaz edo naiez uzten badu, pekatu egiten du, ta urrengoan ori konfesatu bear du.

FEDE, ESPERANZA, TA KARIDADEAREN EJERZIZIOA

FEDEKO AKTUAK, EDO EJERZIZIOA

Nere Jaungoikoa: Nik sinisten det Eleiza Ama Santari zuk errebelatu diozun guztia: eta Zuk, eta Eleiza Ama Santuak sinistea niri agintzen didazuten guztia. Sinisten det, Jauna, zeren Zuk ala esan dezun, ta zeren zure itza egia bera dan.

Sinisten det, Zu zerala nere Jaungoiko bakarra, gauza guzien Jabea: guziak egin, ta txit ondo gobernatzen dituzuna.

Sinisten det, gure animak ezerezetik beti irauteko egin zinduela, ta ill bear ez tutelata: ta Zuk, Jaun txit justuak bezala, onai zeruko gloria, ta gaiztoai infernuko penak ematen dieztezula. Sinisten det, salbatzeko bear dala zure grazia.

Sinisten det, Jauna, Zu zure Izan edo Naturelezan Bat, eta Persone-tan Iru, Aita; ta Semea, ta Espiritu Santua zerala, edo zure Triurtidadeko misterioa sinisten det.

Sinisten det, Semea, edo Bigarren Persona Ama Birjiñaren sabelean gugatik Gizon egin, ta jaio zala: padezitu zuela; ill, ta piztu, ta zerura igo zala: bere Eleizan, Sakramentuak, guri grazia emateko, egin zituela: ta Aldareko Sakramentuan Jesu Kristo, zeruan bezala, egiaz dagoela: Kristoren meritoai gatik betiko gloria agindurik daukazula: ta zure ontasun, ta miserikordiaz, ta zeren zure itzeko Jaun txit fiela zeran, agindua emango diguzula.

Sinisten det, zure anditasun, ondasun, ta perfekzio kabu gabeakin zeregan guziz aberats, ta santua zerala, amorio guztiaren ziña, ta guzia merezi dezuna, ta iñork ere Zu ofenditzea; ezpada guziek Zu serbitu, ta beti alabatzea.

Oiek, eta beste zure misterio andi, ta eskutatu guziak, Jauna, zure esanak bezala, nere fede on guziaz sinisten ditut, zuk esan dituzulako: zeren zure itza, Zu bezala, egia bera, ta ezin uts egingo duena dan. Sinisten det guzia, ta zure Fede onetan bizi, ta ¡ll nai det. Piztu, ta bizi erazo ezazu, Jauna, nere fede ill au.



ESPERANZAZKO AKTO, EDO EKIERA

Nere Jaun gaztiz ona: esperatzen det zure ontasunagandik nere pekatu guzien barkazioa, ta nere eriotzako azkeneko orduan zure grazia, ta nere salbaziorako bear dedan guzia.

Esperatzen det zu beti alabatzeko zeruko gloria.

Esperatzen, ta deseatzen ditut grazia oiek guziak, Zu añ ona zeren zera: Zu nere animaren zoriona, ta Zu nere ondasun egiazko bakar guzia zeren zeran.

Oriek guztiok alkanzatu nai, ta uste ditut Jesu Kristoren meritua gatik, ta zeren Zu zeran nere Jaungoiko guziz ona, oriek niri zure ontasunez agindu dizkidatzuna, ta zeren nere bearrean, ta ezerezean zuk eskeñi, ta lagundu nai didazun: ta zure itzaren Jabe guztiz fielak bezala, guzia gorde nai didazun. Ai Jauna! Nere fede, ta uste guzia zugar daukat: nere esperanza beti zugar dago: orrela ez naiz betiko ondatu, ta galduko.

KARIDADEZKO AKTO, EDO EKIERA

Nere Jaungoiko guziz ona, ta Ontasuna bera! Nere Biotz guztitik amaten zaitut, ta ez bakarrik zeren kriatu, pekatutik libratu, ta ainbeste ondasunekin bizia eman didazun: ez eta bakarrik zeren zeruko gloria agindu, ta betiko eman nai didazun, ezpada nai dizut, Jauna, ta amaten zaitut, are geiago, ta nere animako indar, ta alegin guziaz, ta gauza guzieren gañetik, zeren Zu zeran nere Jaungoiko txit ona, amorio guziaren diñako Ontasuna bera, on guziak zugar dituzuna: ta onegatik beste gabe amorio guzia alde guzietatik beti merezi dezuna. Zeruaeren usterik, ta infesnuaren bildurrik ezpaliz ere, Zu beti ontasun amagarria zera.

Ai nere Jabe bakarra! Ta zer atsegiña artzen dedan, Zuk zugar beti daukazun egiazko gozo paregabe, ta atsegin fin gabeaz: zure santutasun, jakintasun, edertasun, ta beste zure gloriako perfekzio guziaz!

Atsegin det, Jauna: ta ordu onean alabatu, ta ama zaitzatala Aingeru, Santu ta Justu guziak; ta are geiago, zeren guztiak baño geiago Ama Birjiña zure Ama maiteak amaten zaituen. Atsegin det, ta nik ere oriek bezala, ta oriekin betiko amatu, ta alabatu nai zaitut.

Ai nere Jaungoikoa! Noiz artean pekatariak ofendituko zaituzte? Noiz munduko kulpak akabatuko dira? Damu det, Jauna, nere pekatu andiaz: baita munduko beste zure ofensa guztiaz ere, Zu zeranagatik, ta Zu añ ona, ta Sartua izanik, pekatuak zure kontrako gaitzik andienak zeren diran. Ez arren, Jauna, geiago: etzaitzala iñork ere geiago Zu ofenditu. Erakartzitzu pekatariitsu guziak zuri argi, zure fede, lege, ta amorio santura, Zu guztiok, ta gauza guzieren gañean ama zaitzagun, ta gure onda-

sun, ta bizitzak galdu milla bider lenago Zu ofenditu baño. Nork guzieren biotzak litukean, Zu guztiakin beti amatzeko! Guziori iguzu zure argia, ta grazia, zure borondate santu gozoa beti egiteko. Au da ditxa guzieren iturri bete: au da guzieren zoriona. Au zure justiziak eskatzen du: au zure miseriakordiak nai du: au da zure ontasunari ondo dagokiena. Ala ordu onean izan dedilla. Jauna: izan bedi, egin bedi, ala biz beti. Amen.

Ta ona, besterik ez tuten, edo ez dakitenentzat Ejerzizio bat, Kristauren obli-gazioa kunplitzeko, al datekean nobleen, ta probetxojoen, fede, esperanza, ta kari-dadean jarduteka.



ONDO KONFESATZEKO EJERZIZIOA

Konfesatzeko gogoia Jainkoak ematean, fabore andi bat egiten dizu. Intenzio ori zuk artzean, zuganonz bereala zure biotzean sartu bear dezu: ta bakartasun orretan pensatu, Sakramentu oietan pekatuetatik Jainkoagana biurtzeko, bear dezula: 1. beraren grazia beti prest dagoena. 2. prestatzeko denbora. 3. Dilijenzia, edo zure ekinia. Jaunari bere ofensa guzieren damu andi bat eskatu bear diozu: ta konzienzia ondo esaminatzeko grazia, esanez.

ORAZIOA

Nere Jaungoiko guziz ona: nere gaitzetatik zugana biurtu nai det. Baña orretako nere pekatuen illuntasun onetan zure argia bear det. Mundu galduaren argi, ta erremedio bakarra Zu zera. Zure miseriak andiatatik, arren, Jauna, nik bear dedan zure argia indazu, nere konzienzia illuneko bazterrak ondo ikusteko, ta nere kulpak, nere animan diran bezala, ezagutzeko. Betor zure grazia, oriek ondo pisatu, ta eskatzen duten damu, ta proposituaz, bear bezala konfesatzeko. Ori, Jauna, deseatzen det: ori erregutzen dizut, ta ala uste det, Jesu Kristo zure Semeagatik. Amen.

AMA BIRJIÑARI, TA SANTUAI, ORAZIOA

Zeruetako Erregiña, Jainkoaren Ama, txit Santa, ta pekatari zugana negarrez datotzen guzieren miseriak Ama: Gurutze aren oñean zure Semearekin nigatik igaro zinduen penak gatie eskatzen dizut, beraren pasio, ta merituz konfesio onetan ni aprobetxatzeko, zure mantupean artu nazazula. San Josef guziz doatsua, Ama, ta Semearen bitarteko nik maiteena: bien artean sar zaite, nere animaren pakeak egiteko. Aingeru, ta Santuak, zuek ere bai: ta nere Aingeru goardako adiskide, ta lagun betikoa, oriekin batean eskua indazu, ta lagun zadazu, Penitenziako Sakramentu au, ta gero Aldareko guziz Santua ondo artzeko presta nadin. Amen.

Jainkoari onela grazia eskatu, ta konzienzia esaminatzeko denbora zure a1detik aldetik erretiroan artu bear dezu: ta pensamentuz, itzez, ta obraz, ta iñori gaitz biderik, edo ejemplo gaiztorik emanaz egin, edo eragin dituzun pekatuak begiratu bear dituzu, edo Mandamentuen kontra zer egin dezun.

Esamen ori soseguz egin, ta esango dezu.

JAINKOARI ESKERRAK EMATEKO ORAZIOA

O Nere Jaungoiko miseriak betea: esker milla nere biotz guzitik zuri, orañ, nik merezi gabe, berriro egin didazun grazia onegatik, ta nere kulpak andiak ezagutzen eman didazun argiatatik. Baña, ai nere animaren Jabe bakarra! Nere burua zure aurrean ikusi, ta zer lotsa dakardan! Orra nere bizimodu gaiztoko biaketik, seme galduaren gisa, nolakoa zugana biurtzen naizan. Ai nere Aita, ta guzieren onena! Zeruko ondasun, ta doaiez beterik zuegan joan ninzan; ta oriek galdu, ta desditzaz beterik zugana biurteen naiz! Ezagutuko ote nazu? Lotsaz, ta damuz desegitiarik ikusi, ta zure oñetan artuko ote nazu? Baña, zer diot, Jauna? Alde guzietatik nere billa bazabiltza, ta besoak zabaldu, ta nere begira bazaude? Milla esker, Aitarik onena, zure ontasun paregabeari. Onez baliatu nai det: berdin zu zera nere erremedio bakarra. Jesu Kristoren amorioagatik, arren indazu nere pekatuak ondo konfesatzeko, ta Zu beti amatzeko grazia. Amen.

IRU KONSIDERAZIO

Konfesatzera joan baño len fede bizi, ta animo andi bat artzeko, ta Sakramentu onetan bear dan frutua ateratzeko, Konfesio guzietan iru gauza ondo konsideratu bear dituzu.

1. Edozeñ Konfesoreren oñetan jartzean, Kalbarioko mendian Jesu-sen gurutzepean arkitzen zerala.

EMENDIK AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

Ai! Ostiral Santuz ni an arkitu baninz, zer negar, zer deadar biotzekoak egingo nituen! Ai nere Salbadore maitea! Zure negar malko, edo odol tanto bat asko da, Jauna, nere pekatu guzieren erremediorako. Oien barkazio osoa indazu; bada orretako zure odol guzia pozik eman zenduen. Ai anima nerea. Zer negar miñak, eta gozoak batean: zer fede, zer lotsa, zer konfianza orduan: zer damu, propositu; ta biziera berriaren egiazko gogoak ordu, ta leku santu artan zuk artuko zinduen?

Bada zure Konfesio bakoitzean kontu au egizu, ta nere kontu, ta beti ondo, ta txit probetxuz konfesatuko zera.



2. Konfesatzera zoazen guzian, federik bizienaz pensezazu, ez Gizon baten, ezpada Jesu Kristoren oñetara zoazela.

AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

Ai Jesus, nere biotzekoa! Baldin Jerusalem zure egunetan bizi izan baninz, edo Zu orañ, orduan bezala, emen agertuko baziña, zure oñetan belauniko jarri, ta nola esango nizuke: Ona, Jauna, pekatariarik galduea. Ni naiz eri, edo gaiso bat gaitzen azpian ondatua; ta Zu zera nere animaren Medikua. Eriak, bere gaitzak Medikuari esan bear diozka. Baña, Ai Jauna! Zer esan al dezaket nik zure aurrean, neronek baño obeto nere gaitza zure begiak badakuste? Nere desdixa, ta kalte guzien berri zuk bakarrik dakizu ondo. Begira, Jauna, zure biotz beraa amoriozko orrez, ta senda nazazu betiko, nere, Medikua bakarria.

Onela, anima nerea, Jesu Kristori esango ziñioke. Bada edozeñ Konfesore, dana dala, ikustean, kontu ori egizu, ta zure fedez ez Gizonari, ezpada Kristori begira zaiozu. Orretako diozu. *Ni pekataria konfesatzen naiz Jainkoari.* Ta nola Jaun onek zure kulpak zuk baño ere Obeto dakizkien, ez lotsarik, ez bildurrik izango dezu: beti ondo konfesatuko zera, ta Sakramentuaren fruitu andia aterako dezu.

3. Konfesio bakoitzean, orañoan, ta guzietan, kontu egizu, iltzeko konfesatzen zerala. Ill bearra, fedeko gauza da: ta konfesio gabe ezpazoz: au, edo beste bat zure atzeneko konfesioa izango da. A! Au atzenekoa ote da? Ai! Ta nork daki, berriz konfesatzeko erarik, edo lekuri izango dedan?

AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

Ai nere biziaren, ta ordu, edo denbora guzien Jabea! Zuk esango baziñit: Zure atzeneko konfesioa au da: iltzeko zorian zaude. bereala ill bear dezu: Edo nere Aingeruak zure partez mandatu au egingo balit: Ea, orañ konfesatu, ta bereala ill bear dezu. Geiago konfesatuko etzera. Jesus milla bider. Adio, esango zenduke: adio mundua: ken, ken ortik, lureko gauzak, kanpora sekulako nere biotzetik. Zoazte emendik munduko anditasun, ondasun, ta atsegin gezurti, orañdañp zoratu, ta galdurik iduki nazutenak: zoazte kanpora betiko nigandik. Ill bear det, zeren Jainkoak ala dion, ta nai duen. Ai, ta zeñ damu dedan lenago, ta obeto ez prestatuaz; ta nere Jainkoa amatu, ta serbitu bearrean, bera ofendituaz! Ai zer damua, Jauna, ta bakarrik zu zeranagatik: ta Zu añ ona izanik, zeren ainbeste bider, ta añ itsuskiro, ta eragabe ofenditu zaitudan. Ai nere pekatuen

diñako damu biotzeko bat, zure amorioagatik nork lukean Ai nere kulpa guziaz dagokien penitentzia, zuk nai dezun bezala, ondo iltzeko, nork egin lezakean!

Onela naiko dezu orduan? Bada kontu ori egizu orañ. *Nere konfesio au bear bada iltzeko, ta nere atzenekoa da. Iltzeko konfesatzera noa: ala ondo dagidan orañ.* Nere kontu, ondo, ta bear dan damu, propositu, konfianza, ta fruitu andiak, konfesio au egingo dezu, baita, bizi bazera, besteak ere, beti iltzeko kontu ori egiten badezu.

Modu onetan, ta Kontriziozko aktu asko egiñaz, konfesorako prestatu bear dezu: pekatuak, Jainkoaren ofensak bezala, ondo pisatze, ta konfideratze onetatik, orien egiatzko damua zure animan jaioko da. Onetan geiena uts egiten da, itsu itsuan bat konfesatzera dijoanean. Au da Ejerzizio, edo ekiera guziz bearra: denbora puska batean, Jainkoaren aurrean, oni gogotik, ondo konfesatzeko, ekin bear diozu.

KONTRIZIOZKO AKTO, EDO AFEKTOAK

Nere Jaungoiko guziz ona! Damu det biotz guztitik, Zu ofendituaz. Damu det, Jauna, ta damu det, Zu zeranagatik: zure ofensa, ta nere kulpa guziaz damu det. Zeren Zu añ ona, ta añ santua zeran, amaten zaitut gauza guzien gañean, ta guziak baño geiago. Zeren Zu nere zeruko Aita maite, ta añ ongillea zeran, Zu ofendituaz damu det propositu firmearekin Zu ez geiago ofenditzeko: ez geiago pekatuak, nere Jaun, ta Jabe ona. Ill milla bider lenago, Zu ofenditu baño.

Afekto onelakoetan, biotzetik egiten badira, dago egiatzko dolore, edo Kontrizioa: ta dolore au bere proposituarekin da Penitentiako Sakramentu, edo Konfesioaren lenengo partea. Kontelatzerako baño len kontriziozko afekto oiek askotan egin bear dituzu: oiek biotza beraatzen, ta berotzen dute: oiek absolutzioa, ta Jainkoaren grazia artzeko anima prestatzen, ta apañtzen dute: ala absolutzioko denboran ere oriek egin zure biotz guztitik: au da bearrena.

Onela prestatu, ta Konfesoarearen oñetara, Jainkoagana bezala, joan bear dezu: an deboziaz belauniko jarri, ta jende asko bada, besteai leku emateko, ta iñori obra gaiztorik ez egiteko, luzaro egonaz denbora galdu gabe, bereala esazu: *Aitarean, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean.* Amen.

Nai badezu Aktu kontriziozko labur bat egin: edo, *Ni pekataria... nere kulpa txit andiaz.* Orretaraño, ta ez geiago esan. Orduan burua jaso, ta zuzen, era onean, ez Konfesoarearen aurrez aurre; ezpada alde batetik aren belarrira jarri, ta zure pekatuak, diran bezala, esan, edo konfesatu bear



dituzu: edo akusatzen ezpadakizu, Konfesoari ondo eranzun. Gero ematen dizun penitentsia, ta edezeñ konseju on, fede, ta errespeto andiaz artu, edo aditu: ta Absoluzio, edo barkazioa artzeko denboran burua makurtu esanaz: *Damu det, Jauna.*

ONDO KOMULGATZEKO EJERZIZIOA

Konfesioa, Jainkoarekin batean, zure modura fede, ta borondate onaz egin ezkeru, Komuniorako ondo prestatzen, zure alegin guzia ipintzu. Beste kezka guziak alde batera utzi, ta zure biotzean sar zaitetz, eta zeruko Mai artan zer egin, edo nor artu bear dezun, txit ondo pensa ezazu.

IRU KONSIDERAZIO

I. Konsideratu, nor datorren Komunioan zugana: Jesu Kristo Gure Jauna, Jainko, ta Gizon egiazkoa, eta bera dan guzia Hostia Santuan dator, ta ematen zatzu.

AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

O Zeruetao Errege, Jaun andi, nere Jesus maitea! Zu, ta nigana zerutik jatxi zera? Au zer da? Nori onelako gauzarik, zure amorioari baizik gogoratuko zitzaion? Izan diteke, ta fedeko egia da, nik, ta Zu, nere Jaun andia, Hostia txiki batean nere biotzean artu bear zaitudala! O Misterio guziz eskutatu, ta guziz miragarria! O amoriozko Sakramentua! Zer egin al dezaket nik, ezpada zure aurrean arritu, humillatu, ta nere biotzeko atea zuri pozik idiki, nere animako ostatu pobre onetan Zu Erregerik andiena artzeko? O zeruaren garbitasuna nork lukean! O Aingeru, ta Santuen Espiritu guzia, ta Ama Birjiña zurearen birtuteak, Zu orañ bear bezala artzeko, nork litukean!

II. Konsideratu, Jaun au norgana datorren. Zugana dator. Ta zu nor zera, edo zer zera? Kulpa, ta pekatuen leku itsusi bat, ta desditzaz alde guzietatik betea.

AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

Nere Jesus maitea! Egia da, ni pekatari galdu bat naizala. Baña, Jauna, Zu zera nere erremedio guzia. Atoz, bada, atoz miserikordia guzien Jabea: ordu onean atoz, zeruko Medikua, ni sendatzera, ta salbatzera: zure osasuna, ta biziera berria nere animari betiko ematera.



III. Kontsideratu ondo, Sakramentu onetan zertara datorren, Zure bearrik ezertako eztuela, amorioz, ta ondasunez bete, ta dator, zuri guzia ematera, eskatu, ta artu nai badituzu.

AFEKTOAK, EDO ORAZIOA

Nere Jabe guziz aberatsa? Zure Ontasun kabu gabeak, ta zure eman naiak enpeñatu, ta erakarri zaitu zerutik lurrera, zure ondasunak zurekin batean niri emateko. O fabore paregabea! Badakizu, Zure diña ez naizala: ta alere orregatik zure amorioak zakarki nigana. Badakizu, zeren premia daudadan: txit bearra nago. Indazu fede bizi bat, esperanza firme, ta Karidade irazaki bat, Zuk naien dituzun beste birtuteakin, Zu nere animan ondo artzeko, ta aurrera obeto amatu, ta serbitzeko.

Komunioa artzeko denboran, fedezko, ta amoriozko afektorik al dituzun bizien, ta beroenak egin bear dituzu. Komulgatzeko lekuan ondo jarrita arako Sazerdoteak barkazio, ta bendizioa Aldarean ematean, zuk ere ori Jaunari biotzeko eskatu bear diozu: Jauna eskuan artzen duenean, Sazerdotearekin batean, iru bider zuk ere esazu.

Jauna, ez naiz ni diña, Zu nere etxean sartzeko; baña asko da zure itz bat, nere anima sendatzeko.

Onela iru bider esan, ta Hostia, edo Forma Santua artzeko, debozio, ta modestiaz geldu geldu egin bear dezu: burua altxatu zuzen, begiak lurrean, edo itxi ta era onean aoa zabaldu, miñgaña piska bat atera, ta orrela komulgatu.

Graziak emateko, Komunioa artu ta bereala leku on batean erara jarri zaite, ta atsegiñaz ez beste gauzari begiratu; ezpada zure Jaun andiarekin bakarrik debozioz, zure barrenean sartu: ta denbora prezioso orretan, zure begiak, beste sentidu, ta alegiñak barrena bildu, ta zure biotzera etorri dan Jesus maiteari eskerrak emateko, esan:

ORAZIOA

Ongi etorri zerala, nere Jaun andi, ta nere guztia. O nolakoa dan zure amorioaren indar paregabea! Nori sekulan gogoratu, Jauna, zuk niri onelako faborea egingo ziñidala? Ai nere Jesus guziz ona! Ezin Jauna, ezin, bear bezala, ni zure diña izan! Ai ta zer etxe, zer ostatu pobrea, nere biotzean artu dezun! Baña Zu zera bakarrik zeruan, ta lurrean, nere guztia, edo nere Jaungoikoa: Zu asko zaitut bakarrik, ta zurekin nago txit aberatsa.

Ea bada atozte barrena, atozte nere begiak, nere eskuak, eta beste sentiduak, atozte guziok, zuen Jabe amoroso oni ongi etorri ematera, ta guziak Jesusen Biotzean, ta beraren antzera santifikatu, ta biziera berri bat

egiteko bear dezutena eskatzera. Zuen guzien erremedioa da bera. Nere memoria, adimentu, ta borondatea, atozte guziok batean, ta betiko zuen Jabea adoratzera, ta alabatzera.

AMA BIRJIÑARI, TA SANTUARI ORAZIOA

Zeruetako Erregiña, Ama Birjiña, Santa Maria, nere Salbadore, ta Jaun andi onen Ama maitea: Zeruko Aingeru, ta Santuak, atozte, nere etxe pobre onetan, zuen Gloria guztia, nerekin batean, nere biotzean adoratzera, ta bedeikatuzera, ta nere uts, edo falta guziak betetzera. O nere biotzeko Jaungoikoa! Zure Santu guziak beti bedeika zaitzatelari niri egin didazun miserikordia, ta fabore onegatik. Ezer eztet, Jauna; Zuk dakizu nere pobrezaren berri: Zuri eskerrak emateko, zer eskeñi, edo agindu ez daukat, ezpada, nere biotz otz, edo ill au. Orra, Jauna, dana. Nik dedan, ta ni naizan guzia zurea da, ta ordu onean izan bedi betiko zurea.

Ai Jauna! Zeñ gauza laburra, zeñ gutxi dan biotz bakar bat, ta ori añ epela, ta ezereza, nola dan nere au! A zeruko Santu, Aingeru, ta Serafin irazaki guzien Espirituak, ta munduan diran, ta al diran guziak nik banitu, zu beti aduratu, ta amatzeko! Guziak nai nikuke, ta diranak, Jauna, zuretzat: Zure amore onez guziak eskeñtzeko, ta eskerrak emateko.

ORAZIO, EDO ESKARIA

Ea zeruko nere Etorkari aberats, ta emalle ugaria. Bada etzera ostatu pobre onetara alferrik allegatu, ta ez utsik nigana etorri; ezpada ondasunez beterik, nere Jaberik onena bezala: Ondo zure beartua nago. Badezu nigan, non zure doaiak ondo enpleatu. Ona, Jauna, zure oñetan, ta begien aurrean nere anima triste bearra: orra nere begiak, miñgaña, eskuak, ta beste sentidu galdu eragabeak: diranak zuk erremediatu, zure bendizioz bete, ta zure antzera egiteko.

Nondik, eskatzen asi eztakit, Jauna. Zuk nere berri obeto dakizu, ta zuri gusto emateko, zer ondoen dagokidan. Zu serbitzeko, Zu amatzeko, zure borondate gozoa nere gauza, ta asnase guzietan beti egiteko, zure grazia indazu, ta orrekin aberats, ta zori onekoa beti izango naiz. Amen.

BESTE ORAZIO, TA ESKARIA

Zeruko ondasun guzien Jabe, eztizut utziko, nere animaren etxe pobre onetatik irteten: eztizut utziko nigandik joaten ni utsa, pobre, ta beartua utzirik. Ez, Jauna, nere ostatu onetatik joango etzera, ni zure bendizioz bete artean, Guzien Jabe zera, ta eskeko guzien Ongillea badezu nigan ondo egin. Orra, Jauna, nere anima lur leorra bezala, zure euri



gozoaren eske, orra ontzi utsa bezala, Zuk graziaz betetzeko. Badakutsu, zure antzeko humildade, pazientzia, karidade, modestia, anima, ta gorputzeko garbitasunaren zer premia andia daukadan: Orien gañean, bada, indazu zure bendizioa, nere biotz au, nere begiak, mingaña, ta beste sentiduak zure gustora zuzendu, ta moldatzeko. Zure Biotz santuagatik biotz berri garbi bat indazu; zure gisa biziera berri bat egiteko, nere alegin guziaz zuri jarraitzeko, zure borondatea, zeñean nere zoriona baitago, orañ lurrean egin, ta gero zeruan beti egiteko. Amen.

Anima Christi, Orazio jakiña, Aita S. Ignaziok Ejerzizioetan usatua, berariaz bezala dator emen.

Jesusen Anima santifika nazazu.

Jesusen Biotza irazaki nazazu.

Jesusen Gorputza salba nazazu.

Jesusen Odola zure onez bete nazazu.

Jesusen Biotzeko ura garbi nazazu.

Jesusen Pasioa senda nazazu.

O Jesus ona! Enzun nazazu.

Zure Llagaen artean gorde nazazu.

Zugandik irteten, utzi ez nazazu.

Etsai gaiztotik libra nazazu.

Nere eriotzako orduan deitu zadazu.

Zugana etortzea agindu zadazu.

Santu guziakin zu alabatzeko.

Sekula guzietan, beti betiko. Amen.

Erarik onena zuretzat, ta besteentzat bear dezun grazia eskatzeko, zure Jaungoikoa biotzean daukazun ordu ditxoso au da. Emen zure Aide, ta adiskide, ta besteentzat naizun guzia eskatzeko lekua, ta denbora. Fede ori bizitu, ta Komunioko ordu prezioso onetan alperrik ez egon. Emen zure erregu, zure eskari, ta proposituak, nai bezala egin, ta berotu biotzean.

Emen kontuak zure Jaunarekin atera, ta ajustatu: zer birtute bearrena dezun, ta zeñ bizio zure agintari, ta etsairik andiena: orren gañean Jainkoari itza emateko, grazia eskatzeko, orren kentra biziro, ta alegiñaz peletzeko. Ta atzeneko puntu au da Jaunak zugandik nai duena, ta Komuniari berari agindu, ta eskatu bear diozuna.

MEZAREN SAKRIFIZIO SANTUA OFREZITZEKO

**ta Meza ondo enzuteko Ejerzizioa,
Eliza Ama Santaren Orazioetatik,
ta San Franzisko Sales gozoaren
deboziotik ateraa**

Mezaren asieran ziiñatu ondo soseguz, ta esazu.

Jauna, ez naz ni diña, ta merezi ez det, zure Aldarera alderatzea; baña nola zure miseriak nakarren, lizenzia indazu, Zu adoratzeko, ta zu ainbeste bider ofendituaz, daukadan damua erakusteko.

Sartuko naiz, bada, Jauna, zure Etxean, ta zure Tenplo, ta Aldare Santuan adoratzeko zaitut. Ona non agintzen dizudan, zure diñako Sakrifizio bat, ta Ofrenda bat, zure begietan ederrena, ta zure Biotzaren gloria, ta atsegiñik andienekoa. *Confiteor Deo*, Sazerdoteak esan, ta zuk ere, *Ni pekataria konfesatzen naiz* guzia, al dezun pekatuen damurik andienaz, esazu; eta gero:

O nere Jauna, ta zure Ontasuna zeñ andia da! Orañdik ere ni zure Santuarioan artzean, ta emen sartzea, ez Zuk niri eragotzean! Zure Justiziaren aurrera, ta oñetara nator; nere kulpen barkazioa eskatzera, biotz guztitik, ta askotan diodala: *Jauna, miseriak niaz, miseriak niaz*.

Au, Sazerdoteak bezala, bederatzi bider, esazu, eta ark *Gloria in excelsis*, dionean, zuk esazu:

Aingeru Santuak, nere Jainkoaren Ontasuna leia gozoaz alabezazute, bada gaur zerutik lurrera jatxi nai du, ta jαιο nere animan, izanik au milla bider ez diñago, bera artzeko, Belengo portale, edo pesebrea baño.

Epistolaren denboran, zuk esazu.

Kriatura guziak beren Jaun, ta Maisuaren aurrean beude ixillik. Atoz, Jauna zu bakarrik, ta Zuk zerorrek itz egidazu, bada zure sierboak enzuten zaitu. Zure Profeten zela indazu, ta zure Apostoloen amorioa, nere barren onetan zure deseoa, ta promes santu guziak kunplituaz.

Ebanjelioaren denboran esazu.

Nere Jaungoikoa: lurreko bizimodu triste onetako kartzelan nagoen artean, gauza bi txit bear ditut: argia, ta janaria. Ez arren, Jauna, oiek niri ukatu. Zure itz, eta dotrinak nere pausoak argi bitza, ta nere bide guzien



argi izan bedi: Zure Gorputz santua nere animaren janari indazu, zerurako falta zadan bidean, desmaiatu ez nadin. Amen.

Kredoaren denboran.

Gauzarik onena da, zuk ere Kredoa esatea, baña txit soseguz ta debozioaz, Apostoloak erakatsi ziguten zeruko dotrina bezala: Kredoa dauden fedeko gauzak sinisten dituzula: ta gero esazu:

Jauna, sinisten det Zuk Eliza Ama santarekin erakasten didazun guzia: indazu, nere obrak fede onekin batean egitea, ta fede onetan bizi, ta iltzea. Amen.

Ofortorioko denboran, esazu.

Jaun guziz altu, ta soberanoa: Zure Semearen Sakrifizio, ta Ofrenda andi au eskentzen dizut, Sazerdotearekin batean: 1. Zure gloria, ta atsegiñik andienarako: 2. Niri, ta mundu guziari zuk egindako benefizioen esker onak emateko: 3. Nere, ta mundu guziaren pekatuen satisfaziorako: 4. Neretzat, eta nere kargu, edo obligazioko guzientzat eskatu bear, ta nai ditudan miserikordia, doai, ta zure grazia guztiak zugandik alkanzatzeko, zure Seme, Gure Jesu Kristo Jaunagatik. Amen.

Ofortoriotik Konsagrazioaraño, San Ambrosioren, ta Elizak erakusten duen urrengo Orazioaz balia zaite, Jainkoarekin ondo tratatu, edo jarduteko, eta amorio, ta humildadezko, bear diran afektoak zure biotzean sentituaz.

Sazerdote andi Gure Jesus ona, gure pekatuen barkaziorako, zure Aitari, Biktima, edo Sakrifizioa bezala ofrezitu ziñana: eta zure Gorputz, ta Odola alimentu bizitzat anima illai ematen diezuna, zuri ezin pagatuko zizkituzten zorrez beteak zeudela: Gorputz, eta Odol, gure Redenzioko prezio onegatik erregutzen dizut, ta zure amorio andi, gurekiko Sakrifizio miragarri onetan agertzen dezunagatik, zure grazia eskatzen dizut, bear dan errespeto, bildur, ta amorio santuaz, Sakramentu onetara ni allegatzeko. Ezagutzen det, zure miserikordia, ta Ontasunak, ez bestek, fabore onen andia egin zezakeala.

Betor, bada, Jauna, nere barren onetara, betor zure Espiritu Santua, nere entendimentua argi dezan, ta nik, Zuk nai, ta agintzen dezun bezala, zure Biotzeko amorio guziaren, ta Fedearen Misterio eskutatu au sinistu dezadan. Zure Espiritu gozo onek nere biotzean itzegin bizat, ta erakutsi, konbeni zadan guzia; zeren zure Sakramentu au gauza guziz eskutatua dan, ta fedearen belo santuaz txit estalia.

Birjiña guzien Erregea, ta Anima garbien koroa: bada biotzeko garbitasuna ainbeste nai dezu: nigan arkitzen dan pekatuen sua, arren itzali, ta illerazo ezazu, ta gaitzaren arrasto, ta inklinazio loi guzia ken nigandik, gorputz, ta anima garbiaz, zure Gorputz Birjinala ar dezadan, ta Birjiñen erregalo, zure ardo gozoa garbiro edan, ta nere biotza garbiago egin dezan.

Ateritzatzu, Jauna, ta sustraietik, zure Fede, Esperanza, ta Karidarearen kontrako nigan diran etsai guziak, ta zure borondatearen neurrian indazkitzu birtute oriek, ta zure antzeko humildade, pazienza, ta nere bizimoduko neke, ta zuk nai dituzun gurutzeak ondo eramateko bear dedan konformidadea, Sakramentu onen birtutez guzian zurekin bat egin nadin.

Ai nere Jesus ona! Au guzia Zuk nai dezu, ta guzien salbaziorako Sakrifizio miragarri au egin, ta zure Aitari agintzen diozu! Bada, ori, bera nik ere nai det, Jauna, ta guziak gatik agintzen dizut, ta eskatzen guzien erremedioa. Bestek iñork ere baño, neronek bearrago det, nigatik guziak erregutzea. Egia da, Jauna: alere zure ontasunak, nik ere erregutzea nai du.

Ea, bada, Salbadore amorosoa: zure begien aurrean ipintzen ditut Eleiza A.S.ren, erri, ta fiel guzien premiak, ta orien erremedio, zure eskue-tan dagoena. Eleizak berak erakutsi, ta orañ Sazerdoteak Mementoetan, bizi, ta illak gatik erregutzen, ta eskatzen dizun guzia, nik ere zure miserikordiari erregutu, ta eskatu nai diot: ori bera, nere Guraso, Senide, aide, ta adiskideenzat, ongille, ta gaizkilleenzat, ta pekatari guzientzat eskatzen dizut, guziak zure graziara biurtu, ta zure Lege, borondate, ta amorio santuan bizi, ta ill gaitean, zeruko glorian Zu beti alabatzeko. Amen.

Ostia altxatzean, esazu:

Adoratzen zaitut, Jesus nere Jauna, Ostia santa orretan. Adoratzen det, Jauna, nere biotz guztiaz zure egiazko Gorputz guziz Sagradua, Guritzearen Aldarean, mundu guzia erredimitzeko diña izan zan Ostia. Nere fede on guziaz sinisten det, Zu, nere Salbadorea egiaz or zaudela. Zure Ontasun, ta miserikordian esperatzen det: eta nere biotz guztitik amatzen zaitut gauza guzien gañean. Amen.

Kaliza altxatzean, esazu:

Adoratzen zaitut, nere Jesus onaren Odol preziosoa, nere amorioz Gurutzean isuria, nere pekatuen mantxak garbitu, ta nere anima salbatzeko. Fede osoaz, zu or zaudela, sinisten det: Odol txit prezioso onetan



esperatzen det, ta zure Ontasunagatik amatzen zaitut, ta nere kulpa guzieren barkazioa eskatzen dizut.

Gero Sazerdotearekin esango dezu.

O nere Jaungoikoa: Bada Zuk agintzen dezu, Sakrifizio, ta Ostia au berau zuri biurtu, ta ofrezitzea: Ala nik ere Eleiza Ama Santarekin, agintzen dizut, zure Seme, gure Salbadorearen Misterio andien memorian, aren Pasio, Eriotza, Resurrekzio, ta zeruetara Aszentsio gloriosoaren erreberenzian.

Zure diñako Ostia au da: Ostia garbia, Ostia santa. Ostia mantxa gabea, gure mantxak kentzeko, gure animak garbitu, ta santifikatzeko. Begira, bada, Jauna, zure Biotzeko Seme maite oni, ta ez niri, ezpada nere biotza trukatzeko, ta beraren artzeko garbi, humill, obediente, deboto, ta guzieren arekin bat nere: egiteko, ta zu beti amatzeko. Amen.

Illel Mementoetan, zuk ere aiek-gatik erregu ezazu.

Pater noster, Sazerdoteak esatean; zuk ere errezezazu; aren Zazpi Eskariak ondo pisatuaz soseguz. *Egimoroko oga* eskatzean, pensezazu ondo, Ostia santa au, ta Komunioa aditzen, ta eskatzen dala emen.

Agnus Dei, Sazerdoteak esatean, zuk esazu: Jainkoaren Bildots, munduko pekatuak kentzen dituzuna, miseriordia nizaz.

Iru bider au esan bear dezu: ta irugarrenean: *Jauna, zure pakea indazu*. Zu bakarrik zera gure pakea, ta gloria bizia. Arren, zure Gorputz santuagatik, nere gaitz, ta peligro guzietatik libra nazazu, ta zure Mandamentu, ta borondateari beti jarraitzeko, ta zugandik ez iñoiz apartzeko grazia indazu. Amen.

Domine, non sum dignus, esatean, zuk ere esazu: Jauna, ez naiz ni diña, zu nere etxean sar zaitzen; baña itz bat esazu, ta nere anima salbatuko da.

Sazerdoteak bezala, iru bider au esazu, ta ura komulgatzean, zu ere espiritualmente, edo deseo santuaz komulga zaitte. Anima debotak emen fedea bizituaz, biotz garbiaz, gogo andi bero bat irazakiaz, Komunio espirituala artzen dute. Zuk ere, bear bezala, zure animan Jesu Kristo artzeko deseoaz, biotzetik esazu:

Nere Jesus, guztia amoriozkoa, borondate ona duten animai zure erregalo au ematera zerutik jatxi zerana: Atoz, Jauna, atoz, ordu onean zerori nere animan, Zu ondo artzeko, bear dedan guztia prestatzera. Ni ez naiz zure Majestadea artzeko diña, ta ez Jarleku zuni dagokizuna. Baña zure graziak estali, ta bete bitza nere faltak: zure begi ederrak ofenditzakean guzia truka beza, ta nere biotza berritu, ta garbituaz alda beza.

Janzi, ta apaindu ezazu, Jauna, anima pobre au zure ondasun, ta birtuteaz, bada nik nerez zure diñako gauza onik batere ez det. Ezaguera osoa idukiko det, guztia zurea dala: eta bakarrik atrebituko naiz, o nere Jainko doai guzieren jabea, ta on guzieren Emallea! zuri eskatzera, nere animatik joan baño len, zuk naienez dezu, ta nik bearren dedan grazia bat eman zadazula, Zu beti nerekin emen lurrean egoteko, ta ni zurekin beti zeruan. Amen.

Bendizioa Sazerdoteak ematean, esazu.

Betor, nere Jauna, zure bendizioa nigana. Bedeika nazazu, ta zure amorioz nere anima Tenplo bizi bat, zuri sekulako konsagratua, egizu, orañ, ta beti zure diñako Jarlekua izan dedin. Amen.

S. Joanen edo atzeneko Ebanjelioan esazu.

O nere Jesus adoragarria! Bada Zu beregan artzen zaituena, zure Ontasunez, zure ume izateraño altxatzen dezu, S. Joan zure Ebanjelista maiteak dionez; arren, Jauna, mesede au niri ere egidazu: ta orretako aragi, ta odolaren, edo gaitzerako inklinazio guzieren kateak zure birtutez urra itzatu, ta Penitenziako Sakramentu, edo nere kulpen Konfesioan berriro zuretzat jaiorik bizimodu santu bat eragidazu, zure amoriozko Eukaristia, edo Komunio sagradura ondo allegatzeko.

Indazu, Jauna, zure argia, testimonioa eman dezadan, nola nere animan egiaz zauden, ta bizi zeran: zure Aldarearen aurrean, al dedan erreberenziarik andienaz egon nadin, ta zurekin bat egiña bezala, zure borondatea beti egin dezadan: Aldareko Sakramentuan zu grazian artu, ta iduki zaitzadan, eta gero betiko goza dezadan zure Gloria, zeña Aita Eternoaren Seme bakarraren Gloria da, ni bere egiaz, ta graziaz betetzeko. Amen.

Orañ modu laburtxo au asko da. Bear dan fede, erreberenzia, ta debozioaz. Sakrifizio andi au ikusteko, emen, edo lenago bear litzake, Meza zer dan, ta Jaunaren Pasioko Misterio, ta Pausoak, nola Mezatan berritzen diran, ta zeremoniak zer esan nai duten, banaka, ta ondo adierazo. Jainkoak nai badu, denboraz ori ere ikusi, ta ikasiko dezu.



JESU KRISTO GURE JAUNAREN BIOTZ GUZIZ SANTUAREN DEBOZIO, TA BEDERATZI URRENA

ZER DAN, EDO ZERTAN DAGOEN DEBOZIO AU ADITZERA EMATEN DA

Gure Jaungoiko gauza guzietan miragarri, ta paregabeak, nola Elei-za santa bere Esposa maiteari zeruko beste Debozio asko lengo denbo-retan agertu diozkan: ala azkenik gure egunetan, Jainkozko Debozio batean, ezti guziak baño gozoago dan Jesus-en Biotzeko Debozia eman dio: eta au gure biotzak beretzeko, edo bere Biotzaz gureak irabazteko. Ta baldin Debozio onen Izena bera onen gozoa bada, orren Izan, edo Izate, ta egiazko Espiritua, batek bere modura ezagutu, bere biotzean artu, ta bere animaz gustatzea, zer izango da?

Badakizu, Jesu Kristok, ta aren gauza guztiak, edozeñ estadu, pau-sotan, edozen misteriotan gure biotzetako erreberenzia, ta amorio guzia beti merezi dutela: Aren Gorputz santuak, aren obrak, pauso, neke, ta penak: Aren Pasioko Aranzak, eta Gurutzeak, ta lenengotik atzeneraño-ko, [...] ziak, gure fede, adorazio, esker onak, ta gure amorioaren beste señale guziak merezi dituztela. Beraz Jesu Kristoren Biotz guziz santu, ta guziz Jainkozkoak gutxiago merezi ezdu, ezpada ori bera, ori guztia. Alere Biotz au, ta Debozio au orren azaletik, eta kanpotik bezala, artu bear ez degu: aragizko Biotz santu orretan gelditu bear ez gera, ezpada ortik barrenago sartu bear gera.

Zeruko Ate eder au Jesu maiteak guri idiki zigun ezkeru, ta Biotz onen barrengo Ondasun añ aundi, nola orañdaño gordeak, gure onerako agertu zituen ezkeru; au nola izan zan, jakin bear degu. Beste Santu, ta Santa askoren artean, bere Biotzeko amorio au, ta Aldareko Sakramentu txit adoragarrian gugandik Jesu Kristok zer nai duen, agertu, ta berari-erakutsi zion Margarita Alacoque zeritzan birtute andiko Erljiosa bene-ragarriari: eta onezaz baliatu, ta Jesusen Konpañiako A. Claudio Colom-biere B.a lenengo zorioneko Diszipulua izan zan: oni Debozio orren gañean Jesus onak Jainkozko mandatu gozo bat gatzigatu zion, eta Jesui-ta andi señalatu au Debozio ori munduari erakusten asi zan.

Gure ditxa andiaz ori guztia Jesu Kristoren amoriozko Misterioan, edo Sakramentu santuan daukagu. Biotz maite orren izenetik, edo Jesu-sen Biotzetik, zeruko Ate idiki batetik bezala, kanpotik barrena; ta azale-tik mamira bezala. Debozio onen barrengo Eskriptura sartu bear gera, Jesu Kristori zenbat zor diogun ezagutzeko. Biotzaren izen gozo onetan Jesus-en Amorio paregabea aditzen da: ta Amorio onen Debozia da Jesusen Biotzaren Debozia bera. Biotz onen guganako Amorio kabu, ta neurri gabe, ezin geiago alako au, al degun bezela ezagutu, ta adoratzea, oni beroni jarraitzea, ta oni gure biotzak betiko ematea, da Debozio onen izate, edo substantzia egiazkoa, onen bizia, anima, ta Espiritu guzia. Zer Debozio santuago, bearrago, ta ederragorik, au baño?

Jesu Kristok Aita Eternoari zion, guri digun betiko amorio Debo-zio onek aditzera ematen digu. Bere Aitari obeditzen, Aitaren borondatea egiten, Aitari ategin ematen, Jesusen bizi guztia beti, ta gauza guzietan izan zan: onetatik, ta onetan bizi zan, onetan zegoen, onetan ari zan, ta onetan zebillen beti Jesus-en amorezko Biotza. Aita Jainkoarekiko amo-rio irazakiak, ta gurekiko amorio beraa urrikalsuak ainbeste milagro andi bere jaiotzatik eriotzaraño eragin ziozkan. Zer Debozio obeagorik?

Badakizu, Amorio onek gugana erakarri, ta gure artean geldierazo zuela. Badakizu, Amorio onek Aldareko Sakramentuan zure amorez kati-bu daukala. Badakizu, Jesusen amorezka Biotzak andik zure biotzera eto-rrri, ta zurekin bere atsegiña iduki nai duela. Nork bestek onelakorik zuga-tik egin du? Ai! Zer amoriozko milagroak! Sakramentu ori Jaun onek egin zuenean, bazekien ondo, pekatari askok, ta gizonen geienak zeñ gaizki pagatuko zioten, ta amorioaren ordean, zer esker gaistoak beren irrebe-renzia, sakrilejio, ta ofensa lotsagarriakin emango, edo biurtuko ziozka-ten. Zer gauza itsusiagorik?

Orañ, bada, esan dan Amorio au barrindik ondo ezagutu, ta pensa-tzea, Jainkoaren aurrean konideratu, ta pisatzea: eta emendik, berez bezala datorren, ta jaiotzen dan eranzuera onaren frutua gogotik zure biotzean artzea: au da, ta ez besterik Jesusen Biotzeko amorio, ta egiazko Debozia. Onen asiera, ta sustraia da amorioa, onen kausa, ta gaia da amorioa: onen bidea da amorioa; onen fin, edo kabua da amorioa; ta onen saria, ta koroa da amorioa. Jesusen Biotza guzia, ta alde guzietatik da amo-rioa: eta Jainkozko amorio santuen, gozoen, garbien, ederren, bearren, ta probetxosoena.

Orretarako gauza bi gugandik Jesu Kristok nai ditu, ta bere gloriara-ko, ta gure onerako eskatzen ditu. Lenengoa. Zeren gure bakoitzaren bio-tzeko Jaungoiko, ta jabea dan; eta gure guztia izan nai duen: *Deus cordis mei*,



& *pars mea Deus in aeternum*: nai du amorioaz amorioa guk pagatzea, ta aren Biotzeko amorioari gureak bere amoriaz eranzutea. zeren Sakramentu miragarri au guri zigun amorioak eragin zion, nai du, zeruko mai soberano orretan bera artzera gu allegatzea; bere amorioaz deitzen, ta agintzen digu: ta Biotz onen deseo, naiera, ta atsegiña da, guk artu, ta gurekin egon, ta gure biotzetan atsedetea, eta amorioz berekin gu lotu, ta betiko unitzea, edo bat egitea. Amoriozko Misterio gozo au guk ezagutu, ondo estimatu, ta gure amorio guztiaz pagatzea, da lenbiziko gauza.

Bigarrena da: Jabe amoroso onen onra, ta amorioari, al degun modu guzian guk begiratzea: Sakramentu adoragarri orretan Jaun aundi oni orañdaño egin zaizkan ofensa, agrabio, ta injuria andi itsusi guziak, ala infiel, ta hereje, nola Katoliko gaistoen artean, gure fede, humiltasun, errespeto, debozio, ta beste Relijioko akto, obsekio, ta señale santuakin desagrabiatu, ta erreparatzea. Jesusen Biotzeko debozio, ta amarioa au da; baña da debozio bat txitez mea, espirituala, ta barrengoa.

Ta nola Jaunaren Pasioko pena, ta tormentu agirian, ta kanpotik bere Gorputzean gure amorioz eraman zituenak, aditzera emateko; Llaga, Gurutze, ta Aranza señaleaz Eleiza baliatzen dan: ala Jesusen Amarioa, ta onegatik bere Espiritu, edo Animan eraman zituen penak aditzera emateko, ta gure begien aurrean presentatzeko, Biotzaren Izenaz, ta Imajiñaz, Amarioaren señale, edo sinbolo egokiaz bezala, gu baliatzen gera.

Jesu Kristoren Pasioko tormentuak onratzeko, Gurutze santuaren, ta Aranza sagraduen debozioa Eleizak arturik dauka, ta orien memorian festak zelebratzen ditu. Salbadorearen bost Llaga preziosoak, nik au eskribitzen dedanean, gaurko egunean, zeña Garizumaren lenengo Ostirala dan, Gure Konpañian debozio andiaz onratzen, ta beneratzen ditugu: orrela bere Gorputz santuan gugatik artu zituen tormentuaz gu oroitze-ko, ta señale agiri oriekin gure begien aurrean, ta biotzen erdian ifintzeko.

Onela, bada, espiritu, fin, eta intenzio onekin, eta ez bestela, Jesusen Biotza, onen Imajiña, ta Izena, aren Biotzeko Amarioaren seña, edo sinbolo bat bezela artzen da; zeren Amarioaren seña, edo sinbolorik egokien, ta berezkoena Biotza dan. Debozio gozo onetan Biotza, ta Amarioa guztia da bat: ta gure espiritu, amorio, ta egiazko deboziorako, ta ez bestela, Biotzaren Izena emen artzen da. Eta gure esaera moldakaitzean, Debozio onen Izena, azala, edo aragizko Biotz santua onen gozoa bada, ta gure amorio guztia merezi badu: Debozio onen barrengo mamia, izana, Espiritua, edo Jesusen Amario guztia, zer izango da: ta zer mereziko eztu?

NOIZ, NON, TA NOLA DEBOZIO AU AGERTU ZAN

Fedeko artikuloa da, Eleiza santaren Burua dala Jesu Kristo: Onen Amarioa dala guziz Jaungoikozkoa: ta beste Debozio guztien artean onen Debozioa da Eguzkia bezela: da Debozio guztien asiera, ta koroa: da guztien Biotza, Anima, ta Espiritua, ta Debozio guztien iturri ugari bat. Berria dirudien Debozio au da berez, ta egiaz Debozio guztien artean anziñako, ta lenengoa: bada jaio zan Jesu Kristoren Biotz amorosotik. Gure esaeran Ostegun santu gabeen gure artean agertu zan: ta Jaun onek biziaren azkenean, paregabeko bere amorioa, bere naiera, ta deseo txit irazakiak erakutsi zituen, ta Amario guztizkoaren Sakramentu miragarria egin zuen, ta gure artean amorioz geratu zan. Ala diote Ebanjelistak. Orduan, bada, bere Eleizari, ta guri Debozio, ta amorio au agertzen Jesus ona asi zan.

Baña nola gure Jaunak Misterio aundi eskutatu guziak batetan, edo beñgoan Eleizari eman, edo agertu ez diozkan, ez bada banaka, bakoitza berak obeto dakien denbora, ta lekuan, eta ori fabore, señale, ta milagro andiakin; ta nola Relijiosoaren Ordena Santuak banaka beren denboretan bialdu, fundatu, ta kanonizatu dituen: ala bere Biotz sagraduaren zeruko Debozio gozo au, len sartu askori, ta era askotan erakutsia, gure denboretan, ditxa andiz, Biotzaren izen eder onekin agertu, ta eman digu.

Larogei urte igaroak dira, Franzian, Paray deritzan Erri batean, bere sierba maite Margarita-ri, fabore, rebelazio, ta promes andiakin, Jaunak bere Debezio au erakutsi, ta munduari publikatzea agindu zion. Beste askotan ere bai, baña beñ batean erakutsi zion bere Biotza, amoriozko su, ta gar ederrez guztia betea, ta gure amorioz irazakia: Biotz onek Gurutzea gañean, Aranzak biribillan, ta Lanzak egin, edo idiki zion Llaga zeuka-tzien: iru señale, edo insijnia oriekin Jesusek bere Biotzeko penak adierat-zotzeko.

Relijiosa oni berak esan zion, nola bere Aldareko Sakramentu artan gure animen amorioz beti irazekia, ta erretzen zegoen; ta orregatik ere zeñ gaizki geienak pagatzen zioten: nola aren amorioari eranzun bearreran, oztasurez beterik, ta zeñ azturik bizi ziran: Gure biotzetako esker gaistoak, ta bere Sakramentuan egiten diozkaten irrebezencia, injuria, ta ofensa lotsagarriak, ta are geiago gaizki bizi, ta komulgatzen diranak. Beste gauza asko esan ziozkan, Margarita-ren Bizitzako Libruan luzaro, ta ederki daudenak.



Esan zion: *Corpus Christi* egunetik bederatzigarren egunean bere Biotzeko Amorio onen Festa, ta egun señalatu andi bat egitea, ta zeiebra- tzea nai zuela: Oktabako zortzi egun aietan, ta urtearen beste denboretan, ta Eleiza guzietan aren Amorioari egiten zaizkan ultraje, ta ofensak erre- paratu, ta erremediatzeko. Erakutsi zion, nolako fede, debozio, onra, ta amoriozko pagua, ta esker onak gure biotzetatik arenak nai, ta eskatzen dituen: zer Ejerzizio, zer birtute, nolako moduan, zer intenziorekin, ta zer finetarako: nola nai zuen bere Biotzaren Antz, edo Imajiña, Margaritak ikusi zuen bezala, ta orañ Aldareetan ikusten ditugun bezala, guk orietan bera adoratzeko, agirian guzienzat ifintzea.

Promes andiak, ta guziz erregalatuak egin ziozkan, Biotz, ta Amorio au ongi ezagutu, barrendik konsideratu, ta Deboziorik gozoen au beren biotzetan artzen zuten fielen fabore: Ta esan dan bezala, Jainkozko Biotz ori adoratzan dutenai, bere Amoriozko bendizio gozo, ta zeruko onda- sun fin gabeak, Jaungoikotasun aren Iturri bizi orretatik beti isuriaz, ta txit ugari emango zieztela. Margaritari esan zion, Debozio au munduari arre- razotzeko bere Konpañiako Jesuitaz baliatu nai zuela, eta promes au ala ikusi, ta kunplitu da, ta Jesuitakin mundu berriraño igaro da. Beste Orde- na santu, ta Relijioak ere txit zelo andiaz onetan lagundu dute.

EUSKALDUNEN JESUSEN BIOTZEKO DEBOZIOA, TA KONGREGAZIOAK

Debozio au Franzian agertu, jaio, edo asi zan; baña gure Españan, esan diteke, azi, anditu, ta zabaldu dala, emengo biotzetan bereala artu zuen geiaz, edo aumentoaz.

Bilboko Uri noblean lenengo, nerekiko, Jesusen Biotzaren Festa au Pulpituan aditzera eman zan, ta gero laster Españan. Euskaldunen artean, Erromako Bulda, ta Induljenziakin, lenengo KONGREGAZIOA, Biz- kaiko Señorioan, Elorrioko Jaun, ta jente noble debotoak fundatu zuen.

Gure Probinzian aurreneko Kongregazioa, Tolosako Erri Nobleak, alde aietako jende guziakin, txit ederki, ta atsegin, ta frutu andiaz artu zuen. Araban, Salbatierrak, ta aren Ergoienetako jende piadosoak ori bera geroago egin zuten. Nafarroan, Maisoakin, ta Libru debotoakin, ta oro- bat Gaztelan txit Kongregazio asko, Probinzia oietan bezala, arrezkero

egin dira: ta aietarako, ta oietarako, Erromako Bulda txit asko nere eskue- tatik etorri dira.

Jainkozko Debozio au, guziz berea bezala, bendizio liberal andiz Jaunak bete du, eta Amorioak egoak emanik, itxaso guziak ere gure Jesui- takin ariñ igaro ditu. Aita Santu Klemente amargarrenetik asi, ta ondo- rengoak, Obispo Jaun, ta beste Eleizako buruak, txit gogotik artu, ta beren Buldetan Fiel guzia eman die, Jesus Sakramentatua egunoro obeto ezagutu, estimatu, amatu, onratu, ta adoratzeko. Ta orretarako dira urren- go mandatuak.

AMORIOZKO BIOTZ ONEN DEIA

Ea, bada, Euskaldunak, gure animetako begi, ta belarriak argi ditza- gun, ta gure biotzetako fede ona bizierazo dezagun, Jesusen keja amoro- soak, ta sentimentuzko deiak aditzeko: oriek aditu, ta ez arren zuen bio- tzak gehiago gortu, gogortu, sortu, ta arritu. Oraño aldian Jaun onek zuekin du. Onen itzketa, edo konbersazioak samintasan, ta nekerik bate- re ez du, ezpada zeruko atsegin, ta poza.

Noiz artean, bada, bere Eskritura sagraduan esaten digu: noiz artean gizasemeak, ta emakumeak: noiz artean orren itsu, ta biotz pisukoak izan- go zerate? Noiz artean, edo zergatik nere egiazko ondasunak utzi, ta bani- dade utsa nai dezute: ta egia utzi, ta gezurra billatzen dezute? Noiz artean orrela erren, edo batera, ta bestera ibilliko zerate? Ni zuen Jauna, zuen Jaungoikoa banaiz, niri jarrai zadazute. Ni zuen Aita banaiz, nere onra non da? Ni zuen Jauna banaiz, nere bildurra non da?

Ni, ni nerau, ta Ni nerez, zuek merezi etzendutela, ta Nik zuen bea- rrik ez nuela ezertako, ezpada zuei on egiteko: Ni zerutik jatxi nintzan. Ni, ez besterik, zuek gatik Gizon egin, ta lurrean jaio, ta agertu nintzan: giza artean jardun nuen, ta bizi izan nintzan. Nik, Gurutzean ill baño len, nere Amorio guztiaren Sakramentu au zuenzat egin nuen, eta munduaren atze- neraño gau, ta egun zuekin emen nago. Nik nere Majestade, aunditasun, ta gloria guzia nerekin daukat zeruan; baña nere gozo, atsegin, ta pozal- dia zuekin daukat lurrean. Nik zuekin egon nai det, ta zuen biotzetan beti bizitzea deseaten det.

Ta orregatik ere zuen biotzak nerearenzat orrelakoa! Orren otzak, orren illak, ta orren guziz nizaz aztuak! Ni zuen amorioz beti Sakramen- tu onetan zuen begira: ta orregatik ere gau, ta egun bakarrik, ta onen



utzia! Ni zuen Bizi egiazkoa, Ni zuen zeruko Argia; Egia, Bidea, ta Atea. Ni zuen Janari gozoa, ta Gloria bizia: eta zuek Nizaz azturik, nere igesi, ta Ni bakarrik utzirik! A, Kristabak! A! Zenbat, eta nolako naigabe, ta sentimendu Biotz maite onek, Eskritura santuan dauzkan esanik? Ta orañ ere zenbat amarezko, ta dolorezko keja Sakramentu orretan zuen kontra iduki, ta eman ditzake?

SENTIMENTU OIEI ONDO ERANZUTEKO BIDEA

Obra gabeko fedea jlla da: obretan dago fedea, obretatik bizi da, ta obrakin bizierazotzen da. Gure fede onak amoriozko obrakin Jesusen Biotzari eranzuteko, birtutezko, ta deboziozko obrak bear dira. Oien artean Ejerzizio zuenzat bearrena, ta zeruko Botikan arkitzen dan erremediorik seguruena da Sakramentuen usuera, edo frekuenzia. Onetan zuen arimak eguroro, ta obeto Jesu Kristo ezagutzen, ta amatzen ikasiko dute: eta Lekzio erraz, ta bear au da Biotz santu orren azken fin, eta frutua.

Lekzio au era onez, ta atsegin andiaz, dakuskun bezala, Kongregazioen Ejerzizio santuetan ikasten da. Jainkoaren Ministro fiel zelosoentzat, ta Kura Jaunen animetako kargu andi, ta pisuaren deskargurako, badirudi, beste arte, medio, edo inbenzio ederragorik ezin idoro zitekeala, Kongregazioetako Ejerzizio oiek baño. Orduerdi bateko Leturan, sentitu gabe, Dotrina andia erakusten da: Konfesio, ta Komunio aren gañean; nola prestatu, nola graziak eman, nola Eleizan egon bear dan: nola etxeko pakea, ume, ta etxekoen aziera, edo krianza ona, eta beste Mandamentu, ta gauza bearrenak Ejerzizio oietan ematen dira.

Nik ez dakit, oiek zer grazia partikular, edo zeruko biska berekin duten; bada, nai ta naiz ez, esan diteke, edo nola ez dakitela, Kristau on guziak Biotz ark beregana dakartzi, ta pozik dijoaz argana: eta Jaun Sakramentua patente, agirian, edo begien aurrean daukatela, asko da aren begirada bat, biotz guziak beregantzeko; eta orduan iñoiz ere baño obeto bere Sakramentutik, Dotrina ematen duen Ministroaren aotik bere bozari birtute aren boza ematen dio; ta amorioaz biotzak mobitzen ditu.

Ejerzizio oiek Jesusen Biotzeko festa nagusian, ta beste Igande edo, Domeka arratsalde batean egin oi dira. Garizuman, Paskoa igaro artean egiten ez dira, zeren orduan Kurak, eta orien lagunak beste Sermoi, ta

Konfesioetan, ta Dotrina erakusten, egiteko asko duten. Baita Garizuma partez, Iñauterikako, edo Aratosteen Igande, edo Domekan Ejerzizioak beti egin bear dira.

JESUSEN BIOTZEKO NOBENA

Kongregazio askotan au egiten da: baño baserrietako Nekazari on, beren izerdiaz jaten ematen digutenak, beren salbazioa Biotz onetan seguratzeko, oriek gatik bederatzi Jaiegunetan egiten da. Eta beste Nobenak ere, orrela bederatzi Jaietan, ta Santuaren eguna baño len egitea, Festa andirako prestatzeko askoz obe da. Lezoko Santuario ondo jakin, ta guziz generatua dago Kongregazio bat, ta Erromako pribilejio andi, edo iru Buldarekin: betiko Induljenzien, betiko Aldare pribilejiatuen, eta San Juan Letrangoaren Agregazioarekin, Jesusen Biotzeko Nobena bat bederatzi Jai egunetan egiten da an, Mezatan, ta Nobenan Sakramentua patente, ta Sto. Kristoa agerturik, solemnidade, ta Majestade txit andiarekin, ta erri askotako jendedi, andi ta guzien debozio, ta konsueloaz.

Bederatziurren onetan egin bear diran gauza señalatuak dira. 1. Egun orietatik batean, al dan deboziorik andienaz konfesatu, ta komulgatzea, urteko falta guziak erremediatzeko, ta Jesusen Biotzari zurea osoro emateko. 2. Egun oietan al dezun guzian Eleizara joan, ta Biotz ori bere Sakramentuan adoratzeta, ta ari lagun egitea. 3. Debozio au bizierazotzeko, Jesusen Biotzeko Libruren bat irakurri, edo enzutea: limosnaren Jaunaren izenean pobrei ematea, ta orrelako beste Nobenetan egiten diran debozioaren seña, edo obrak.

JESUSEN BIOTZARI NOBENA

Sakramentu Santuaren, edo Jesusen Biotzaren Imajiñaren aurrean fede bizi batez jarri, ta biotzeko amorioaz adoratu, ta Debozio au asitzen da: ziñatu, ta Nere Jesu Kristo Jauna, edo Kontriziozko aktua egin, ta egunoroko Orazio modu onetan esaten da.

O gure Jesus maitearen Jainkozko Biotza, zeñean Trinitade guziz Santuak zeruko grazia, ta doai guzien ondasunak gorde zituen! Iguzu, Jauna, zurearen antzeko biotz garbi bat, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure onra, ta gure onerako bada.



LENBIZIKO EGUNEKO ORAZIOA

Jesus-en Biotz Amorio sagraduaren Bizitza gozoa, gure biotzen oztasun, ta leortasunak zure Amorioaz bizierazo nai dutuzuna! Arren gure pekatuen epeltasun guziak irazaki, ta desegin itzatzu, Jauna, gure biotzak zure amorioan beti bizi ditezen. Iguzu grazia, zure Biotzeko Amorioari ordaña, bear bezala, biurtzeko, ta Sakramentu orretan egin zaizkan injuria, ta ofensa guziak, gure alegiñaz desagrabiatzeko: eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure gloriarako, ta gure onerako bada. Amen.

Emen iru Aita gure, iru Abe Maria, ta Gloria, Jesusen Biotzeko pena guzien reberenzian erreztzen dira, Jainkozko Biotz oren Gurutze, Arantza, ta Llaga sagraduaren izenean. Gero Aita Eternoari erregutzen zaio egunoro modu onetan.

EGUNORO ORAZIOA

Aita Eterno. Gure Jaungoiko guziz ona: Jesus zure Seme maitea, ta gure Bide, Egia, ta Bizitza bitarteko artu, ta Zugana gatoz, Jauna. Onen Biotz adoragarriaz Zu ezagaturik, gure biotz guziaz adoratzan, ta amatzen zaitugu, orandaño Zu ezagutu gabez, edo beren borondate gaistoz, adoratzan, ta amatzen etzaituzten guziak gatik. Biotz santu onezaz guzien zorrak pagatu, ta zure diñako ordaña nai dizugu biurtu. Oiekin zure Semearen odol preziosoaz erositako animak eskeñtzen dizkitzugu: eta Biotz maite onegatik diranak Zugana erakarri ditzazula eskatzen dizugu. Gure Jesus ona ezagutu gabe, ez arren, Jauna, iñor munduan utzi. Eragizu, bada, guziak gatik ill zanarenzat guziak bizi ditzala. Biotz onetan gure aide, adilkide, ta ongille guziak enkomendatzen dizkitzugu, ta Zure Espiritu Santuaren doaiez guziak betetzea erregutzen dizugu: Biotz amoroso onen anparoon beti lurrean bizi ditezen, ta Biotz orretan beti Zu alabazten zeruan egon ditezen. Amen.

Emen isillik puska bat bakoitzak bere biotzean orazio egiten du, Jesusen Biotzandik nai duen fabore, edo mesede alkanatzeko; ta bere salbaziorako gaiena konbeni zaiona konfianza guziaz eskatu bear da.

Anima Christi da Debozio, edo orazio A. S. Ignaziok txit usatua, ta Ejerzizioetan agindua. Kongregazioetako Nobenan; ta beste Ejerzizioen azkenean beti egiten da: ta Komunioan Jauna artu, ta biotzetik beti esaiozu onela.

Jesusen Anima santifika nazazu.

Jesusen Biotza irazaki nazazu.

Jesusen Gorputza salba nazazu.

Jesusen Odola graziaz bete nazazu.

Jesusen Biotzeko ura garbi nazazu.

Jesusen Pasioa senda nazazu.

O Jesus ona! Enzun nazazu.

Zure Llaga-en artean gorde nazazu.

Zugandik irteten, utzi ez nazazu.

Etsai gaistotik libra nazazu.

Nere eriotzako orduan deitu zadazu.

Zugana etortzea agindu zadazu.

Santu guziakin zu alabatzeko.

Sekula guzietan, beti, ta betiko. Amen.

Azkenik urrengo Jakulatoria, edo afektoa esazu ta berrogei eguneko Induljenziak irabazten dira, esanaz:

Nere Jesus guziz gozoa! Nik ematen dizut nere biotza zure Biotzeko amoriozko finezen eranzueran, ta berezkiro Aldareko Sakramentuan egin dizkidatzunak gatik.

Gero Sazerdoteak esaten du:

AñA. Inproperium expectabit Cor meum, & miseriam; & sustinui, qui simul contristaretur, & non suat; & qui consolaretur, & non inveni.

V. Discite a me, quia mitis sum, & humilis corde.

R. Et invenietis requiem animabus vestris.

ORATIO

Domine Iesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae, singulari dilectionis beneficio, aperire dignatus es: concede propitius, ut gratijs coelestibus ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda ditari, ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas, &c.

EDO ORI EUSKARAZ ORAZIO ORI BERA

Gure Jesu Kristo Jauna, zure Biotzeko, esan al baño, andiago diran Ondasunak Eleiza zure Esposa maiteari, paregabeko amorioaren onegitez agertu, ta eman dizkatzuna: Iguzu, Jauna, grazia, iturririk gozoen onetatik isurtzen diran doiaz gure biotzak aberasteko, ta Zugan beti atsedeteko. Amen.

AMA BIRJIÑAREN BIOTZARI ORAZIOA

Gure Jaungoiko guziz piadosoa, pekatarien salbazio, ta tristen anparorako Ama Birjiña MARIA gozoaren Biotz garbia, JESUS zure Semearen Jainkozko Biotzaren antz añ andikoa bere maitetasun, ta pie-



dadean, egin zenduena. Iguzu, arren Jauna, Biotzik gozoen, ta maiteen onezaz oroitzen geranak, Jesusen Biotzaren antzekoak beti izan gaiteala. Amen.

Bigarren egunean, ta besteetan orobat Nobena au egiten da guzian, ezpada bigarren Orazio: O Jesusen Biotz, asitzen dana, zeña egunoro banaka aldatzen da, ta da urrengetatik bat, errenka bakoitza bere egunean.

BIGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz maitagarria, ta zeruko Atea, zeñetatik goaz gu Jainkoagana, ta dator bera gugana. Arren onzat ar ezazu, gure amoriozko suspirioenzat Ate au beti idikirik idukitzea, Zugandik zure Aitagana sartu, ta Zu obeto serbitzeko, aren bendizio ugariak ar ditzagun.

* Iguzu grazia, zure Biotzeko amorioari ordaña biurtzeko, ta Sakramentu orretan egin zaizkan ofensa guziak, gure alegiñaz desagrabiatzeko: eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure gloriarako, ta gure onerako bada. Amen.

*Egunorako Orazio au, edo orrelako bakoitza era onetan, * izartxotik asi. ta akabatzen da beti.*

IRUGARREN EGUNeko OTOITZA

O Jesusen Biotz guziz santua, gloriarako bidea, ta ango ur biziaren Iturria. Arren iguzu indarra, zeruko Bide zuzen oni beti garraizkan, ta egiazko birtute, ta debozioaren ur gozoa zugandik edan, ta lurreko gauzen egarria ill dezagun. * Iguzu grazia, &c.

LAUGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz garbia, ta kristalezko ispillua, zeñean txit eder santidade, ta perfekzio guzia agertzen dan. Arren iguzu gure biotzetako argia, bear bezala Zu ikusi, ta gure erregu, obra, gogo, ta itz guziak Zure antzera egiten ikasteko. * Iguzu grazia, &c.

BOSTGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz eztizkoa, ta Trinitade santuaren Organo ederra, zeñak gure obra pobre, ta berez ezer ez diranak, balioso, ta merito andikoak egiten dituen. Zure kontura ar itzatzu, Jauna, gure biotzeko alegiñak, ta borondate guzia: Zuk gure utsak beterik, ondo egiñak, ta zure iritzi onekoak izan ditean. * Iguzu. &c.

SEIGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz zabala, ta Jainkoaren Tenploa, zeñean gure animak beren alegiñ, ta sentiduakin bizi diteala agintzen dezun. Eskerrik asko dizugu, Jauna, Etxe eder onetan arkitzen degun ditxa, ta atsegiñagatik: eta or beti zurekin bizi nai degu. * Iguzu grazia, &c.

ZAZPIGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz beraa, Jainkoaren Pakelekua, zeñagatik Aita Eternoak gure erreguak beti enzungo zituela esanik daukan, dionean: Jesus nere Seme maitearen Biotzagatik eska zadazu: Biotz onegatik adituko zaitut, ta eskatzen dezun guzia emango dizut. Zuk dakizu, Jauna, obeto, guk zer eskatu bear, ta zer frutu Biotz onetatik atera bear degun. * Iguzu grazia. &c.

ZORTZIGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz ederra, Su-gar argizko Tronoa, zure amorioan gu erretzeko beti irazakia. Jainkozko su-gar orietan irazakirik nai degu beti bizi; ta mundu guziak Zu ezagutzea, ta guzien animak zure amorioan erretzera. * Iguzu grazia, &c.

BEDERATZIGARREN EGUNeko ORAZIOA

O Jesusen Biotz guziz doloratua, Itxaso ondo gabekoa, ta pena andiz betea: eta zure Biotzeko Gurutze, Arantza, ta Llagarekin zure amoriozko dolore guziak erakutsi zinduena. Arren, Jauna, gugatik eraman zinduen penai begiratu, ta gure biotz leorak Itxaso orretan bigundu itzatzu, guk ere pena orietan zuri laguntzeko.

Iguzu grazia, zure Biotzeko amorioari ordaña biurtzeko, ta Sakramentu orretan egin zaizkan ofensa guziak gure alegiñaz desagrabiatzeko: eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure gloriarako, ta gure onerako dan bezala. Amen.



JESUSEN BIOTZARI KANTA, EDO ALABANTZAK

*Eztago Zerura
beste biderik,
Jesusen Biotza
bezalakorik.*

Zeruko gloria
grazia egiñik
lurrera etortzen da
Biotz artatik.

Eztago zerura, &c

Aita Eternoa dago
begira goitik,
bere ispillu eder au
ikusteagatik.

Eztago zerura, &c

Espiritu Santu
guzia andik,
Aitak ematen du
Semeagatik.

Eztago zerura, &c

Jaungoikotasuna
dago or jarririk,
Biotz ori trono
eder egiñik.

Eztago zerura, &c

Zerua, ta lurra
daude arriturik,
Biotz eguzki eder
argi orregatik.

Eztago zerura, &c

Birjiña Amak eztu
beste atsegiñik,
Biotz onez baño
andiagorik.

Eztago zerura, &c

Aingeruak daude
zeru guztiatik,
Biotz eder oni
ondo iritzirik.

Eztago zerura, &c

Jesusen Biotza
begiraturik,
gureztat ez dauka,
erruki baizik.

Eztago zerura, &c

Paradisu au dauka
beti zabalik
pekatarienzat
itxi gaberik.

Eztago zerura, &c

Naizute, Kristabak,
sartu bertatik:
zerurako eztago
bide oberik.

Eztago zerura, &c

Ate au idiki, ta
gu artzeagatik
Sakramentu orretan
dago itxirik.

*Eztago zerura, &c*

Gau, ta egun daukagu
beti bakarrik,
jatxi bazagu ere
guri zeruti.

Eztago zerura, &c

Gurutze Santua
dauka gañetik,
arantzak, ta lлага
alde guztitik.

Eztago zerura, &c

Su gar amoroso
dolorezkotik,
konsolatzeko iñor
eztu lagunik.

Eztago zerura, &c

Amorioz, penaz,
dolorez, illik:
nola daukazute,
orren azturik?

Eztago zerura, &c

Beraz eztu izango
alibiorik,
gure biotzak bere
egin gaberik.

Eztago zerura, &c

Fedez, ta amorioz,
gu irabazirik,
Jesus geratzen da
konsolaturik.

Eztago zerura, &c

Ori eskatzen digu
bere Aldaretik:
billa dezagula
gure onagatik.

Eztago zerura, &c

Iges dabilenak
Jesusegandik;
gero eztu izango
zeruko aterik.

Eztago zerura, &c

Eztago munduan
beste Biotzik,
gureak artzeko,
bere parerik.

Eztago zerura, &c

Biotzen Jabea,
ar bitz emendik,
guzien biotzak,
bereagatik.

Eztago zerura, &c

Or iduki bitza
bere aldetik,
zeru eder orretan
ondo gorderik.

Eztago zerura, &c

Adora dezagun
biotz guztitik
Biotz santu ori,
orañ, ta beti.



Eztago zerura, &c

JESUSEN BIOTZARI BESTE KANTA, EDO ALABANZAK

Jesus onaren Biotz maitea,
gauza bat arren indazu:
zugandik inoiz aparta ez nadin,
zuregan artu nazazu.

Ezin du inork esango, Jauna,
eztakiela bidea:
Soldaduaren lanza gogorrak
idi ezkeru atea.

Kanpoko lore guziak baño
ederragoa izanik:
zergatik, nere lore ederra,
zaude arantzaz beterik?

Alde guztitik artzen zaituzte
aranzak, eta gurutzeak:
oiek dirade lur gaisto onek
eman dizkitzu loreak.

Idikirikan zure Biotza,
sartu nai nazu zeruan:
Zeru orretan nai det nik bizi
orduana, eta puntuan.

Sakramentuan katibu daukat,
ai! nere Redentorea!
amorioaz: ezta besterik,
an preso daukan katea.

Santuen gozo, Santuen sari,
Santuen zorion guzia,
Biotz onetan gorderik dago
Santu guzien gloria.

Amorioaz amorioa
pagatzen bada munduan:
zorionean ordaña naizu
nigandik, Sakramentuan.

Pena bat beti idukiko det
len Zu ez ezagutuaz:
atzerapenak aztuko ditut,
aurrera Zu billatuaz.

Orañdaraño ibilli banaiz
Gurutzeagandik igesi:
Gurutze orretan josirik nai det
betiko zurekin bizi.

Egondu bada nere biotza
bizi guztian idikia:
Zu artu, eta idukiko det
beste guzientzat itxia.

Au da, Jabea, ill arteraño
ematen dizudan itza:
au ausi baño lenago, Jauna,
galduko nuke bizitza.



AITA SAN IGNAZIORI BEDERATZIURRUNA

Debozio au ondo egiteko abisoak, eta prestatzeko modua, Jesusen Biotzeko Nobenan arkituko dituzu.

Santuaren Aldare aurrean jarri, edo fede bizi batez Santua zu enzuteko kontsideratu zure aurrean, ta ziñatu, ta *Nere Jesu Kristo Jauna*, &c. esan, ta gero:

EGUNOROKO ORAZIOA

Aita San Ignazio gloriosoa, Jesusen Konpañiaren Fundadorea, ta nere Aita maitea: baldin Jainkoaren gloriarako, zure onrarako, ta nere probetxurako bada, nik alkanzatzea Bederatziurren onetan eskatzen dedan grazia, alkanza zadazu Jaunagandik, ta ezperen nere eskari au zuzen ezazu, ta nere pensamentu, itz, ta obra guziak zure biotzeko deseo guztira, zeña beti zan Jaungoikoaren gloriarik andiena.

I. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Fedeko Misterio sagraduak errebelatu zinduen, ta onra on guzien, ta salbazioaren Zeruko sustraia bezala gure biotzetan jositzea nai dezuna. Nik ofrezitzen dizut, Aita San Ignazioren birtute guzien artean, aren Fede argi, ta bizia, zeñaz, Libru Santu guziak galduko baziran ere, diran zure Misterio guziak. Santuak sinistuko zituen, ta mundu guztiari zure Fede, ta Legea erakutsi nai zion. Arren indazu, Jauna, zure Legeko gauzak ondo jakin, ta sinisteko, ta obeto gordetzeko bear dedan grazia, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

Emen, Trinidad guziz Santari Aita San Ignaziok zion amorioaren reberenzian, iru Pater noster, iru Abe Maria, ta Gloria, errezatzen dira: eta gero

EGUNOROKO ORAZIOA

Aita San Ignazio, Santu andia, Jesus Zeruko Erregeak bere Konpañiaren Kapitana egin zinduen, ta kargu onek eskatzen dituen, Aingeru guzien birtuteaz, bere gloriarako, bear zan bezala, janzi, ta apaindu zinduen. Txit atsegin det, nere Santu maitea, zure animako birtute, esan al baño andiagoen, edertasun, ta gloriar, ta deseaten det, mundu guziak zu ondo ezagutu, ta amatzea. Ta orregatik, arren alkanzadazu Jaunagandik,

zure birtutea jarraitzeko; ta zuk bezala, Jainkoaren Legea, nere estaduan ondo gordetzeko grazia: zu bitarteko zaitudala, Ama Birjiñaren anparoen, ta Jesus guziz gozoaren Biotzean, berak nai duenean, eriotza on bat logratzeko: ta Bederatziurren onetan eskatzen dizudan faborea, Jainkoaren gloriarik andienerako baldin bada. Amen.

Emen fede, ta konfianza al dezun andienaz Santuari, nai dezuna, eska zaizu: ta gero esan:

EGUNOROKO SANTUAREN ORAZIOA

Nere Jaungoiko guziz miserikordioso, eta emallea. Bada ni naizan, ta dedan guztia zugandik det: esker onekoa nolerebait izan nai det: eta A. S. Ignaziok bere biotzean, ta aoan beti zeukan ofrenda onekin, zuk eman didazun guztia biurtu, ta zuri konsagratu nai dizut: *Ar ezazu, bada Jauna, nere libertadea, nere memoria, entendimentu, ta borondatea. Nik dedan, ta naizan guztia, zure Majestadeagandik artu det: guztia nere Jauna, zure borondateari biurtzen, ta konsagratzen diot, onek gauza guzietan zuzendu, ta goberna nazan. Zure betiko amorioa, zure grazioarekin, indazu, Jauna: eta onekin bakarrik aberats, ta kontentu nago, ta besteren bearririk ez det.*

Orazio laburtxo au A. S. Ignaziok egin oi zuen, ta besteai eragiten zien; eta Konsagraziooko aktu andi bat da, Jainkoari, dan guztia batek emateko, ta txit probetxu andikoa.

AÑA. Similabo cum viro sapient: qui edificavit domum suam supra pretram.

V. Amavit eum Deniuus, & ornavit eum.

R. Stolan gloria induit eum.

Deus, qui ad maiorem tui Nominis gloriam propagandam novo per Beatum Ignatium subsidio militantem Ecclesiam roborasti: concede, ut eius auxilio, & imitatione certantes int erris, coronari eum ipso mereamur in Coelis.

Bigarren egunean, ta besteetan orobat guztia egiten da, ezpada bigarren Orazioa, eta da urrengoetatik bat.

BIGARREN EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure esperanza zure adiskideai munduko ondasun guziak, ta ezeren falta gabe, bear zuten guztia promestu, ta agindu ziñiestena. Nik ofretzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren Esperanza guztiko firme, zuga zeukana, zeña, munduko persekuziorik andienetan aren biotzeko aingura segurua beti izan zan. Arren indazu, Jauna, nere salbazioaren Esperanza andi bat, zure grazian ondo egiñikako nere obra onetan seguratua, ta nere estaduan, zu obeto serbi-



tzeko, bear ditudan ondasunak: eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudan grazia, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen

III. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Amorio santua guziori hainbeste agindu ziñiguna, zure Mandamenturik andien, ta bearrena bezala, Zu gure biotz, ta anima, ta indar guztiaz amatzeko. Nik ofrezitzen dizut A.S. Ignazioren birtute guzien artean, aren zurekiko amorio txitez irazakia, Serafin baten gisan Santua erretzen zuena, ta Zerura joatea baño ere, Zu obeto serbitzea naierazo ziona. Arren indazu, Jauna, zure amorio santu orren txingar bat, Zu nere biotz guztitik, ta gauza guzien gañean orañ, ta beti amatzeko, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

IV. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, gure Lagun urkoen karidade, ta amorioa, zure Eskolako diszipulo, ta adiskideen señale ziertoa bezala, eman, ta agindu diguzuna, ta zureak nor diran, onetan ezagungo dala, diozuna. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren Karidade guztiz bero, ta andia, munduko guziak zure amoriozko garretan erretzen ikusi nai zituena, animak salbatzeko ainbeste egin, ta sufritzen zuela. Arren indazu, Jauna, Santuaren antzeko karidade egiazkoa, nere itz eta ejenploaz, animen salbaziorako alegin guzia zure amorioz egiteko; eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudan faborea, zure gloria, Santuaren onra, ta nere onerako baldin bada. Amen.

V. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Pazienzian, dotrina, ta ejenploetan, bizi-tza onetako trabajuetan, zure Gurutze Santaren, ta gure Zerurako bide erreala bezala erakutsi ziñiguna. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren Paziencia miragarria, zure amorioz ainbeste kartzela, katea, ta persekuzio añ pozik eramateko, non ta zion, mundu guziak zituen kateak baño geiago zugatik eraman nai zitueta. Arren indazu, Jauna, zure espiritu, ta indarra, nere bizitzako, zuk nai dituzun neke, ta pena, pobreza, ta gurutzeak ondo eramateko, oriekin zure ondoren, zeruko eskala bat egin dezadan; eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudan mesedea, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

VI. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure amorioz, Orazioaren Zeruko Ejerzizioa zure bizitzan erakutsi ziñiguna, lurrean guk Zeruko bizia egiteko, eta andik bear degun guzia erregutuaz erakartzeko. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren Zeruko, ta betiko Orazioaren Ejerzizio, zugandik añ ederki ikasi, ta mundu guziari erakutsi ziona. Arren indazu, Jauna, gauzarik onen, ta bearren au, zeña dan, Zu biotzeko Erreguaz billatzea, ta arkitzea, ta Zuri beti, bear dedana, Orazioan ondo eskatzea, ta Bederatziurren onetan deseatzten dedana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

VII. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure biziko pauso, ta eriotzako pena, pena, ta tormentuetan, nere pekatuen penitentzia egiten, ta nere bizioak mortifikatzten erakutsi ziñidana. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren arrigarrizko penitentzia, ta pasio guziari gerra bizia egiteko espiritu, ta balentia. Arren indazu, Jauna, nere kulpa andiai dagokien egiazko penitentzia egiteko espiritua, ta zure graziaz nere bizioak mortifikatu, ta erremediatzeko bear dedan indarra, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

VIII. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, munduan jaio ziñanetik Gurutzean ill arteraño Obedienzia mundu guziari erakutsi ziñiona. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean aren Obedienzia añ guztizkoa, non ta bere burua, ta bere Konpañia guzia zure Erromako Bikarioan konsagratu zizun, Obedienziaz guzian, ta beti zure borondatea obeto egiteko. Arren indazu, Jauna, nik ori bera, Santuak bezala egiteko, bear dedan espiritua, ta nere burua ukatu, ta zure borondare gozoa egiteko grazia, baita ere Bederatziurren onetan eskatzen dedana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

IX. EGUNEKO ORAZIOA

Nere Jesus guziz ona, zure Ama guziz Santa, San Juan Diszipulo maiteari enkomendatu, ta zure, ta gure Amarik onena, onratzen, serbitzen, ta amaten erakutsi ziñiguna. Nik ofrezitzen dizut A. S. Ignazioren birtute guzien artean, aren biotz guztiko Ama Birjiña zure Amarekiko



debozio, ta amorio paregabea, zeñarekin Ejerzizioak eskribitzeko Zeruko Maestra au merezi izan zuen. Arren, indazu, Jauna, zure Amaren egiazko debozio, ta amorio, Zerurako eskojituen señaile dana, nik Zu, ta bera orañ, ta beti biotz guztitik amatzeko, ta Bederatziurren onetan eskatzen dizudana, zure gloriarako, Santuaren onrarako, ta nere onerako baldin bada. Amen.

SAN FRANZISKO XABIERREN BEDERATZIURENA

Santu onen Debozioa bere bederatzi egunetako, nola amar Ostirale-takoa Induljenzia andiak in Aita Santu Klemente Amabigarrenak onratu zuen. Debozio au, Nobenako era onetan gurekiko da guzien artean lenen, edo aurrenekoa: ta bearbada Euskarazko Nobenen artean lendabizikoa. Nobena onetan, bestetan bezala, dira abiso, ta egin bear diran obra onak: konfesatzea, ta komulgatzea, egunoro Meza enzun, ta beste orrelakoak: eta lenengo euskaraz egintzan bezala, era onetan egin dezakezu. Santuaren aurrean ziñatu, ta egizu

AKTU KONTRIZIOKOA

Nere Jesu Kristo Jauna, Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa, nere Kriadore, ta Redentorea: Zu zeranagatik, ta zeren amatzen zaitudan gauza guzien gañean: damu det, Jauna, damu det biotz guztitik Zu ofendituaz, propo-situ firmearekin, ez geiago Zu ofenditzeko, pekatuaren okasio guzietatik apartatzeko, konfesatzeko, ta ematen zadan penitenzia kumpiltzeko. Eskeñtzen dizkizut nere bizitza, obrak, ta nekeak nere pekatuen satisfazioan. Nola erregutzen dizudan, ala konfiatzen det zure miseriordia fin gabea, zure odol prezioso, pasio, ta eriotzagatik barkatuko dizkidatzula, ta emango didazula grazia ondo bizitzeko eriotzako orduraño, ta betiko. Amen.

SANTUARI EGUNOROKO ORAZIOA

San Franzisko Xabier glorioso, Indietako Apostola: Jainkoaren gloriarako, ta zure onrarako bada, guk iristea nai deguna, ta Bederatziurren onetan eskatzen deguna alkanza zaguzu Jaunagandik grazia au: ta ezperen gure eskaria zuzen ezazu, ta eska zaiozu guretzat ondoen dago-kiguna, beraren gloriarako, ta gure animen probetxurako.

LENENGO EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Aingeru guzien Jauna, zeñai gizonak gordetzea agintzen diezun: eskeñtzen dizkizugu Espiritu Soberano oien merezimentuak, ta zure Serbitzari San Franzisko Xabierrenak, zeña bere garbitasunagatik aingerutzat iduki izan zan, ta zeren Aingeruak bezala, gorputz, ta animako peligro askotatik gizonak gordetzen zituen. Arren iguzu zure Aposto-



lo santuari eman ziñion anima, ta gorputzeko garbitasuna, baita ere Bederatziurren onetan eskatzen dizugun grazia, zure onra, ta gloriarako. Amen.

Emen iru Pater noster, ta iru Abe Maria errezatzen dira, ta gero urrengo

EGUNOROKO ORAZIOA

Aita San Franzisko Xabier Santu guziz andia, aur txikien aotik zure alabantzak ateratzen dituzuna: Jesusen odol preziosoagatik, ta Birjiña Maria Jainkoaren Ama santaren Sortze garbiagatik, zure karidade andiari erregutzen diogu, Jaunagandik akantza diezagun, gure eriotzako ordua datorrenean, gure biotza beregandu dedilla, ta munduko gauzetatik alde egin dezala, beraren amorio irazaki batera, ta Zeruko bidera: orañdaño gaizki erabilli gaituzten gauzak utzirik, alegin guziaz billa dezagun, ta osoro arki dezagun gauza bakar, ta bear ura, zeña dan ondo illtzea, eta pakean atsedetea Ama Birjiñaren anparoan, Jesus bere Seme bedeikatua- ren Biotzean, ta gure Jaungoikoaren laztan guziz gozoan, ta zure presen- zian, zeñen erreguz grazia au uste degun. Baña Jainkoak gu bizitzea nai duen artean, eske gaude, gure Bitarteko txit maitea, erregu zaiozula, bizi gaitean gu, ill bear degunak bezala, zure birtuteai jarraituaz, ta gure Jau- naren borondatea beti egiñaz, emengo eriotza Zeruko biziaren atea izan dedin: eta azkenik alkantza zaguzu Bederatziurren onetan eskatzen dizu- guna, Jainkoaren gloriarako, ta gure onerako bada. Amen.

Orañ bakoitzak bere konfianza, alegin guziaz, pizturik Santuari eskatuko dio nai duen mesede, edo faborea. Gero Santuari ori obeto eragiteko, esaten da San Franziseo Xabier-ek berak Jentil-en konbersioagatik egunoro egiten zuen orazioa.

Aita Eterno, Gure Jainko, gauza guzien Egillea: Oroi zaitetz, Zuk bakarrik infielen animak ezerezetik zure antzera egin ziñituela. Begira, Jauna, nola zure desonran bezala, infernua oriezaz betetzen dan. Akorda zaitz Jesu Kristo zure Semeaz, aiek gatik bere odola emanik ill zanaz. Ez, arren, Jauna, utzi, zure Semea; ta gure Jauna infielen artean geiagoren geiago ofenditua izan dedilla ezpada zure Santuen, ta Eleiza zure Semea- ren Esposa bedeikatuaren erreguz bigundurik, zure miseriak oroi zaitetz, ta gaistoen usuera, ta idolatriaz azturik, ezagu-erazo zaiezu Zu bial- du zenduen Seme Jesu Kristo, zeña dan gure osasuna, ta betiko bizia, zeñagatik libratzen, ta salbatzen geran; berari gloria sekula guzietan. Amen.

AÑA. Hic vir despiciens mundum, & terrena triumphans, divitia coelo condi- dit ore manu.

V. Justum deduxit Dominus per vias rectas.

R. Et ostendit illi Regnum Dei.

OREMUS

Deus, qui Indiarum gentes B. Francisci Xaverij praedicatione, & miraculis Ecclesiae tuae aggregare voluisti: concede propitius, ut cuius gloriosa merita veneramus virtutum quoque imitemur exempla. Per Dominum nostrum.

Bigarren egunean, ta besteetan orobat egiten da Nobena au, ezpada bigarren Orazioa, zeña da urrengoetatik bat.

II. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko, Arkanjel guzien Jauna, zeñai zure gloriarako, ta gure onerako egitekorik andienak agintzen dieztezun: eskintzen dizkitzugu Espiritu eragille oien merezimentuak, ta zure serbitzari S. Franzisko Xabier-enak, zeña egintzenduen zure gloriarako, ta anima askoren salba- ziorako Mandatari. Arren iguzu grazia, zure borondate santuak agintzen dizkigun gauza guziak ondo egiteko, baita ere Bederatziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure onra, ta gloriarako bada. Amen.

Iru Pater noster, ta iru Abe Maria, ta beste guzia, lenengo egunean bezala.

III. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Prinzipadu guzien Jauna; zeñak beste Aingeruakin batean, argituaz, erakutsiaz, eta aginduaz, gure onari begiratzen diote, Zuk agintzen diezun bezala: eskiñtzen dizkitzugu Espiritu zeloso oien merezimentuak, eta zure serbitzari San Franzisko Xabier-enak, zeñak berez, ta bere Dizipulo, ta lagunakin, Aingeruak bezala, argitu, ta konber- titu zituen Erreino asko, ta orietan guziz anima asko. Arren iguzu, Apos- tolo Santu onek animen salbaziorako iduki zuen zelo, ta Egarria, ta Bede- ratziurren onetan eskatzen dizugun grazia, zure onra, ta glozia andienera- ko. Amen.

IV. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Potestade guzien Jauna, zeñai emn ziñien demonioak lotutzeko esku andia; eskeñtzen dizkitzugu Espiritu guziz poderoso oien merezimentuak, eta zure serbitzari S. Franzisko Xabier-enak, zeñek zeu- kan gorpuz, ta animetatik demonioak ateratzeko indar paregabea. Arren iguzu zure grazia, gure etsaien tentazio guziak garaitzeko, eta Bederatziu- rren onetan eskatzen dizugun faborea, zure onra, ta gloria andienerako. Amen.



V. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko, Birtute guzien Jauna, zeñakin egiten dituzun zuri dagozkizun mirari guziz andiak: eskeñtzen dizkitzugu Espiritu miragarri oien merezimentuak, eta zure serbitzari San Franzisko Xabier-enak, zeña egintzenden Miragille berri bat, Apostoloen señaile, ta milagroak berri-tuaz, jende berri askori zure Legea erakusteko. Arren iguzu Santu onen humildadea, zeñarekin ainbeste milagroren artean billatzen zuen bakarrik zure onra, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun grazia zure gloria andienerako. Amen.

VI. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Dominazio guzien Jauna, zeñak beste Aingeru, zu Pro-bidenciaren Ministro guzien aurretik dauden, berak zure borondetari sujetatzen dirala, ta ori egiteko beti prest daudela: eskentzen dizkitzugu Espiritu andi oien meritoak, eta zure serbitzari San Franzisko Xabier-enak, zeña askoren agintari izanik, zegoen beti zure ordekoen bean, aie-tata zure Majestadeari begiratuaz, eta aien aginde, ta esanak beti egiñaz.. Arren iguzu grazia zure ordeko guziaz, zuri bezala, obeditzeko, eta Bede-ratziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure onra, ta gloriarako. Amen.

VII. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Trono guzien Jauna, zeñetan zauden zure gloriako trono, ta zure Majestadearen jarlekuan bezala: eskeñtzen dizkitzugu Espi-ritu guziz altu oien merezimentuak, eta San Franzisko Xabier, zure glo-riaren trono, ta zure Izen santua jende askori eramateko ontzi ditxoso eskojituarenak, zeñak munduko gauzak utzi, ta bere burua ukatu zuen, Zu bakarrik bere biotzean artzeagatik. Arren iguzu grazia zugatik munduko gauza guziak utzitzeko, ta zugan bakarrik atsedeteko; eta Bederatziurren onetan eskatzen dizugun mesedea, zure onra, ta gloria andienerako. Amen.

VIII. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko Kerubin guzien Jauna, zeñak jakintasun guziz aundiaz apaindurik dauden: eskertzen dizkitzugu Espiritu jakinsu oien merituak, ta zure serbitzari S. Franzisko Xabier-enak, zeña jantzi, ta betezen duen jakintasun miragarriaz, ta zure misterio eskutatuak erakutsi ziñiozkan, berak anima askori zure fede, ta legea agerteko. Arren iguzu zure bildur

santua, ta jakintasun egiazkoa dana, eta gure ejemplo, ta itzaz besteai guk zure legea gordetzen erakatea, eta Bederatziurren onetan eskatzen dizu-gun faborea, zure onra, ta gloriarako. Amen.

IX. EGUNEKO ORAZIOA

Gure Jainko, Serafin guzien Jauna, zeñak amorio txitez irazakiaz amatzen zaituzten: eskeñtzen dizkitzugu Espiritu zure amorioz bete oien merezimentuak, eta San Franzisko Xabier, Serafin baten gisa zure amo-rioan irazakiarenak, zeñak benzitu zituen, ezin esan alako nekeak, ta bizia-ren peligroak, Zu amatzeagatik, ta ezagutu gabez ofenditzen zinduztenak Zu ama zinzaten. Arren iguzu grazia, amatzeko Zu gure Jainko, ta Jaun bakarra, eta al ditugun guziak zure amoriora erakartzeko: baita ere Bede-ratziurren onetan eskatzen dizugun faborea, zure gloriarako. Amen.



BOST ALDAREAK BISITATZEKO, ETA INDULJENZIAK IRABAZTEKO

ORAZIOA

Gure Jaungoiko, ta miserikordiazko Aita, zure Semearen ondasune-tatik, gure anima pobreak, induljenzia, edo pekatuen barkazioaz, zure adiskide aberats egiten dituzuna. Gure kulpen satisfazioan, ta Purgatorio-ko animen Sufrajian, gauz diran Buldaren induljenzia irabazteko, bost Aldaren orazio au eskeñtzen dizugu. zure borondateak eskatzen duen bezala, ta Jesu Kristo zure Semearen intenzio, ta amorioaz batean. Ta ondasun oriek irabazteko, zure ontasunari erregutzen diogu, , Elizama Santaren estadu ditzosoagatik begira dezala, zure fea Mundu guziari ager-tuaz, Prinzipe Kristau guziaz beren arteko pakea emanaz, herejiak, ta infielen indarrak desegñiaz: zure Seme Jesu Kristo, gure Jaunagatik, zeñe-ri zurekin, ta Espiritu Santuarekin batean betiko gloria, Amen.

Orazio au esan, ta bakarrik Aldareak bisitatzen badituzu, bakoitzean edolarik Pater noster bi, Abe Mari bi, ta Gloria bi esan izazu.

Goizean, eguerdian, ta arrasean iru Abe Mariak belauriko errezatu, ta Induljenzia irabazteko, Latinez Eleizak esaten duena, euskeraz bakoiz-zak esan dezake modu onetan.

I. *Angelus Domini*, &c Aingeruak Maria Birjiñari berri onak eman, ta Espiritu Santuaren graziaz, Semea bere sabelean artu zuen. Abe Maria.

II. *Ecce Ancilla Domini*, &c Ona Jaunaren Esklaba: zure itzaz batean, egin bedi nigan. Abe Maria, &c.

III. *Et Verbum Caro*, &c Jainkoaren Semea Gizon egin zan, ta gure artean bizitu zan. Abe Maria, &c.

Jainkoaren Ama Santa Erregu ezazu gugatik Kristoren promesen diña egin gaitean.

ORAZIOA

Iguzu arren, Jauna, gure animetan zure grazia, Aingeruak berri onak ekarri, ta Kristo zure Semearen Enkarnazioa ezagutu degunok, aren Pasio, ta Gurutzeagatik, Resurrezioko gloriara eramank izan gaitean. Amen.

JESU KRISTO GURE JAUNAREN PASIOA EUSKARAZKO BERSOETAN

**Jesusen beraren Biotz Maitesuari
Biotzarekin batera ofrendazen dio
A.S. Ignazio Loiolakoaren Seme**

*Emezortzigarren bersoa
Pauso bakoitzaren ondoren
berriro esan diteke*

Jesu Kristori kendu ezker
Bekatuakin bizitza,
Baldin ezpadet negar egiten,
Arrizkoa det biotza:
Guziok lagun,
Kanta dezagun
Bere penazko eriotza.

Mundua baño lenagotikan
Señalaturiko eguna
Alderatu zan obratzekotzat,
Gizonaren osasuna;
Argia bera
Alde batera,
Besterik egun illuna.

Ostegun Santu afal ondoan,
Bere lagun zituela
Jesusek iru Diszipuluak,
Itz egin zien onela:
Triste nago, ta
Lo ori bota,
Egizute emen gaubela.

Jetsemaniko Hortu santuan
Auspaz lurtean jarririk



Eskatzen zion, libra zezala
Aitari, Kaliza artatik:
Jesus penatzen,
Odolez ustzen,
Eta ez tet nik negarrik?

Izerdi otza arpegian, ta
Biotza penen artean,
Triste anima, gorpuza larri
Agoniako tranzean;
Baña ala ere
Zegoan firme
Aitaren borondatean.

Juduak Judas lagun arturik,
Etorri ziran iarunzen
Nazarenoa deritzan Jesus
Emen ote da arkitzen?
Judas orduan
Bake moduan
Dijoa musu ematen.

Zenbat dirade Judas bezela
Kristoren adiskideak,
Kanpotik laztan, barrendik saldu
Autsirik bere legeak?
Ha Kristau falso
Animo gaizto
Bekatari traidoreak!

Eranzun zuen Jesus maiteak:
Zeiñen billa zatozte ona?
Ona emen nago, ezta besterik
Naiko dezuten gizona:
Juateko ez tet nik
Soka bearrik,
Ez eldu lagunok gana.

Eskuetatik lotu izan zuten
Guzioen libertadea,
Zergatik au zan nere onean
Jaunaren borondatea,
Ala urratzeko
Anbat urteko
Bekatuaren katea.

Diszipuloak, beren Maisua
Zutenean ala ikusi
Bakar bakarrik bera utzi ta,
Juan zitzaizkan igesi:
Pedro zetorren
Bere ondoren,
Bañan au ere urruti.

Badaramate Jerusalemgo
Sazerdoten aurrera,
Diszipuluen gañean, eta
Doktrinan kontu artzera:
Kaifas gaiztoa
Aurrenekoa
Asten zaio itaunzera.

Ez tek nik, dio Redentoreak,
Predikatu ezkutuan,
Ageri zan nere doktrina
Sinagogan, ta Tenploan:
Ez niri galde,
Asko dirade
Enzun nautenak munduan.

Respuesta aditu zuen bezela
Soldadu batek bertari
Gora darama bere besoa,
Eta dirauko Jaunari:
Ikas dezazun,
Nola eranzun
Berriz Pontifizeari.



Esan, ta egin ematen dio
 Bere arpegi ederrean
 Belarrondoko portitz bat, zeñek
 Ezarri zuen lurrean:
 Eta Zeruak
 Daude lotuak
 Au ikusten dutenean?

Noizko dirade, Aita Eternoa,
 Tximistak, eta arraioak,
 Ez erretzeko an bereala
 Esku ain sakrilegoak?
 Aingeruak, ea,
 Atozte, ega,
 Non dituzute egoak?

Baldin nik gaizki itz egin badet,
 Errazoe eman ezazu;
 Bañan ezpadet, dio Jesusek,
 Ezertan ere erratu,
 Zergatik arren,
 Itz egin arren
 Onela tratatzen nazu?

Indazu Jesus biotzekoa,
 Zeure sufrimentu ori,
 Jakin dezadan, nola penetan
 Emango dedan arpegi,
 Barkaturikan
 Biotzetikan
 Etsairik andienari.

Damu det Jauna, biotz guzitik
 Zu ofenditu izana,
 Ez ez geiago bekaturikan
 Nere Jaungoiko laztana,
 Lar da kulparik,
 Beto argatik
 Pena oriek nigana.

Sua zegoan eskapean, ta
 Pedro su artan berotzen,
 Zerren biotzak amodioan
 Otz asko zion sentitzen:
 Su arren keak
 Bere begiak
 Negarrez bete zituen.

Zerren ollarrak etzuen eman
 Bi bider bere soñua
 Non iru aldiz ukatu zuen
 San Pedrok bere Maisua:
 Ezta besterik
 Okasiotik
 Ateratzen dan pagua.

Kaifasek berriz galdetzen dio,
 Eginik juramentua,
 Esan zadazu, Jesus, bazera
 Mesias prometitua,
 Ala ezpada,
 Zertako izan da
 Engañatzea mundua?

Baziakian Jesusek nora
 Zijoan konfesioa;
 Billatzen zuen kondenatzeko
 Kaifasek okasioa,
 Eta arekin
 Nai zion egin
 Iltzeko akusazioa.

Ala ere baietz eranzuten du
 Aitari begiraturik;
 Bai ta Kaifasek ere deadar
 Soñekoak urraturik:
 Blasfemoena
 Da onen pena,
 Ya dago kausa eginik.



Jaikitzen dira Konziliotik,
 Eta artzen dute bidea
 Amargurara non Pilatosek
 Zedukan bere etxea:
 Zan Erromako
 Denbora artako
 Juduen Presidentea.

Juezak dio, emango badet
 Gizon au eriotzara
 Ekazkitzute kausa Justuak:
 Ezpadirade, zertara
 Narabilzute,
 Eramazute
 Or Herodes aurrera.

Aita Eternoaren Jakiundea
 Dauka munduak zorotzat,
 Argatik dio Errege orrek
 Janzi tunika zuri bat:
 Bestela nola
 Zeruko estola
 Erosiko zan zuretzat.

Esan zioten Pilatoseri
 Juduen Sazerdoteak
 Uste al dezu ez ditugula
 Guk ere gere legeak?
 Blasfematu du;
 Merezi ditu
 Eriotza, ta azoteak.

Onek esan du, izanik Arotz
 Pobretxo baten Semea,
 Dala Jaungoikoaren Seme, ta
 Judeako Erregea:
 Iltze ezpadezu
 Etzera ez zu
 Zesaren adiskidea.

Gura zukean Juezak Jesus
 Eriotzatik libratu,
 Zergatik bere inozentzia
 Ondo zuen ezagutu;
 Bañan Juduak
 Zeuden itxuak,
 Etzioten permititu.

Eriotza bat egin ta, dio,
 Dago Barrabas karzelan,
 Nor nai dezute, Nazarenoa,
 Edo a libra dezadan?
 Da kostunbrea
 Bat libratzea
 Zeuen Pazko egunean.

Ozta aotik atera zuen
 Asi ziraden deadarrez:
 Libra ezazu Barrabas; bañan
 Jesus Nazarenoa ez:
 Orrek bear du.
 Ondo penatu
 Abe batean dolorez.

Berriz galdetzen du Pilatosek:
 Bañan zer kausa eman du?
 Israeleko Errege bada,
 Esatea da bekatu?
 Aiek deadar
 Errege Zesar,
 Ori Gurutzean ifintu.

Justiziako lege guziak
 Utzirik alde batera
 Salbadorea kondenatzen du
 Krueki azotatzera:
 Zeru altuak
 Ze dekretuak
 Datoz ortikan lurrera!



Jaungoiko ura, zeñek dadukan
Mundua lorez janzirik,
Deskorteskiro bere erropak
Tunikaraño eranzirik,
Larru gorrian
Egun argian
Utzi zuten lotsaturik.

Nora zerate gaba, to odeiak,
Illuntasuna non zera,
Nola etzatozte Birjinearen
Seme eder au estaltzera?
Ola Eguzkia
Zeure argia
Bidal ezazu atzera.

Bost milla azote, eta geiago
Loturik kolumna baten
Asi ziraden iru borrreru
Bere espaldetan ematen:
Ibai bat nola
Ala odola
Abiatu zan itxurtzen.

Arriak, eta Salbadoreak
Biak alkar ziruditen,
Zergatik etzan onen aotik
Sentimenturik aditzen;
Marmolak berak
Golpe kruelak
Zituztenean sentitzen.

Pilaretikan biziro Jauna
Soldaduak eskaturik,
Dijoazkio adoratzera
Burlaz Errege eginik
Bere Koroa
Aranzakoa
Buruan agitz josirik.

Mantu zatarra soñean, eta
Kanabela bat eskuan:
Onela Jesus tratazen zuten
Bekatariak munduan.
Mundua bera
Redimitzera
Jauna zijoan orduan.

Jesus onela ikusi, eta
Pilatos errukiturik,
Dio berriz: nik eztet arkitzen
Gizon onegan kulparik
il ezazute
Nai badezute
Erroman ezta legerik.

Aiek deadar: Jauna dalako,
Pilatos beldur bazera
Datorkiela geren animai
Orren odola gañera:
Ezkera ardura,
Gere kontura
kondena ezazu Grutzera.

Juez gaiztoak Sazerdoteen
Esana egiteagatik,
Publikatzen du sententzia bat;
Ez iñork okerragorik;
Ala ere nai du
Libre gelditu
Jaungoikoaren odoletik.

Alfer alferrik Presidentea
Garbitzen dituk eskuak,
Juez justutzat iduki azan
Hipokritori munduak:
Loiturik ago;
Bañan geiago
Hi baño ere Juduak.



Grutze batean mundu guziko
Bekatuak zituela
Abiatu zan Kalbariora
Jesus lapur bat bezela:
Artu Gurutzea
Au da bidea,
Galduko gera bestela.

Salbadorea pausu bat ere
Ezin emanik aurrera
Arbola astunak azpiraturik
Benzutu zuen lurrera.
O bekatua
Zure pisua
Karga guzia zu zera.

Ezin bakarrik eraman zuen
Zalako guztiz astuna,
Eta argatik eman zioten
Zireneoa laguna:
Ditxazko gizon
Zerade, Simon,
Nork leukake zure eguna!

Bide onetan zijoanean
Kalbarioko mendira,
Bere Semea kontenplatzeko,
Ama zegokan begira:
An dira penak
An tormentuak,
Martirioak an dira.

Ama Birjina afljitua
Itxi itzatzu begiak
Estali zaite, aingabe ere
Asko darama Semeak
Tormenturikan;
Bat ere itzikan
Eztizu utziko negarrak.

Bidaltzen ditu Amak begiak
Semearen ikustera;
Bañan biotzak sufritu ezin ta
Biurtzen dirade atzera:
Datoz argatik
Begietatik
Biotzak itz egitera.

Semearenak esaten dio:
Badakizu Ama maitea
Asko sentitzen badezu ere
Onela ni ikustea:
Bestela ezin
Zeruarekin
Egingo dala bakea.

Nere Aitaren borondatean
Zeurea bedi daukazu,
Aren esanak narama: Agur,
Bendizioa indazu;
Nere ordeaz
Bekatariaz
Kontua zeuk idukazu.

Zoaz nere Seme maitea, Amak,
Iltzera ordu onean;
Banan nola ni utzi nai nazu
Bakardade ain tristean?
O nola bai nik,
Eta ondo pozik
Jarraituko nizukean.

Salbadoreak onela penaz
Eginik bide erdia,
Beronikaren karidadeak
Kendu zion izerdia:
Obra onen pagu
Jaunak uzten du
Pinturan bere arpegia.



Zeramazkian bere laguntzen
 Jerusalemgo Alabak
 Penaren andiz begietatik
 Urturik beren biotzak;
 Eta eurakana
 Biurturik Jauna,
 Dio: Ai emakumeak!

Arbola eze au erre badu
 Bekatuaren su garrak,
 Nola eztitu abrasatuko
 Su orrek egur igarrak?
 Ez niri negar,
 Eztet nik bear
 Bekatuari negarrak.

Eldu ziraden Kalbariora,
 Non zeuden prest borrreruak
 Mundu guziko Egilleari
 Josteko oinak, ta eskuak,
 Ikusi zezan
 Bigarren Adan
 Arbola artan munduak.

Nork ditu esku oiñ orietan
 Burniarekin idiki,
 Gorrotoak, edo Amodioak
 Odolezko lau iturri?
 Bularretikan
 Ate eginikan
 Amodioa da ageri.

Belzez janzirik ezkututzen du
 Zeruak bere arpegia
 Lotsagatikan gelditzen dala
 Gorriturik Illargia:
 Gau illunean
 Zegoanean
 Altuena Eguzkia.

Austen dirade arriak, nola
 Daude biotz osorik,
 Abe batean dolorez iltzen
 Gere bizitza ikusirik?
 Bekatariak
 Gora begiak
 Negar iturri eginik.

Gogotik negar egingo ditut
 Jarririk zeure oiñetan,
 Nere Jaun ona, zaitudalako
 Ifini Gurutze:
 Daukat damua
 Zu ofenditua
 Gauza guziez gañean.

Izanagatik, Jesus maitea,
 Nere bekatua andia,
 Preziosoa da zeure odola,
 Au dakidala balia:
 Piedadea
 Nere Jabea;
 Jauna miserikordia.



ANIMEN PENITENTE BATEN NEGARRAK

Enzun itzazu, Bekataria,
Anima baten negarrak,
jakin dezazun salbatuzeko
dirala guzik bearrak,

Dolorez triste zauden anima
zer duzun, arren esazu?
Negar oriek nere biotza
erdatatutzen didazu.

Jaungoikoaren ofensak dira,
zuk dituzunak añ damu?
biotz guziaz billa bazera
ez da oraindik berandu.

Barren orretan senti dituzun,
Jaunaren desengañuak,
larga eragin dizute orañ
lenengo pauso galduak.

Bekaturako dibersioak
largarik alde batera:
erretiroan zere burua
bazoaz eskutatzer.

Eskutu artan billatzen dezu
bakardadean lekua:
nola baitere irabazteko
lengo tenpora galdua.

Begi oriek bustirik bada
Jesu Kristoren oñetan,
auspez etziñik ikusten zaitut
negarrez modu onetan.

Nere Jaungoiko lastana, arren
nizaz miserikordia:
zugana baizik nora biurtu
diteke bekataria.

Aurpegitikan lotsa dariot
zugana agertutean:
gogoraturik zer egin dedan
zu ala ofenditzean.

Badakit, Jauna, dedala ondo
merezitu infernua:
egon naiz bada nere bizitzan
zuzaz ni beti aztua.

Guruze onetan zu ipinteko
zer izan zan motiboa!
zer izango zan baizik didazun
betiko Amorioa.

Beraz onela seguru nator
Guruze onen oñera:
barkazioak dudarik gabe
zure grazian sartzera.

Jesus nerea, ez al da izan
munduan bekataririk:
nik bezeñ gaizki amorio orri
eranzun izan dionik.

Orañ bezela denbora baten:
ezagutu izan bazindust
añ erraz, Ai Ai! nere Jabea
ofendituko ez zindust!

Zergatik orañ ditut añbeste
zure ofensak sentitzen:
non ta biotza bere artean
dago dolorez partitzen.



Ai nere Jesus! Ay nere Jabe!
 Ai nere Aita gozoa!
 urratu dezu, infernukoak
 ezarri zidan lazoa.

Zerekin orañ pagatutzen
 zure erruki andia:
 itxedetean ainbat denbora
 ni bezeñ bekataria.

Zuk bear dezu aurrerakoan
 nere biotzaren jabe:
 beste guziak galduta ere
 ez naiz izango zu gabe.

A Dios mundu! A Dios lagun,
 nai ez banazu Jarritu:
 larga zadazu nere munduan
 dagidan Jauna serbitu.

Negar oriez garbi dituzu
 Anima zuk zere loiak,
 txiki, eta andi izan dituzun
 zere bekatu guziak.

Badakit orañ, lagun gaistoak
 esan dutela zugatik:
 salbatu uste guk ere degu,
 zergatik zoaz gugandik.

Baldin biurtzen ez bazerade
 lenengo adiskideetara:
 bizitza triste orrekin zatoz
 zere burua galtzera.

Zenbat obe zan orañ aldian
 aprobe txatu munduaz:
 urtetik asko gelditzen zatzu
 bizitzeko penatuaz.

Ha lagun gaisto! ha lagun falso!
 ha lagun beti itxua!
 ik emango dek egunon batean
 anima askoren kontua.

Zenbat biderrez baliatzen da
 etsaia ire mingañaz:
 Jesu-Kristori idikitzeko
 animak ire gezurrez.

Badakik ondo, zer pisu deban
 Jesu Kristoren odolak?
 onen kostuan erosi ziran
 galdu dituan lagunak.

Itxok puska bat, etorriko dek
 iretzat egun larria,
 orduan ondo pisatuko dek
 ire bekatu andia.

Bañan zuk orain, Anima santa
 itxi zere belarriak:
 ez enzuteko lagun gaistoen
 konseju añ galgarriak.

Desprezioaz mundu zoroa
 etsaia orazioaz:
 aragi ori sujetatzen da,
 okasiotik bazoaz.

Izan dituzun tentazioaz
 ez dezu zertan bildurtu:
 santu guziak zure fabore
 Zere aldetik dituzu.

Oiek bai, oiek dira konseju
 animari egokiak:
 ondo sarturik zere gogoan
 iduki itzatzu guziak.



Modu onetan egingo dezu
Santuen bizi gogoan:
anima garbi, biotza alegre,
guzia Jaungoikozkoa.

Bekatariak dauke biotza,
guzia aranzaz josirik:
barrungo kezkak farre falsoaz
disimulatu eziñik.

Zer dauka orañ zertan ikusi
bizitza batak besteaz?
munduan ere igarotzeko
kontentuz, eta bakeaz?

Artu dituzun asmo santuak
utzitzen ez badituzu:
ilzerakoan, zenbat kontentuz
estimatuko dituzu.

Orduan, diot iduki itzatzu
azken itz oiek, gogoan:
lo gozo batek artuko zaitu
Jesu Kristoren besoan.

Enzun dituzu, Bekataria,
anima onen negarrak;
guziak dira Jangoiko onak
eman diautzun deadarrak.

Konberti zaite al bait lasterren
zere Jangoikoagana:
bere besoak zabalik dago
artzeko zu beregana.

Milla amorez artuko zaitu
bere besoen artean
zergatik eztan Aita besterik
Zeruan, eta lurrean.